

NON ZER

Kultura

Leizarragaren idazlanetan barneratzen, <i>Patxi Salaberri Muñoa</i>	3
“Gotzon akorduan hartuta”, <i>Miel A. Elustondo</i>	29
Umeen-Deia aldizkaria, <i>Iñaki Sarriugarte Irigoien</i>	53
Bernardo Maria Garro “Otxolua” (A. Santi Onaindiari gaztelaniaz idatzitako gutuna), <i>Luis Baraiazarra</i>	73
Euskara-gaztelania. Castellano-euskara. Adorez Hiztegiak. Aurkezpena, <i>Patxi Uribarren</i>	87
Karmengo Amaren Egutegia (1951-1956). Bibliografia, <i>Julen Urkiza</i>	105

Gizartea

Lapurdikoko emakumeei justizia egin dien pastoralara, <i>Joseba Aurkenerena Barandiaran</i>	127
--	-----

Eliza

Karmeldarren ordena. Jesu Kristoren gogoko izanez bizi, Maria Birjinaren babespean, <i>Julen Urkiza</i> – <i>Luis Baraiazarra</i>	136
---	-----

Iritziak

Kristaufilia, <i>Jenaro Garate</i>	154
Historiaren filosofia 4, <i>Roman Garmendia</i>	158

Literatura

Kontu-Kontari

Zenonen larrain dantza, <i>Joxe Miel Bidador</i>	165
Amets baten itzala. 16 pausoko Gurutze-bidea edo ametsik gogoratzen ez duen baten aitormena, <i>Joxemari Urteaga</i>	176

Olerkiak

Mikel Asurmendi, Juan Kruz Igerabide, Etxahun Aurkenerena, Castillo Suarez	191
---	-----

KARMEL

Hiruhilabeteroko aldizkaria

Zuzendaria: Julen Urkiza (Markina)

Idazle kontseilua: Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

Helbidea: Karmeldarrak – Markina
48270 Markina – Bizkaia (Tel. 94-616 6019)
karmelaldiz@telefonica.net

Harpidetza: Urteko harpidetza: 13 €.
(Europa: 18 dolar; Amerika: 25 dolar)

*Jarri, mesedez,
argi eta garbi zeure helbidea,
guk ipinitakoa ondo ez balego.*

Aldizkariaren azala: Juan Mari Arrizabalaga

Diruz lagundutako aldizkaria:



Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak
Karmengo kalea, 5. Markina.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz

LEIZARRAGAREN IDAZLANETAN BARNERATZEN

0.– Kalbindarren erlijio-erreformatzailearen jaiotza-ren 500. urteurrena ospatzen ari den honetan¹, aukera ezin hobea aurkezten zaigu Jean Calvinen garaikide² eta erlijio-kide zen Leizarragaren bitartez iritsi zitzaizkigun idazlan erreformistak zoko ilunetik atera, mahaigaineratu eta ezagutzen hasteko. Lekukotasun historiko-erlijiosoaz gainera, Leizarragaren obrak, aurrerago ikusiko den bezala, hamaika opari interesgarri eskaintzen baitizkio gaur egungo irakurleari ere.

Irakur bitez ondoko lerrook, bada, beskoiztarrak itzuli-egokitu-moldatu zituen obretan barneratu ahal izateko gida modura.

1.– Ilun samarra dugu oraindik Joanes Leizarragaren irudia, izan ere, ez baita asko hartaz eta haren ingurukoez dakiguna. Gure literatura klasikoko beste hainbat autorerekin gertatu bezala, Leizarragak ere ezezagun samar izaten segitzen du.

¹ Ikus, esaterako, <http://www.calvin09.org/FR/home/accueil.html>.

² 1506aren inguruan kokatu ohi da Leizarragaren jaioturtea. Calvinena hiru urte beranduago, 1509ko uztailearen 10ean.

Beskoitzen jaio eta apaiz -nola esan?– erromatarra³ izate-ra iritsi zela besterik ez digu jakinarazi Leizarragaren bizi-tzaren lehen erdialdeari buruzko datu gabezia horrek. Uga-riagoak izan arren, ez dira askoz argigarriagoak ondoko ur-teetako albisteak ere, gehienak haren obretatik eta Bearnoko Sinodoen eskuizkribuetatik etorriak baitira.

Badakigu, halere, 1559an, Nafarroako erregina zen Joa-na Albretekoak bere erresuma kristautasunaren eremuetatik ateratzen ez zen fede kalbindarrean barneratzea erabakita-koan, bidaide leiala aurkitu zuela beskoiztarrarengan. Ala-baina, 1567ra arte ez zuten Eliza berriko Ministro⁴ bilakatu. Lan pastoral, ezaguna da, Nafarroa Behereko Bastidan bu-rutu zuen. Hil ere, bertan hil bide zen XVII. mendearen lehen urtean.

Guztiarekin ere, Joanes Leizarragaren eginkizuna ohiko Ministroena baina harantzago iritsi zelako dugu egun eza-gun, izan ere, berari bizkarreratu baitzitzaion erlijio errefor-

³ Berariaz baztertzen dugu geroago Erromako Elizak monopolizatzeko zuen “katoliko” kalifikatiboa. Idazkietan agertu bezala, garai hartako kalbindarrek katolikotzat zuten beren burua, “Eliça saindu catholicoa” edo “universal” delakoan sinesten baitzuten. *Katexismean* deklaratzen den bezala, “Cer erran nahi da, Catholicoa, edo universal?” galderari honela erantzuten zaio: “Hitz haur da guri aditzera emaiteco, ecen nola ezpaita fidelén burubat baicen, hala guciac gorputzbat eguin behar diradela, halaco maneraz non ezpaitirade anhitz Eliça, baina bat, mundu orotara hedatua” (Leizarraga 1571: 1990, 1308; aurrerantzean, beskoiztarraren obren aipamenak Linschmann eta Schuchardt-en 1990eko edizioaren bitartez eskainiko dira, betiere Leizarraga izena bakarrik aitatuz eta bildumak daraman orri-zenbaketa orokorrak baliaturik).

⁴ “Eliçaco Pastora edo Ministrea da, legitimoqui eta bidezqui deithu içanic Eliçaren cargua duena, hartan Iaincoaren hitza eguiatzqui declara eta Sacramenduac administra ditzançat, eta hura Iaincoac manu beçala eta haren officioac emaiten duen beçala, guida eta goberna deçançât” (*Chbistino batec iaquiteco dituen punctu principalén definitioneac eta descriptioneac* atala, in *Abc edo Chbistinoen instructioneac*, Rochellan, Pierre Hautin, 1571; Leizarraga 1433-1434).

matuaren testu fundatzaileak eta propagandazkoak euskaratzeko ardura.

Ofizialki, Pauen 1563an burutu sinodoan luzatu zitzaion agindua. Handik bi urtera Oloroeko sinodoko agirietan azaltzen denaren arabera, Leizarragak burutua edo burutzear zuen *Testamentu Berriaren* itzulpena, lanaren ikuskari-zuzentzaileak izendatu baitzizkioten: Joanes Etxeberri lapurtarra eta zuberotar bide ziren Piarres Landetxeberry, Sanz Tartas eta Tardets izenekoak.

Testamentu Berriaz gainera⁵, erlijio berriarentzat itzulitako testu fundatzaileak, oro har, hautatutako fedearen printzipioen aitopenera eta katixima, egutegi xume eta otoitz batzuetara mugatzen ziren. Testuok, adierazi beharrik ez da, fede berriko aitzindari zen Jean Kalbinek sortu edota berrikusitako oinarritzkoenak baino ez ziren.

Oroitu behar da, edonola ere, kalbindarrek euskal munduan burutu asmo zuten ahalegin “literario” hura testuinguru arras gatazkatsu baten barnean zettorrela bildurik, hots, edozein inperiok baino iraupen eta aginte luzeagoak eta irmoagoak izanak zituen Eliza erromatarrarekiko hausturak sorrarazi perspektiba ideologikoki zein sozio-politikoki iraultzaile baten muinean.

Urte gutxitan, Luteroren eskutik hasitako erlijio-erreformak mendebaldeko Europaren bipolarizatzea ekarri zuen, lurrikara haren eraginak arlo eta gizarte-geruza guztietan sentitu zirelarik. Erromako Elizaren ondasunen desjabetzea, hango elizburuaren subiranotasunaren ukazioa, hierarkia-aren aurkako planteamendua, ordena erlijiosoaren deuseztapena, ikonoen kultu-ezabaketa, sakramentu zenbaiten aldaketa, apaizen zelibatoaren kontrako jarrera, etab., “suz

⁵ TB aurrerantzean. Orobat: *Abc* (*Abc edo Kristinoen instrukzioa*), *Kl* (*Kalendrea*), *Kn* (*Konfesioa*), *Kt* (*Katexis*), *O* (*Otoitz ekle-siastikoen forma*).

eta marreçanez”⁶ (Leizarraga, 1356), odolez eta heriotzaz nahasirik etorri ziren efektuak izan ziren.

Historian barrena Erromako Elizak ustez burututako doktrina-desbideraketaren aurrean eta, aldi berean, barne-erlijioaren garrantzia azpimarratzean, egitamu erreformistak Jainkoaren mezua jasotzen omen duen liburura itzultzea proposatuko zuen, lehenago haren itzultze-akatsak eta zuzendu behar baziren ere. *Bibliara* bueltatzeak, jakina, sinestunek berori zuzenean irakurtzeko aukera eskaini behar zuen ezinbestean. Kristautasunaren fundazio-liburuak irakurle gehienentzat erabat irakurtezin egiten zituen hizkuntza ofiziala –latina, alegia– alboraturik, tokian tokiko hizkuntzetara itzultzen hasi ziren.

Letra idatzien esparruan, bada, ugaltze eskerga izan zuten mendebaldeko hizkuntzek, euskara bezala ordura arte usatu gabeak barne. Erantsi behar da liburu sakratuekin batera bestelako liburuak ere argitaratu zirela, erlijioso-didaktikoak betiere. Horien guztien euskaratzea izan zen Leizarragari –eta haren lankide gisakoei⁷– egotzi zitzaion zeregina.

2.– Maiz transmititu izan da hirutara biltzen direla Leizarragaren idazlanak, hiru agitalpenen izenburuek⁸ (*Jesus Ch-*

⁶ *Orotariko Euskal Hiztegia*n pasarte honen itzulpenik ematen ez bada ere, jatorrizko bertsiok aski uzten du esanahia: “à lieu des feus et glaives dont on a usé parci-devant”, hots, “instead of the fire and sword” (gurea da bertsiok bietako letrakera etzana). “Suz eta *ezpataz*”, alegia.

⁷ Ez da ironia-puntturik gabekoa Leizarragak *TB*ren hasieran *Reginari* zuzentzen dion gutunean tartekatzen duen parentesikoa: “[...] bayeta sperañaz ecen ni baino sufficientagoric-ere içanen cela obrán escu eduquiren luenic (nola eriden-ere içan baita Bearnoco synodoaren ordenañaz lan eguina visitatu eta coneritu behar içan denean)” (Leizarraga, 252).

⁸ Idazlanen lehendabiziko erreferentziak jatorrizko grafiarekin emango diren arren, irakurketa errazteko, egungo ortografia erabiltzera jo-ko da hurrengoetan.

rist Gure Jaunaren Testamentu Berria, Kalendrerera eta Abc edo Christinoen instructionea, guztiak 1571n, gotorleku protestante ospetsua zen Arroxelan kaleratuak) barnean dagoen guztia erakutsiko bailuten. Beherago ikusiko den bezala, nabarmendu behar da inguruko hizkuntzetan liburu-funtzionamendua izan zuten beste hiru idazlan daudela “ezkutaturik” *TB*ren eranskin modura, hots, *Confessionea*, *Catechisme*a eta *Othoitza ecclesiasticoen forma* izenekoak⁹. Guztiak, esan beharrik ez da, garrantzi handikoak kalbindar fedeari dagokionez.

Translazioetan usatu gabeko hizkuntza izateak gaineratu zituen eragozpenak alboraturik ere, begi bistakoa da lan guztiak direla arreta handiz landuak eta burutuak, eta edizioak ere biziki zainduak. Horrezaz landa, Nafarroako erresumak enkargatuak eta ordainduak izanak ere Iparraldeko mugak gainditzerainoko oihartzuna eman zien argitarapenei. Montaigne, Vulcanius, de Thou eta beste zenbait egile entzutetsuren hitzak lekuko.

Luze leramake, bestalde, Leizarragaren idazlanen artean nolabaiteko sailkapenak egiten hasteak. Izan ere, garrantzia dela eta, taxuzko *ranking* batean *TB* agertu behar bada lehendabizi (ustezko Jainko egiazkoaren hitza jasotzen eta helarazten baitio irakurleari), bigarren tokian erlijioaren oinarritzko puntuak adierazten dituen egitamua jarri behar da, zalantzarik gabe. Zailago litzateke, ziurrenik, propaganda eta pedagogia sistema-rekin lotuta dauden obrak mailakatzea.

Are eginkizun gaitzago lekarke, baina, sormenaren eta itzul-tzaile-senaren arteko desberdintasunak finkatu nahi izateak, nahiz eta aski bide dugun itzulpena dena Leizarragak sortuta-

⁹ Liburuxka haien kaleratzeko moduaz mintzo dira, esaterako, frantsesezko bertsio desberdinak. 1562ko *Confession de foy* delako batean, adibidez, *Fede-konfesioa*, *Otoitza eklesiastikoen forma*, *Katexima*, *Haurren interrogatzeko manera* (ez oraindik erabat landua) eta *Abcko* hainbat otoitz, batera, argitalpen berean alegia, kaleratu ziren (ikus <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k114552j.image.f204.langFR>).

ko gutxitxotik bereizten hasteko. Edonola ere, interesaren aldetik, oraindik zabalik dirauen arlo bat ukituko luke horrek, hots, itzulpenetarako erabili zituen ereduez diharduena. Baina geroago helduko diogu gai honi.

Egiletzaz den bezainbatean, esate baterako, agerian dago testu batzuk aratz samarrak diren bitartean, beste batzuk eztabaidarako aitzakia eskaintzen jarraitzen dutela. Ildo horretatik, begi bistan da batzuk Leizarragaren gogotik sortuak direla eta hark nahi izan zuenaren arabera idatziak, eta beste batzuk, al-diz, nabarmenkiro itzulpen huts direla (Leizarragaren orrialderik gehienak, sarritan esan den bezala). Alabaina, maiz-maizik, hainbeste eta hainbeste orri itzuliren artean testuen albo-irakurle gizagaixoari ezkutatutik geratu ohi zaio egon badagoen benetako inspirazio-etorria.

Agian horrexegatik, usu ez dago hain garbi noraino izan diren orrialde zenbait Leizarragaren senaren zelaietan alatuak eta noraino bestelakoan larreetan elikatuak. Bada, beraz, honetan zer argiturik, oraindik orain beskoiztarrak berak sortuak bailiren aurkezten baitzaizkigu besterenak diren hainbat idazki.

Zailtasunak zailtasun, hona gure beskoiztarrak sortu eta itzuli idazlanak:

Testamentu Berria

TBren inprimaketa¹⁰ 1571ko irailaren 24an burutu zen, Leizarragak berak dioskunez¹¹. Hortaz, bost lagunen artean bospasei urte eman zituzten kaleratze-premia larria zuen bertsioa zuzentzen eta inprimaketa lana prestatzen. Gertaera estonagarria, zeren Leizarragaren behin-behineko euskaratze-lanak, antza de-

¹⁰ *Testamentu Berriaren* bertsio elektronikoa ondoko helbide honetan kontsulta daiteke: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaTesta.htm>

¹¹ “Egun hunequin Testamentu berria Heuscaraz lehenic imprimitzen acabatu” zela dio beskoiztarrak *Kalendreran* (Leizarraga, 1387).

nez, pare bat urte besterik ez baitzuen iraun, 1563tik 1565era, hain zuzen. Bestelakorik kendu gabe, jakina, inprimatze-atzerapen horren arrazoia argiago gera liteke, baldin Arroxelako Hautin¹² editorea baino lehenago Genevako Jean Bonne-foy izan balitz aukeratua¹³. Argitalpenaren luzatze-atzeratzeak hobe uler litezke, bada, tartean liburuen edizioa Genevatik Arroxelara aldatzeko beharra suma baledi. Eta Bonne-foyren izena ekartzen badugu, ez da kasualitatez edota apeta hutsez, beste arrazoi sakonago bategatik baizik. Jean Bonne-foy, izatez, Kalbinek sakon berrikusia zuen eta, geroztik, kalbindarrek ofizialtzat hartu zuten frantsesezko *Le Nouveau Testament* delakoaren¹⁴ argitaratzailea izan zen Genevan –gutxienez– 1563an¹⁵, hain zuzen ere, Leizaragari *TB* itzultzeko agindua eman zitzaion urtean bertan.

Harrigarriro, eta arrazoi ageririk ez den arren, *TB*ren banaketari ere hiru urte beranduago ekin omen zitzaion, 1574ko

¹² Pierre Hau(l)tin Lyonen egona zen editore gisa 1560tik 1565era bitartean. Gero, nonbait Nafarroako Joana Albret erreginak erakarria, Arroxelan aritu zen 1570etik 1588ra. Inprimatu zituen lehen lanak Leizarragarenak izan ziren. Beste toki batean erakutsi genuen bezala (Salaberri 2008, 96-hk), 1572ko ekainean bi prentsa eta hainbat tipo saldu zizkion aurrerantzean kontrarreformaren inprimatzaile garrantzitsua izango zen G. Millanges-en aita Simon-i.

¹³ 1565eko Oloroko sinodoaren eskuizkribuak kontsultatzeko aukera ezak Lacomberen transkribapenez fidatzera garamatzan arren, zaila da zuzen zuzen ez ote litzatekeen berriro egiaztatu beharko Leizarragaren eta euskal lau Ministro zuzentzaileen lanen ordainketa egin behar zuenaren deitura, hots, ea “Monsieur de Bonnefont” irakurtzen den ala Genevako inprimatzailearen “Bonne-foy”. Errazago ulertuko litzateke, aldi berean, honako esaldiaren esanahia: “... Monsieur de Bonnefont *A la Requisition du Synode* A promis de faire apres qu’il aura Communique avec le Conseil Ecclesiastique que M. Lissarrague auroit deux Cens Liures come Les Ministres non mariés” (Lacombe 1931, 364; gurea da letrakera etzana).

¹⁴ *NT* aurrerantzean.

¹⁵ Besterik ezean (Lafonek guk ezagutzen ez dugun baina oso antzekoa dirudien beste edizio bat aipatzen du, 1562koa), *TB*ren itzulpenarako erabili erreferentzia nagusiaren ildoko ediziotzat har litekeen *NT* honek 1559an sinatua du hitzaurre gisakoa.

abenduaren 15ean. Orduko Paueko Sinodoak honako erabaki hau utzi zuen idatzita: “... Les Nouveaux Testaments en Langue Basque seront distribués par Les Colloques, en rendront compte au Synode prochain” (Lacombe 1931, 365-366).

Nolanahi ere den, eta liburuaren ediziora itzuliz, diogun lehendabizi asko direla *Testamentu Berria* izendapenaren birtartez ezagutzen den argitalpena osatzen duten atalak, eta ez guztiak maila berekoak, ez bederen garrantziari eta sorkuntz-mailari dagokienez. Eta ***Testamentu Berria*** bera da lehendabizikoa garrantzian eta tamainan, eta, jatorrizko ereduak bilatzerakoan, arazo gehien ematen segitzen duena; ez dago horretan zer duda.

Baina erabateko frogan faltan bada ere, bidezko dirudi Leizarragaren eredu nagusia Kalbinek eta De Beze-k berrikusi eta zuzendutako *Le Nouveau Testament* (Geneva, 1563) delakoa (edo edizio aberats hartatik oso urruti ez zegoen bertsio bat) izan zela pentsatzeak¹⁶. Besteak beste, gorago aipatu diren erredakzio-datekin bat datorrelako eta egituraketa, adibideak eta bestelakoak ezin hurbilago daudelako¹⁷.

¹⁶ Artikulu honetan 1563ko edizio horretatik aterako dira Leizarragaren itzulpenak eta adibideak erkatzeko pasarteak. Frantziako Liburutegi Nazionaleko helbide honetan kontsulta daiteke: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k108678p.r=calvin%2C+jean.langFR>.

¹⁷ Jean Tournes-ek 1561ean Lyonen kaleratu zuen *Bible* delakoan, bigarren parteko *NT*ko testuen alboetan dauden ohar biblikoak Leizarragarenak bezalakoak dira, inolako komentariorik gabeak. Halere, kapituluak hasierako laburpenek ez dute zerikusirik. Hori bai, hasieran ez da falta liburuen izenen koadroa (1563ko *NT*an ez bezala, honetan Leizarragak egiten duen bereizketa egiten da epistolen atalean: “Epistres de S. Paul” eta “Epistres catholiques”), ez eta beskoiztarrak amaieran ematen duen izen propioen zerrenda ere. Amaierako “Recueil d-aucuns mots & manieres de parler difficiles du nouveau Testament avec leur declaration” atala ere Leizarragarena bezalakoa da. Ondoko helbide elektroniko honetan ikus daiteke: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53622p.image.f1.pagination.langFR>.

TB bezala ezagutzen dugun liburuaren antolamenduari dagokionez, Nafarroako erreginari eskaintzen zaion **“Gucizco Andre noble Ioanna Albrete...”** gutunak irekitzen du idazlana (bai frantsesez eta bai euskaraz erredaktatua)¹⁸ eta **“Heus-calduney”** zuzendutako aitzinsolas laburra¹⁹ dator ondoren, bi-biak Leizarragak (Leizarragak berak) idatziak. Testu zehatzak dira, egileari eta hark hartutako eginkizunaren inguruabarrei buruz hitz egiteaz gain, Euskal Herriaz eta euskararen egoeraz ere mintzo direnak, sinatzaileak baino ezin idatz zitzakeenak.

Leizarragarenak²⁰ dira, orobat, **TB** beraren amaieran dagoen **“Çuberoaco herrian usançatan ezdiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac”** izeneko lexiko-taula laburra²¹ eta bertan tartekatutako ohar gramatikalak²².

Gainontzeko idazkiak kalbindar elizak agintzen zuenari segituz burutu ziren, inoizka baten baten barnean hizkuntz jolas

¹⁸ “Gucizco Andre noble Ioanna Albrete Naffarroaco Reguina Bearnoco Andre guehién &c, denari, bere cerbitzari gucizco chipiac eta gucizco obedientac, Ioannes Leizarraga Berascoizcoac, Iesus Christen gratiá eta baquea desiratzen” (Leizarraga, 249-253; frantsesez: Leizarraga, 243-248).

¹⁹ *Idem*, 254.

²⁰ Leizarragarenak direla baieztatzean, haren zuzendaritzapeco lantaldearenak direla esan nahi dugu, testuen iradokitzaile edota egile bekoiiztarra edo lankideak izan ziren jakiteko modurik ez baitago.

²¹ Leizarraga, 1213-1214.

²² Lexikoa dela eta, zalantza egingo genuke atal horretan agertzen den hitz bat ez ote zen tokiz kanpo suertatu, nahiz horretan bertan paratua geratu zen beste atal desberdinen egitura zurrinak behartuta. “Pescadore, *arrançale*” hitzaz ari gara, eta, izatez, nekez tarteka zitekeen hebraierazko eta grezierazko hitzen artean, eta, bestalde, ez bide zen hitz *difficilen* zerrendan kokatzeko modukoa, besteak beste, atal hau *TB*rekin emana eta berrikuntzei itxia zetorrelako Genevetik. Honela definitu zuen Leizarragak, atal berezia beharko zukeen testua: “Pescadore, *arrançale*. Guehienci lekuetan arrançale erraitenagatic, heuscaldun anhitzi, ma. 4. 19 eta marc. 1. 17. Nic eguinen çaituztet guiça pescadore hobequi itzeuquiz, ecen-ez. Nic eguinen çaituztet guiçarrançale: hala usatu ukan dugu” (*Idem*, 1214).

pertsonalerako ate txikiren bat irekirik suertatu bazen ere. **“Testamentu Berrico hitz eta minçatzeco manera difficil bakoitz batzu bere declarationéquin”** atalean²³, esaterako, Leizarragak egokitzen interesgarri zenbait utzi zizkigun²⁴.

Gainerako guztia, esan bezala, inoren testuen itzulpen her-tsi samarra izan zen, *Testamentu Berria* delakorako erabiliko ziren irizpide estuaren arabera burutua²⁵. Ildo horretatik, *TB*ren aurretik dagoen hirugarren idazkiak, **“Batbederac iaquiteco,**

²³ *Idem*, 1201-1213.

²⁴ *Guertha cedin* eta *Guertha ezdadila* sarrera propioak kenduta, eta hitzen bat alboratuta (ez dira itzultzen *cervoise, circoncision, doig de Dieu, parole, peagers, phylactere, vipere...*), beste guztiek frantseseko bertsioa itzuli edo egokitzen dute. *Anaye (Frere)* hitzaren egokitzenean, esaterako, frantseseko “en langue Hebraique se prend pour tout parent en quelque degré que ce soit” soila honela osatzen da: “deitzen dirade Hebraicoz, ez haourride diradenac solament, baina ahaide guciac-ere: eta generalqui hartzen denean, erran nahi da hambat anaye nola arreba, eta ez mundu hunetaco, aita-amén respectuz, baina Iaincoaren respectuz” (*Idem*, 1201). Interesgarria da, halaber, *Legionea* hitzarekin egiten den egokitzena, frantseseko “une bande de gendarmes quei contenoit ordinairement cinq mille hommes de pied, & cinq cens de cheval...” agertzen den bitartean, Leizarragak areagotu egiten baitu soldadu-kopurua: “cen gendarmesezko banda bat, ordinarioqui hamar milla oinezcoren eta borz ehun çamarizcoren contucoric...”. Orobat, jatorrizko *Denier* (“estoit une espece de monnoye, de la valeur de trois sols six deniers de France...”) honela agertzen da *Dineroa* sarreran: “cen moneta mota bat hamalaur ardit Franciacoric valio cituenic...” (*Idem*, 1204). Hizkeren aberastasunaren lekukotasunaren aldetik, ezaguna da *Sabbathoa*-ri egiten dion iruzkina, jatorrizko testua (“Or c'estoit le septième & dernier iour de la sepmaine, que nous appelons maintenat Samedi”) honela ematen baitu beskoiztarrak: “Eta hura cen asteco çazpigarren eta azquen eguna, orain batéc larambate, bercec eguiacoitz eta ber-céc nesquen egun deitzen duguna” (*Idem* 1211).

²⁵ “Haur bay erranen dut, ecen bethi orhoitic nola Iaincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquion ez eratchequi: hala eguin ahal dudán fidelquiéna eguin ukan dudala” (Joana Albrete erreginari zuzendutako gutunean; *Idem*, 253).

eta maiz iracurtzeko duen Advertimendua nola Iesus Christ den Iaincoaren Leguearen fina, eta gure salvatzeko moien bakoitza” izenekoak (Leizarraga, 255-273), Jean Kalbin du egile²⁶.

Antzeko zerbait esan liteke haren ondoan erantsia den **“Testamentu Çaharrac eta berriac iracasten draucuten guciaren sommarioa”** delakoaz ere (Leizarraga, 274-279). Frantses edizioetan egile-izenik ez duen **“La somme de tout ce que nous enseigne le Vieil et Nouveau Testament”** hau obraren hasieran²⁷ kokatua kaleratu ohi zen edo, bestela, amaieran, **“Table des matieres”** delakoaren aurretik hain preseski. Leizarragak hitzez hitz euskaraturik eskaintzen du lehena, baina ez bigarrena, izan ere, **“Testamentu Berrico materien erideiteco Taulá”** delako hau ezinbestean behar baitzen egokitu, euskarazko hitzen arabera moldatuko bazen. Egokitzapenerako irizpideak hiztegi gintzakoen pareko ditugu: bateratu egiten dira frantsesezko bertsioan sarrera desberdinetan ematen diren hainbat hitz, bereizten beste zenbait, etab.

“Testamentu Berrian diraden icen propri Hebraico eta Greco batzuen declarationea” izeneko taula ere (Leizarraga, 1198-1200) ohiko bilakatu zen. Haren eredukoa dakar, esaterako, aipatu berri dugun P. Michel inprimatzaileak 1566an argitaratutako *Bibliak*: **“Interpretation des noms propres Hebrieux,**

²⁶ Frantsesezko bertsioetan izenburua laburrago eman ohi da (**“Declaration comment Iesus Christ est la fin de la Loy”**).

²⁷ Ikus, esaterako, *La Sainte Bible contenant le Vieil et Nouveau Testament...*, P. Michel – L. Clemensin, Lyon, 1566, (lehen liburukian, 8-9 or.). Lehen liburua: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k79025x.r=.langFR>, eta bigarrena (*NT* barruan darama): <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k790268.r=.langFR>. Orobat, François Estienne-k 1567an Genevan argitaratutako *Biblian*: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53627d.image.langFR.f166.pagination>, eta Perrin-ek urte berean hiri berean kaleratutakoan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536231.image.langFR.f1109.pagination>.

Chaldeens & Grecs... en la Bible”²⁸ (ikus 2. liburukia). Leizarragarena, jakina, laburragoa eta *TB*ko testuaren arabera taxutua da.

Konfesionea

Ahaztu egin ohi da normalean kalbindarrek beren tesi erlijiosoak finkatzeko eta jakinarazteko premiak honako idazki larri, zehatz eta berezi hau izan zuela ondorio nagusi.

“Arroxelako Fede-Konfesioa” ere deitua (1559)²⁹ eta Jean Kalbinek berak idatzia, *Iesus Christ gure launaren Evangelioa doctrina puraren araura vicitzeo desira duten Franceséc consentimendu commun batez berén fedeaz eguin duten konfesionea* izeneko dokumentu honek kalbindar fedearen gako erlijioso-ideologikoak xehetzen ditu berrogei ataletan³⁰.

Egia esan, Leizarragaren argitalpenetan *Testamentu Berria*ren azkenengo orrietan kokaturik egoteak ez du gehiegi lagundu egungo irakurle euskalduna idazkiak duen balioaz ohar dadin. Linschmann eta Schuchardten edizioan, gainera, desitxuratuago geratu izan da *Konfesionea*, azala eta lehenengo bi orrialdeak *Abc...* delakoaren bukaerara desplazatzean³¹, idazkiak zeukan garrantzia zeharo lausoturik geratu baita.

²⁸ Ikus P. Michel – L. Clemensin-en 2. liburukian. Orobat, Perrin-en *Biblian*: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536231.image.langFR.f1104.pagination>.

²⁹ 1561ean argitaratutako bertsioetako bat Frantziako Biblioteka Nazionaleko helbide honetan kontsulta daiteke: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k793530.image.f1.langFR>. Bertsio eguneratueta bat: http://www.histoirepassion.eu/spip.php?article1271#outil_sommaire_2.

³⁰ Bertsio elektronikoa: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaKonfesionea.htm>

³¹ Bistan da edizio horretako 1439-1440 orrialdeak (hots, liburuxkaren izenburua eta “Advertimendua”) 1354 eta 1355 orrialdeen artean kokatuta argitaratu beharko lirakeela.

Bestalde, eta inoiz besterik aditzera eman bada ere (Rodríguez Miñambres, 1995), haren aurretik dagoen **“Regueri eguin ičan çayon supplicatione bat”** izeneko gutuna ez da Leizarragak idatzia. Kalbinen ekimenez sortua, exordio gisako hori Théodore de Bèze izeneko teologoak erredaktatua zen. Beskoiztarraren taldeak euskaratu baino ez zuen egin.

Katexisme

TBren amaiera aldean erantsia ezagutu dugu euskaldunok (Linschmann eta Schuchardtek argitaratutako edizioan, esan nahi baita) Kalbinek liburu desberdin gisara kaleratutako *Catechisme. C'est a dire, le formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté, faict en maniere de dialogue, ou le Ministre interroge, & l'Enfant respond* (Geneve, Iehan Crespin, 1552) liburuaren³² itzulpena³³.

Frantsesezko edizioan 127 orrialde inprimatu dituen liburu honek ***Catechisme, cein erran nahi baita, Iesus Christen doctrinán baourrén iracasteco formá, non Ministreac interrogatzen baitu, eta baourrac ihardesten*** izenekoan azaltzen ez diren bi orrialdeko “Epistre au lecteur” delako bat du hasieran, eta, 116. orrialdetik aurrera, *Abcren* euskarazko bertsioan agertzen diren hainbat otoitz³⁴ eta hango katixima itxurako “interrogatzeko manera” llaburra bera³⁵.

³² Honako helbidean: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k531151.image.r=calvin%2C+jean.f2.langFR>.

³³ Euskarazko bertsio elektronikoa ondoko helbidean kontsulta daiteke: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaKateximea.htm>.

³⁴ “Goiceko orationea”, “Lectiõnearen studiatzeracoan erraiteco orationea”, “Ian aitzineco ohoitzá” (sic), “Ian ondoco othoitzá” eta “Arratseco orationea”.

³⁵ Bonnefoy-k kaleratutako *Les Pseumes mi sen rime françoise par Clement Marot & Theodore de Beze* (1563, l.g.) lanari erantsita agertzen da, orobat, *Catechisme* delakoa, *La forme des prières ecclesiastiques...* eta Leizarragaren *ABCn* ere agertzen diren otoitz zenbaiten ondoren (ikus <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1086792.r=langFR>).

Otoitza eklesiastikoen forma

*Katexisme*a bezalatsu, *TBren* akabera kokaturik kaleratu zen gure artean Kalbinek liburuxka bezala plazaratutako *La forme des prieres Ecclesiastiques: avec la maniere d'administrer les Sacremens, & celebrer le mariage, & la visitation des malades* (l.g., 1552)³⁶ liburutxoaren itzulpena. Frantsesezko bertsioa euskarazkora igaro ez den hiru orrialdeko otoitz batez amaitzen bada ere, Leizarragaren ***Othoitz*a *eclesiasticoen forma: Sacramenduén administratzeco eta Ezconçaren celebratzeco, bay eta erién visitatzeco manerarequin*** bertsioa³⁷ guztiz bat dator frantsesezko ereduarekin.

ABC edo Kristinoen instrukzioea

Arazotsua izan da betidanik *ABC edo Christinoen instructionea* othoitz eguiteko *formarequin* liburuttoa³⁸, antzeko izenburukorik aurkitu arren, eduki berekorik ez baita ezagutzen. Horrezaz gain, ohiko samarra izan zen kalbindarren artean aurretik argitaratutako materialez baliatzea eta aurpegi berriko argitalpen osatuagoak kaleratzea.

Dena den, ezin pentsa daiteke Leizarraga zintzoak edozeinetatik hartuko zuenik bereetara garraiatzeko materiala, izan ere, eliza erreformatuak berehala atzeman zuen abezedarioak bezalako argitalpen xumeetatik sor zitekeen nahasmendu doktrinala³⁹.

³⁶ Ikus honako helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k52960t.r=calvin%2C+jean.langFR>.

³⁷ Bertsio elektronikoa: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaForma.htm>.

³⁸ Bertsio elektronikoa: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaAbc.htm>

³⁹ Haien baitako dotrina-galdeketa nahasgarri bezain heretiko sueta zitezkeela eta (halakotzat jo izan zen Vincent Brès-ek 1562an argitaratutako *Les demandes faites par les Ministres de l'Eglise de Genève aux enfans qui se presentet pour estre receus à la sainte Cene*), arreta

Gureari dagokionez, *Abc*ren **“Heuscal-Herrian gaztetassunaren iracasteco carguā dutenér eta goitico guciér, I. Leizarraga Berascoizcoac Iaincoaren gratia desiraten”** izeneko prologoa kenduta (Leizarragarena berarena baita: 1393-1395 or.), gainontzekoaz den bezainbatean, eklektiko samarra azaltzen da liburua, eta ez dirudi obra bakar baten itzulpena denik.

Ilido horretan, Leizarragaren *Abcn* dagoen **“Jesus Christ gu-re Iaunaren Cena saindua recebitu behar direnén interrogatzeco manerá”** (Leizarraga, 1419-1424) Kalbinen 1552ko *Catechismen* aurkitzen dugu frantsesez (*“La maniere d’interroguer les enfans qu’on vont recevoir à la Cene de nostre Seigneur Jesus Christ”*⁴⁰), baina pasarte gehienetan era desberdinez egituratua eta edukietan ere alde handiak daudelarik⁴¹. Alabaina, egia da aipatu *Catechisme* horren bukaeran solte antzera agertzen direla hainbat otoitz eta “interrogatzeko manera”, Leizarragaren *Abc* honetan tartekaturik ditugunak (ikus *Katexismeaz* esandakoa).

Bistan da, bestalde (eta honek eklektizismoaren hipotesia indartuko luke), *Abc*ren amaieran dagoen **“Christino batec iaquiteco dituen punctu principalen definitioneac eta descriptioneac”** izeneko txatalak (Leizarraga, 1425-1438) aparte argitara zitekeen koadernotxo baten egitura duela.

berezia jarri izan zen hasieratik. Calvinen adibidea ezin adierazgarriago da: 1553ko *La maniere d’interroguer les enfans* delakoa eraberritua –zehatzagoa eta, doktrinaren aldetik, argiagoa– kaleratu zuen gerro 1562an. Brès-ena, esan beharrik ez dago, bahituta geratu zen hurrengo urtean (gehiagorako, Jostock 2007, 101hk).

⁴⁰ Ohar bekio, frantsesezko bertsioetan ez bezala, Leizarragak ez duela *“baurrei* interrogatzeko manera” esaten. Galdeketa, halere, *Ministrea* eta *Haurraren* artean burutzen da.

⁴¹ Gorago adierazi bezala, 1562koa ere ez zen Leizarragaren erreferentzia izan. Nolanahi den, eta erkatze-lan sistematikoaren faltan, balirudike 1563-1564ra bitartean (eta, gehien-gehienik, 1568ra arte) bilatu beharko litzatekeela Leizarragaren erreferentzi liburua.

Kalendrera

Jai mugikorrak, pazkoa, ilargi berria eta beste hainbat gauza noiz diren jakin ahal izateko egutegi protestantea, Hus eta Luteroren heriotzen datak eta hainbat saindurena nabarmentzen dituen, baina ez, harrigarriro, Kalbinena (1564.05.27).

Leizarragak egindako ohar bereziren bat kenduta⁴², beste guztietan erlijio erreformatuaren ohiko egutegitzat hartu izan da ***Kalendrera, Bazko noiz daten, Ilbargui berriaren eta letra Dominicalaren eçagutzeco manera-requin*** izenburuarekin argitaratutako hau⁴³.

Bada desberdintasun franko, halere, honako artikulua hau gehiago ez luzatzearren, beste baterako utzi beharko ditugunak.

3.– Adierazia dugu frantsesezko testuak dituela Leizarragak itzulpenen burutzapenerako iturri nagusi. Are gehiago, euskaratzeko orduan, eta testuen izaera larriak hala markatzen duelako, hizkuntza frantsesean moldatutakotik hurbil dabil egile euskalduna. Aitortzen duen bakana ere ildo horretatik doa. Ez du kasualitatez idazten, “guertha cedin” delakoaren erabile-ra justifikatzen duenean, honako hau: “minçatzeco manera hunez usatu ukan dugu, ez hala erraiten dugunean, ignorantac minço diraden beçala, venturazco edo tropuzco gauça dela erran nahi dugulakotz, baina lengoagean moldezcoago itzeuquiz, eta *Francesari iarreiquiz*” (Leizarraga, 1206). Nabarmena da *gerta zedin* horrek bideratzen duen kontaketa eraz gainera, frantsesezko testua bera dela erreferentzia. Sintaxia eta lexikoa lekuko.

Guztiarekin ere, bi itzulpen mota erakusten ditu, oro har, Leizarragaren obrak, haietako batek bere baitan itzulpen berezi

⁴² Buruilaren 23ari dagokion oharra, esaterako, “Egun hunequin Testamentu berria Heuscaraz lehenic imprimitzen acabatu 1571”

⁴³ Bertsio elektronikoa: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaKalen.htm>

egiten duten ñabardura batzuk hartzen baditu ere, beherago erakutsiko den bezala.

Batetik, itzulpen zeharo hertsia, jatorrizko testuarekin erabat leiala eta inolako traiziorik onartzen ez duena. Itzulpen mota hau, azpimarratu beharrik ez da, lotuta dago kalbindarren printzipioekin, izan ere, ez baitzuten uste Jainkoaren hitza ukitua edota parafraseatua izan zitekeenik. Leizarragak berak airtortzen duen bezala, “haur bay erranen dut, ecen bethi orhoitic nola Iaincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquion ez eratchequi: hala eguin dudan fidelquiena eguin ukan dudala” (Leizarraga, 253). *Testamentu Berria* da itzulpen mota horren erakusgarria. Bertan itultzaileak ez du askatasunik erabiltzen testuaren zentzuaren arabera itultzeko; dena da hitzez hitzeko itzulpen⁴⁴.

Bigarren itzulpen mota, zerbait askeagoa, erlijio erreforma-tuaren testu kanonikoek eta dotrinaren hedapenerako katixi-

⁴⁴ Erantsi behar da, dena den, itultzaile gisa baduela Leizarragak “askatasun-unerik”, jatorrizko testua zehazteko eta argitzeko baino ez bada ere, beti, baina, letrakera etzanez, “eçagun dençat ecen hec teztuan aditzen diraden hitzak içanagatic, eztiradela ordea textu gorputz berecoac, baina declaragarri iarriac” (“Heuscalduney”). Pare bat adibide besterik ez dugu hona ekarriko. Lehenbizikoan testuaren alboan agertzen da “askatasun” horren arada. Euskarazko bertsio estuak naturaren aurkako omen diren pentsamenduetara eraman deza-keenez (“Eta Iacob-ec engendra ceçan Ioseph Mariaren senharra, ceinaganic iayo içan baita Iesus, cein erraiten baita Christ”, Mateo 1, 16), Leizarragak, zalantzak ezabatzeko, honako hau eranstean du *in margine*: “*ceinaganic Mariaganic*”. Teologikoki ez hain gordina, bigarren adibideko testua inplizituki Betaniako Mariak izan omen zuen lanbidearekin lotua dago (oroit bedi, san Gregorio Magno eliz-buruaren arabera, pertsona bera zirela Betaniakoa eta Maria Magdale-na). Honela ematen du Leizarragak frantsesezko “ses cheveux”-en ordez “biloez” jarrita bakarrik jolas anfibologikoetarako atea zabalik utz zezakeen pasartea: “(Eta Maria haur cen Iauna unguentuz uncatu çuena, eta haren oinac bere *adatseco* biloez ichucatu cituena: ceinen anaye Lazaro baitzen eri)” (Joan 11, 2).

mek erakusten dute⁴⁵, *Abc* delarik guztien artean askatasun gehien hartzen utzi bide diona⁴⁶. Nolanahi ere, ozta-ozta uzten ditu Leizarragak *TBn* erabilitako euskaratze-irizpide estuak.

Bestalde, hizkerari gagozkiolarik, bada zer esan ere.

Baldin egia bada Schuchardten baiezipena, ezen “la lengua de Leizarraga está para los actuales labortanos y bajonavarros por lo menos tan alejada como la lengua de Lutero para un alemán actual” (Schuchardt 1900: 1990, 8), nekez pentsa genezake hurbil suerta dakigukeenik haren lapurtera ehun urte beranduagoko euskaldunoi. Ordea, hainbat uruntasunez jabeturik ere, Leizarragaren hizkuntza proposamena hiruzpalau mende beranduagoko idazle zenbaitena baino hurbilago geratzen zaio egungo euskaldunari.

⁴⁵ Honela zuritu zuen beskoiztarrak bere hautua: “Eta minçatzeco maneraz den becembatean, Heuscal-herrian religionearen exercitioa den lekuko gendetara consideratione guehiago ukan dut, ecen ez bercetacoetara” (Leizarraga, 1394).

⁴⁶ *Abc*ren frantsesezko erreferentzia finkatzeko badago ere, orain arte erkatutako testuekin parekaturik hainbat dibergentzia azal daitezke. Otoitzei erreparatuz gero, esaterako, berehala atzemango da Kalbinnen jatorrizko bertsioan otoizlaria singularreko lehen pertsonan gartzten den arren (“qu’il ta pleu me faire la grace”, Leizarragarenean pluraleko lehenean burutzen dela (“gratia eguin draucuan beçala”, 1404-1405 or.). Bide berean, lexikoarekin ere ahalkerik gabe ausartzen da moldaketan esparrura. Hona orrialde bereko (1405 or.) bizpahiru adibide: “sur la terre” -> *mundu hunetan*; “pour me diriger en la droite voie de ta iustice” -> *bire iustotassuneco bidera guida gaitenceçat* (ohar bekio ez dela *zuzen* kalifikatiboa azaltzen), “cheminer en ta crainte” -> *bire beldurrean vicitzera*; “à la vie celeste” -> *vicitze eternalera*, etc. *Kt* delakoan ere askatasunez jokatzten du. Frantsesezko “car si nous, qui sommes mauvais, ne pouvons refuser à noz enfans le pain & la viande, quand ils nous la demandent, tant moins le fera nostre Pere celeste ...” pasarte, adibidez, honela ematen du Leizarragak: “ecen baldin guc, gaichto garelaric, ecin iraitz baditzaquegu gure haourrac gauça onen esquez daudenean: Cembatez gu-tiago iraitziren gaitu gu gure Iainco Aitac...” (1334 or.).

Horren arrazoia Leizarragak ehuntzen duen hizkuntz ko-dean letzake nagusiki, hartatik islatzen den luterarren gisako xede –erlatiboa bada ere– orokortzailean. Ia erabateko letra-antzutasuna erakusten zuen hizkuntzaren egoerari aurre eginenez⁴⁷, Leizarragaren erabakia aratz zegoen: “[...] lengoageaz den becembatean ahalic gehiena guciey adi eraciteari iarreiqui ičan gaitzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco lenhoage (sic) bereciri” (Leizarraga, 254).

Lapurteratztat identifikatua (hartara jotzen baitu funtsean), beskoiztarraren grafolektoak⁴⁸, labur esanda, ez du faltan behe-nafarrera eta zubereraren tasunik. Eta *TB*ren testuarekiko leialtasunak kultismoetarako bide –diogun– apurtzailea harrarazi bazion⁴⁹, euskararekiko leialtasunak hizkuntz arkaismoen ildo urratzera bulkatu zuen, aditzaren esparruan, batez ere. Hain zuzen ere, eta besterik kendu gabe, aoristoa, alokutiboa (hitanoa, batik bat) eta aditz trinkoa baitira Leizarragaren hizkera ongien bereizten duten ezaugarriak. Ildo horretan, egun harri-garri zaigun aoristoa da *TB* osoan gailentzen den narrazio-aditza (subjuntibozko formak, guk indikatibozko lehenaldian eman ohi ditugunak); Kontrarreformak sistematikoki deserrotu nahi izango zuen hitanoa da elkarriketetako molde nagusia (hika mintzo dira Leizarragaren solaskideak, hala Jainkoarekin nola gurasoekin); eta aditz trinkoa da, azkenik, hainbat eta

⁴⁷ “[...] nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetatic eta diversenetatic: eta oraino, translationetan behinçat, usatu gabea” (Leizarraga, 252).

⁴⁸ Schuchardt-ek ohartarazi legez, “Leizarraga fijó él mismo la lengua en la que escribió” (Schuchardt 1900: 1990, 9).

⁴⁹ Hein batean horrekin lotua, humanistena baina haratago doan greziera klasikoaren aldeko joera aurkitzen da urte haietako kalbindarren artean. Greziera ikasgarazteko egiten ari zen ahaleginen fruitu dira, esate baterako, 1568an Th. Bèzek argitaratu zuen grekerazko gramatika eta urte bereko *A.B.C...* delakoan, Zena saildua errezibitu behar duten *haurrei interrogatzeko manieraren* amaieran greziar hizkuntzak erakusten duen presentzia: igandeko otoitzaren grekerazko bertsioa, letra greziarren izenak, etab.

hainbat forma galduren bidez (*zarreitzan*, *zeraunsten*, *eztera-karran*...) Leizarragaren prosa bitxiago bilakatzen duena.

Bat da, beraz, Leizarragaren kodea. Bat, berezia eta inguruko euskalkien gainetik aritzeko xedea duena⁵⁰.

Bestalde, grezierazko lexikoaz eta latinezkoaz landa, ez dira gutxi Leizarragak beste hizkuntzetatik (frantsesetik nagusiki, baina baita gaztelaniatik eta gaskoieratik ere) hartzen dituen hitzak, ez beti behar bezala ulertuak⁵¹.

⁵⁰ Askoz ere garrantzi gutxiagokoa, kode horrek badu, halere, egokitzapen modukorik hain larri ez diren idazlanetan, gorago erakutsi bezala. Teorikoki zuritua, bada, ("Minçatzeco maneraz den bezembatean, Heuscal-herrian religionearen exercitioa den lekuo jendetara consideratione gehiago ukan dut, ecen ez bercetacoetara, eta haur, sperañaz ecen Instructione hunec lehenic, eta orain behin guehienic, hetan cerbitzaturen duela" dio *Abcren* hitzaurrean, 1394 or.), ez bide du urrunegira iristeko asmorik, ez baita *Abc* eta *Kalendrer*a bezalako lan xumeetatik igarotzen. Labur esanik, "Zuberoan eta aldirietan" (ikus Leizarraga, 1214) baliatzen omen zen forma batez ordeztan dira datibo plural guztiak, hots, *-ei* beharrean, *-er* marka idatziz. Gainerakoetan (eta aski zatekeen deklinazio-marka partikular hori omen zerabilten hitzunen lexiko propioa, Leizarragak berak gorago esan den tokian emana, erabiltzea), ohiko lexikoa erabili zuen paradoxikoki. "Zuberoan eta aldirietan" egiten omen zen hizkera baliatu nahi izan balu (eta, zeharka behintzat, hori egin asmo zuela adierazten zuen *-er* datiboaren erabilerak lehen begiradan), gutxienez *TB* liburuaren amaierako "Zuberoako herrian usantzatan eztiraden hitz ba-koitz batzu hango antzora itzuliak" atalean zehaztu zuen lexiko diferentziala erabiliko zukeen, hau da, *Resuma* eta *zerua* beharrean (Leizarraga, 1398), *retatuia* eta *zeluia* erabiliz; *hurkoa* beharrean (Leizarraga, 1402) *proximoa*; *azpian* gabe, *pian*, etab. Alabaina, ez da horrela gertatzen.

⁵¹ Batzuk moldatu-egokituak, beste batzuk ez horrenbeste, beskoiztarren idazlanek jatorrizko testuekin erkatuak izatea eskatzen segitzen dute oraindik, itxuraz, bederen, lexikografiari probetxu nahikoa ekar bailiezaioke frantsesezko bertsioekin alderatzeak. Izan ere, aipatua dugu dagoeneko hitzen baten kasua, eta erraz asko aipa litezke hiztegi larrietan galdera-ikurrez horniturik dauden beste hainbat ere: *ireter eraci* faktitiboa, frantsesez "faire decider" eta ingelesez "to decide" aditzaren bidez emana dena, etc. *Crobitchet* (fr. "couvrefchef")

4.– Leizarragaren obraren irakurketak arazo handiegirik sor ez dezan, komenigarria da kontu zenbaitez ohararaztea. Asmo gramatikalik gabe bada ere, hona hemen pasarte desberdinetan lasaia go barneratu ahal izateko garrantzitsuenak:

- Narrazioetan aditz nagusia subjuntibo eran aurkituz gero, ez kezka. Jakin ezazu egungo indikatibozko lehenalditzat har dezakezula delako *aoristo* zahar horren esanahia. Eta, horrela, *joan zedin, eror zekion, eriden zezan, erran zizen* bezalako formak *joan zen, erori zitzaion, eriden zuen* eta *erran zien* izango liratekeela egungo euskaldunontzat.
- *Gerta zedin* formularen ondoren *bait*– partikula daraman aditza etorriko zaigu beti, gertatu zena adierazteko: “Gerta zedin, bada, hil baitzedin paubrea eta eraman baitzedin Aingeruez Abrahamen bularrera”.
- Orainaldia zein lehenaldia erlatibo itxurako markarekin ez da beti erlatibozko esaldiaren aditza, egungo subjuntiboaren pareko baizik: *garen > izan gaitezen, goazen > joan gaitezen, dagigun > egin dezagun, garreizten > jarrai gatzazkien*, etab.
- *Albait*–/ *albeit*– aginte adizkitzat har daitezke, eta aditzari lotuta agintera gisako bat adierazten dute: *albeitindoa > joan badi, oroit albeitiendi > oroitu badi...*

bezalako hitzek ere aski argi jaso lezakete itzulpenaren jatorrizko bertsioak erabiliko balira. Ildo horretan frantsesezko TBren testuaren alboan honelako oharra erantsi dira “couvrechef”-en kariatara: “Les Iuifs en leur sepulture enveloppent le chef d’un linge à part: qui est pour monstrier l’abus & fausseté du saint suaire, qu’on appelle” (Joan 11, 44) eta, aurrerago, “ou, suaire. En quoy on void l’abus & tromperie de ceux qui en ont voulu faire un linceul tout entier” (Joan 20, 7). Eta berdin esan genezake *algoaric* delakoari dagokionez (Leizarragak *Eta are baldin Ministreac algoaric badu* bezala ematen duenaren jatorrian honako hau idatzi zuen Kalbinek: “Et mesme, si le ministre a quelque chose” *La forme des prieres...*, 50 or.) eta beste hainbatez ere.

- *KE*-dun adizki trinko gehienak zaharkituztat ditugun arren (barka txantxa-punttua), etorkizun esanahia erakutsi ohi dute: *datorke* > *etorriko da*, *garate* > *izango gara*, etab.
- Gureztat erredundante samarra den arren, subjuntiboa (edo gureztat indikatiboa dirudien forma + *n*) + *tzat* ereduak helburuzko esaldia iragartzen du: *dentzat* > *izan dadin*, *dutentzat* > *izan dezaten*, *lemotentzat* > *eman liezaioten*, *eztatozentzat* > *etor ez daitezen*, etab.
- Ohi ez bezala agertzen da hainbat adizkiren aspektu-mar-ka ezburutua: *batsen* > *hasten*, *bere(i)zi* > *beretzen*, *bazi* > *batzen*, *ikuzi* > *ikutzen*, *moztu* > *motzen*, etab.
- Egun iragankortzat ditugun aditz batzuk iragangaitz ager- tzen dira: *eska zaitezte* (“eska ezazue”-ren ordezt), *nahi baiz sendatu?* (“sendatu nahi duk?”-en ordezt), *barazkal zaitezte* (“bazkal ezazue”), etab.
- Besterik ematen duten arren (ez baitira bokalak bikoiztu-rik agertzen), aditz batzuk hitanoaren paradigmari dagoz- kio: *igor dezan* > *igor dezaan*, *etzezala* > *etzezaala*, *dadukalarik* > *dadukaalarik*, etab.
- Gogoan har Leizarragak adizki perifrastiko zenbait bereizi gabe ematen dituela (*abantzadi*,...). Aldi berean, “ez” par- tikula ere normalean aditzari lotua ematen du, dagozkion aldaketa fonetikoak eginez: *eztut* > *ez dut*, *etzezaten* > *ez zezaten*, etab.
- Ez ahaztu Hegoaldeko euskalkietan aditz izenaren objek- tua absolutuan jartzen den bitartean, lapurterak genitiboa erabiltzen duela (“...Testamentu Berriaren euskarazko translazione *bunen* zure Majestateari dedikatzeraz ausartu izan naizen...” gisakoak).
- Testuinguru zenbaitetan, instrumentala egungo ergatibo- tzat hartu beharko da: *Profetaz errana* > *Profetak errana*, etab.

- *Zeren* guztiek ez dute esanahi berdina. Galdera bat irekitzen duenenean, *zergatik* esan nahi du.
- Egun bitxi samarra egiten den egitura darabil Leizarragak maiz asko. Haren *Eta eman zekion abo gauza handiak eta blasfemioak pronuntziatzen zituena*, esate baterako, usuago aurkituko genuke honela: *Eta eman zekion (= zitziaion) gauza handiak eta blasfemioak pronuntziatzen zituen aboa*. Berdintsu esan liteke ondoko honetaz ere: *ezen zure sujet kontuz eriden ahal leiten baino gehiagoren aubenak eta suspirioak entzuten ditukezula > ezen kontuz eriden ahal leiten baino sujet gehiagoren aubenak eta suspirioak entzuten ditukezula*.
- Lexikoari dagokionez, ohar bedi ezen hainbat hitz (oso gutxi, dena den) modu desberdinez itzultzen dituztela kalbindarrek eta katolikoek. Kalbindarren *sakrifikadorea*, esaterako, katolikoek *sazerdotea* da.

Bibliografia

- Calvin, J., 1552, *La forme des prieres Ecclesiastiques: avec la maniere d'administrer les Sacrements, & celebrer le mariage, & la visitation des malades*, l./g., arg./g. (Helbide elektronikoa honetan kontsulta daiteke orain: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k52960t.r=calvin%2C+jean.langFR>).
- Calvin, J., 1552, *Catechisme. C'est à dire, le formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté, faict en maniere de dialogue, ou le Ministre interroge, & l'Enfant respond*, Geneva, Iehan Crespin (Orain helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k531151.pleinepage.r=calvin%2C+jean.f2.langFR>).
- Église Reformée de France, 1561, *Confession de foy, faite d'un commun accord par les François qui desirent vivre selon la pureté de l'Evangile de nostre Seigneur Iesus Christ*, l.g. (Orain helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k793530.image.f1.langFR>).

- Église Reformée de France, 1562, *Confession de foy, faite d'un commun accord par les François qui desirent vivre selon la pureté de l'Evangile de nostre Seigneur Iesus Christ*, l.g. (Orain helbide hone-tan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k114552j.image.f3.langFR>).
- Intxausti, J., 1995, "Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571, Erreforma-kontrarreformetako ilun-argitan", *RIEV* XL, 119-160.
- Jostock, I., 2007, *La censure négociée: le contrôle du livre à Genève, 1560-1625*, Geneva.
- Les demandes faites par les Ministres de l'Eglise de Genève aux enfants qui se presentet pour estre receus à la sainte Cene*, 1562, Geneva, Vincent Brès.
- Lacombe, G., 1931, "De nouveau sur Liçarrague et ses collaborateurs", *RIEV* 22, 363-366.
- Lafon, R., 1943: 1980, *Le système du verbe basque au XVIeme siècle*, Donostia.
- Leizarraga, J., 1571, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, ABC edo Christinoen Instructionea eta Kalendrera*, Arroxela [orain in Th. Linschmann eta H. Schuchardt (ed.), 1900, *I. Leizarraga's Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc) im genauen Abdruck*, Strassburg (azken honen edizio faksimila: Bilbo, 1990)]. Obra guztien banakako bertsio elektronikoak ondo-ko helbide honetan aurki daitezke: <http://klasikoak.armiarma.com/alfa.htm#L>.
- Marot, C. eta Beze, Th., 1563, *Les Pseaumes mi sen rime françoise par Clement Marot & Theodore de Beze*, Iean Bonnefoy, l.g. (Orain honako helbide elektronikoan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1086792.r=.langFR>).
- La Bible, qui est toute la Sainte escriture du Vieil et Nouveau Testament, autrement l'ancienne et la nouvelle Alliance : le tout reveu et confere sur les textes hebrieux et grecs*, 1561, Lyon, Jean Tournes (Orain: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53622p.image.f1.pagination.langFR>).

La Bible qui est toute la Sainte Esriture: contenant le Vieil & le Nouveau Testament, Autrement la Vieille et la Nouvelle Alliance, 1567, Geneva, François Perrin – Antoine Vincent (Orain ondoko helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536231.image.f1.langFR#>).

La Bible qui est toute la Sainte esriture contenant le vieil et le nouveau Testament, autrement la vieille et la nouvelle Alliance, 1567, Geneva, François Estienne (Orain ondoko helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53627d.image.langFR.f166.pagination>

La Sainte Bible contenant le Vieil et Nouveau Testamen: ou, la vieille & nouvelle Alliance, 1566, Lyon, Pierre Michel – L. Clemensin (Orain helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k79025x.r=.langFR>).

Le Nouveau Testament, c'est à dire, La nouvelle alliance de nostre Seigneur Iesus Christ. Reveu & corrigé de nouveau sur le Grec, par l'advis des Ministres de Geneve. Avec Annotations revés & augmentees par M. Augustin Marlorat, Geneva, Iean Bonne-Foy, 1563 (Orain helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k108678p.r=calvin%2C+jean.langFR>).

Olaizola, J. M., 1993, *Historia del protestantismo en el País Vasco. El Reino de Navarra en la encrucijada de su Historia*, Iruña.

Peter, R., 1965, "L'abécédaire genevois ou catéchisme élémentaire de Calvin", *Revue d'Histoire et de Philosophie Religieuses* 45-1, 11-45.

Rodríguez Miñambres, P., 1995, "Leizarragaren <Regueri> gutuna. Azterketa erretorikoa", *Enseiukarreetan* 11, 217-243.

Ruiz Arzalluz, I., 1991, "El modelo griego de Leizarraga: ¿una quimera filológica?", in J.A. Lakarra (ed.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, ASJU, Gehigarriak XIV, 107-115.

Salaberri, P., 2002, *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal Literatura idatzia 1900 arte*, Donostia.

Salaberri, P., 2008, "Inprentak mintzo direnean. Millangestarrak eta euskarazko liburuak", *Karmel* 262, 95-107.

- Schuchardt, H, 1900, “Vorwort” eta “Üeber die Einrichtung des Neu-drucks, insbesondere über die Druckfehler und Varianten bei Leizarraga” (orain: “Prólogo” eta “Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular las erratas y variantes en el texto de Leizarraga”, in Leizarraga 1990, 127-240).
- Soulié, M., 1980, “Littérature populaire et propagande de la Réforme”, *Bulletin de l'Association d'Étude sur l'Humanisme, la Réforme et la Renaissance* 11-2, 167-174.
- Vinson, J., 1891: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volumenes I y II)*, Donostia.
- Zulaika, E., 1998, *Ioanes Leizarragaren aditza*, Donostia.

Patxi Salaberri Muñoa

“GOTZON AKORDUAN HARTUTA”

(Testu hau 2009ko irailetik azarora bitartean Gotzon Garateren omenez Elgoibarren antolatu dituzten “Gotzon akorduan hartuta” jardunaldien barruan irakurri zuen egileak Iñaki Lasa adiskidea lagun harturik)

1. Aurkezpen(ak)

Hasteko moduak hamaika litzek, bost, asko. Ortodoxoena eta, beraz, hotzena, baina ez motzena, hauxe, adibidez:

“Gotzon Garate Goiartzun (Elgoibar, 1934 – Bilbo, 2008). Jesulaguna, euskal idazle eta filologoa, gure literaturaren adierazle handienetakoa sasoi batean. Marxismoaren gaineko hainbat lan argitaratu zituen euskaraz. Euskal Filologia ikasketak abiarazi zituen Deustuko Unibertsitatean. Hainbat polizia



eleberriren egilea, nobela beltza euskaraz garatu zuen. Munduan lau begaletan ibilki, atzerriko berri eman zuen zenbait lanetan. Berrogeitaka urtean Euskal Herrian baserri baserri ibili eta askotariko atsotitz eta esapideak bildu zituen. Estima handiko idazle eta, oroz gain, pertsona guztiz maitatua”.

Beste bertsio bat ematearren, askotan irakurria, Gotzonen liburuetakoa barne-azaletan ohi datorrena:

“Gotzon Garate Goiartzun (Elgoibar, 1934 – Bilbo, 2008). Josulaguna. Filosofian doktore Madrilén, Teologian lizentziatua Innsbrucken, Filologia Erromanikoan ere lizentziatua Deustun; Euskal Filologia ikasketak abiarazi zituen Deustuko Unibertsitatean. Hainbat hizkuntza ikasi zituen, baina euskari eman zizkion bere onenak: saiakerak idatzi zituen (marxismoaren ingurukoak hasiera batean, eta euskal hizkuntza eta literaturari buruzkoak gero); lexikografian abaztu ezinez-



Hamaika anaia-arrebetan gazteena izan zen Gotzon.

koa da Atsotitzak bilduma handia; eta horiez gain dozenatik gora kronika, ipuin bilduma eta eleberri, polizi nobelak batik bat, hala nola: Esku leuna, Goizuetako ezkongaiak, Elizondoko eskutitzak, Izurri berria, Alaba”.

Beste aurkezpen modu bat, berriz, hotzetik baino askoz gehiago duena bihotzeko berotik, San Bartolome kaleko 13. zenbakiko paretan jarrita dago hil honen zortziaz gero:

“Hemen jaio zen Angel Mari (Gotzon) Garate jesuita, idazle eta euskaltzalea (1934-2008). Elgoibarko herriak esker ona adierazten dio utzitako ondarearengatik”.

Era batera zein bestera esan, bera da protagonista, gure artean egon gabe ere gurekin dagoena, Elgoibarretik gazterik alde egin zuen arren beti bertan iraun duena, hango eta hemengo bihotzetan bizi izan zelako, bizi delako oraindik. Gotzon Garate.



Garate Goiartzun familia.

2. Elgoibar

Gotzon Garate, baina Anjel Maria, 1934ko irailaren lehenengoan jaio zen Elgoibarren, San Bartolome kaleko 13. zenbakian. Hamaika anai-arrebatan gazteena izan zen, sei mutil eta bost neskako familia handian. Haren etxeko senitartea ordukoa zen: gurasoak, hamaika anai-arrebak, izeko bat, amama eta neskamea bizi izan ziren batera.

Elgoibarren bertan jaioa zuen aita –Jenaro Garate–, nahiz eta aitaita zapataria Mutrikutik etorria izan. Amak, Josefa Goiartzunek, Mendaron sortua izanagatik ere, Bilbon zituen familia sustraiak; honen arbaso goiartzundarrak karlisten eta liberalen arteko gerraren eraginez joanak ziren Mendarora.

Gotzon Garatek beti goretsi zuen etxeko familia giroa.

“Bizitza bonetan eduki dudan gauzarik ederrena horixe da, familia. Denok maite genuen elkar, pozik bizi ginen eta gurasoek ere maitasuna baizik ez zioten elkarri. Oso fededunak ziren biak. Gurasoen gelan, Jesusen Bihotzaren irudi bat zegoen, eta gure aita haren aurrean belaunikatzen zen gaue-ro. Fede handikoa zen. Elgoibarko batzuek Aitxaren deitzen zioten”.

Gaitzizenak ere badu historia... Gogoan hartu Errepublika garaiko giroan komentu bat baino gehiago erre zituztela, eskoletan kristau gurutzeak ere kenarazi zituztela –“gurutzeak barruan eramatekoak dira”, esan ohi zuten errepublikarrek–... beldurrez bizi zen kristaua, aitaren egitea bera ere gauza larria izan zitekeen. Gotzonen aita jostuna izaki –sastrea–, Elgoibartik Ondarroara, Eibarra eta bestetara ibili ohi zen motorrean, bezeroei trajeak probatzera joanda. Motorra piztu eta abiatzerakoan aitaren egiteko ohitura zuen. Bere burua sinatzeko ohitura hori ermita eta leku seinalatuen aurretik pasatzean ere erakutsiko zuen. Hortik, *Aitxaren* gaitzizen egokia. Errezu zale handia zen, eta harrigarri ere ez da lau seme jesuita joan izana.

1934an jaioa, esan dugunez, lau urteko mutikoa zen gerra amaitu zenean. Euskaraz hitz egiten zuten etxean, baina osterantzean, eskolan eta kalean ez zuen euskal girorik bizi izan. Behin baino gehiagotan adierazi izan zuenez, Francoren garairik gogorenek harrapatu zuten...

"Kontrola ikaragarria zen. Gure arreba Anitaren eskutitzak, esaterako, guardia zibilek irakurtzen zituzten berari eman baino lehen. Giro horretan bizi ginen, eta erdaraz hitz egiten genuen lagunekin, eskolan batez ere".



Euskararen kontzientzia hamabi urterekin hartu zuen. Garai hartan, Durangora joan zen ikastera, euskara hutsaren hurrengotzat zeukala. Durangoko jesuiten San Jose ikastetxean, ordea, bi lagun egin zituen, oso euskaltzaleak: Jabier Bastida eta Iñaki Bereziartua azpeitiarrak. Horiei eta beste zenbaiti esker, euskalduntasuna erne zitzaion. Haiek ohartarazi zioten euskaldunak nor garen, euskara gure hizkuntza dela. Geroztik beti euskaraz egiten saiatu zen. Elgoibarrera itzuli zenean, lagunarteko hizkuntza aldatu zuten: lehenago gaztelaniaz egiten bazuten, gerora euskaraz egiten hasi ziren; zenbait lagunekin, behintzat. Aldatu beharra zegoen.

"Oroitzen naiz zelan mintzatu nintzen neure lagun maite batekin, Jesus Mari Ansolarekin. Geure artean berbetan euskaraz egin behar genuela esan nion. Obiturari buelta ematea zail da, baina handik aurrera beti horrela egin genuen, euskaraz".

Euskararekiko gogoaz ez ezik, liburuekikoa ere erne zitzaion Gotzoni gaztaroan. Horretan, Gotzonen anaia dugun Romanen

lagunek parte handia izan zuten. Besteak beste, Pedro Jose Arriola, Jose Mari Gonzalez eta Manolito Ruizek... Haien bidez sartu ziren Garatetarrek liburu giroan. Roman eta Gotzon ez ezik, baita Jenaro eta Inazio anaiak ere...

“Gure aitak beti esaten zuen, liburu gehiegi ikusten zuela etxean, gauza onerako”.

Bestalde, Roman kontu zale handia izan, nonbait, eta ipuinak kontatzen ei zizkien auzoko haurrei. Garai hartan, artean telebistarik ere ez etxeetan, eta anaia zaharragoaren kontuak zituzten denbora pasa. Romanen kontuak eta komikiak aipatu izan zituen Gotzonek, txikitandiko liburu zaletasuna azaldu nahirik.

“Gure jostundegi-denda, bebeko solairuan, San Bartolome kalean zegoen eta logelak lehenengo pisuan. Askotan amari esaten nion ez nengoela oso ondo eta ohera nindoala. Gainerako neba-arrebak jostundegian lanean ari ziren bitartean, ni ohera, ibesi, komikiak irakurtzera. Komikiekin hasi eta gero eleberriei ekin nien, jo eta ke”.

3. Jesuita

Jenaro izan zuten jesuita joaten lehenena. Hark, oso pozik zegoela esaten zien eta harixe jarraiki zitzaizkion Roman, Jose Luis eta, azkenean, anaietan gazteena, Gotzon bera. Anaiak bide hura hartu zutelako jo zuen hasieran ildo berean Gotzonek. Ez zitzaion erabaki hori hartu izana damutu. Jesuita izateak diziplina eta ikasketa onak, biak izateko aukera eman zion. Gotzon idazle eta irakasleak denbora ondo baliatu zuen gustuko lanerako.

“Goizeko seietan jaiki eta gaueko hamarrak arte asti asko dago. Palan edo tenisean egiten nuen lehen egunero, baina kirolean ematen nuen denbora kenduta, beste denbora guztia neuretzat. Ni apaiz izan ez banintz ez nintzen ia 40 urtez 23 baserritan euskara aztertzen jardungo, eta ez nituen 30 liburu idatziko...”

Hemeretzi urte bete zituen egunean sartu zen jesuita Loiolan, 1953an. Bi urteko nobiziatua lehenengo, eta beste bi urteko junioratua egin zuen gero, ikasketa klasikoak lantzekoa. Horrekin batera, hizkuntzak ikasteko aukera baliatu zuen. Ordurako, frantsesa eta ingelesa lardaskatzen zituen eta alemana ikasten hasia zegoen. Junioratuan horiek hobetu eta alemanari eta errusierari ekin zien. Geroztik hizkuntzak ikasteari eta praktikatzeari ez zion utzi sekula. Ederrak zitzaizkion hizkuntza guztiak, baina “zein da nire hizkuntza?” galdera sortu zitzaion orduan. Erantzuten ere asmatu zuen.

“Nire hizkuntza? Euskara! Horrelaxe basi nintzen euskarari lebertasuna ematen”.

Denbora joanean, sentipen horren erroak are sakonago sustraituko ziren Gotzonen baitan. Europako eta Estatu Batuetako unibertsitateetan ibilita, behin ere baino gehiago maitatzenago zuen euskara. Gure hizkuntza erabili beharra aldarrikatzen zuen:



“Hizkuntzalari guztiek esaten didate gauza bera, hizkuntza beharrezkoa ez bada, galdu egiten dela. Eta euskara Euskal Herrian berton ez da beharrezkoa. Gaztelania eta frantsesa dira beharrezkoak”.

Hizkuntzak ikastea izan zuen umetatik zaletasun handienetako bat eta zortzi ikasi zituen hitz egiteko moduan: euskara, gaztelania, latina, frantsesa, ingelesa, italiera, alemanera eta hindia. Ez zen grekoz mintzatzeko gauza.

“Ez, ez dakit grekoz mintzatzeko, irakurtzen besterik ez”.

Hizkuntzak jakiteak mesede handia egin zion, hala munduan ibiltzeko nola liburuak irakurtzeko. Europa guztian ibili zen, Moskutik hasi eta Italiaraino. Baita Afrikan eta Asian ere... Eta, Amerikako Estatu Batuetan: ia berrogei urtez New Yorken eman izan zuen uda.

Filosofia ikasi zuen hiru urtez, Loiolan. Harreman estua izan zuen dotrina bidez Loiolako umeekin, eta haien bitartez, familiariekin. Gotzon Garateren bizitzan garai zoragarria.

“Osteguna genuen egun librea. Goizean dotrina ematera Kukuerrira, Azkoitiko auzora joaten ginen. Arratsaldean, Urrestillara. Gustura ibiltzen ginen Urrestillako frontoian umeekin, pilotan eta. Orduan ezagutu nuen Jautarkol, olerkari famatua. Adiskidetu ere bai. Urrestillako erretore zen. Gizon leuna eta atsegina, eta abertzale zintzoa. Eta jakina, bai Kukuerrin eta bai Urrestillan, euskaraz. Zoragarria”.

Loiolako hiru urteak bete eta jesuitari dagozkion froga urteak egitea zegokion. Zaragozan egin zituen, El Salvador ikas-tetxean, grekoa eta filosofia erakusten.

“Tximuak ere sar zitezkeen ban ikastera, dirua izanez gero, behintzat”.

Igandean, berri, euskara erakusten zien ikastetxeko barne-tegian ziren euskaldunei.

4. Ikasketak atzerrian


Innsbrucken (Austria) ikasi zuen Teologia. Karl Rahner bera izan zuen irakasleen artean. Alemanez jarduten zuen egun osoan baina eskoletan irakasleek alemanez esaten zutena euskaraz idazten zuen. "Orduan ere nire bidea euskaraz zela ikusten nuen". Lau urtez egon zen Innsbrucken. Hirugarren urtean ari zela, Euskal Herrira etorri eta apaiztu egin zen Loiolan, Jose Luis anaiarekin batera. Hogeita hamaika urte zituen Gotzonek, hogeita hamahiru, berri, anaiak. Apaiztu eta atzera Innsbruckera jo zuen.

Filosofia ikasten ari zela idatzi zituen lehenengo lanak euskaraz, ikasle gazteek multikopistaz ateratzen zuten aldizkarian. Joseba Agirre azpeitiarra zen aldizkariaren bultzatzailea. Hantxe hasi zen artikulua idazten, Agirrek berak bultzatuta.

Aldiz, lehen artikulua, inprimaturik, Jokin Zaitegiren *Euzko-Gogoa* aldizkarian agertu zen, Guatemalan, 1959an, Gotzon hogeita lau urteko zela. Anton Hilckman aleman hizkuntzalariren artikulua zen, euskararen goresmenez idatzia, Gotzon Garatek euskaratu eta Jokin Zaitegiri Guatemalara bidali ziona.

"Europako erri zaarrena. Euskaldunen izkuntza, lantze ta oituretaz Anton Hilckman'ek idatzi ta Garatetar Gotzon Mirena'k S.J. deustarretik euskeratuta

"Pirineo'ak Prantzi ta Espāñi alde-razten dituzte, baña Euskal-erria ez. Euskal erria bat da. Euskaldunak Europa'ko erru zaarrena eratzen dute. Beaiiek bakarrik Europa'n ario-aurreko (vorarische) izkuntz batean mintzatzen diranak. Izkuntz onek, era askotan zabaldua, ez du antzik gure kontinenteko beste izkuntzekin. Jakintsueri izkutuki bat zaie. Ez ori bakarrik; zalantzik gabe, ez du zer ikusirikan ludi guztiko beste izkuntzekin; baita japonasarekin



ere. Baña tokizen (toponímico) asko izkuntz bietan berdin xamarrak izan arren itz-etorrera ezberdiña da...(...)

Europa'ko erri zaarrak maite dituana, euskera galtzen ari dala ikusiaz, naigabez betetzen da. Orregatik, A. Marr'ek, Rusia'ko izkuntz-jakitsuak esaten zuan, urrezko dorre bat egin bear zala Europa aintziñako bitxi estimagarri ori etorkizunerako gordetzeko. Batez ere Araba ta Naparroan, ia ibar izkutuenetan ere euskera galdua da. Naiz ta Erronkal'eko erriak mendi tartean izan, Ustarroz'ek bakarrik eutsi dio zintzoki euskerari. Gizaldi ta gizaldietan euskaldun jakitsuak, españiar ta prantsesen oitura zalegikeriak garaitu dituzte. Orain gazte gendeak zinesteraztuta daude bere baliotasunaz..."

Horrela hasi zen artikulua idazten, ia berrogeita hamar urtean sekula utziko ez zuen lantegia. *Jesus'en Biotzaren Deia*, *Egan* eta *Euzko-Gogoa* aldizkarietan ageri dira Gotzonen lehen aldiko idazlanak. Alditan, Gomiga ezizenez sinaturik, hau da, Gotzon Mirena Garateren anagrama. Harrezkero, hamaika egunkari, aldizkari eta agerkaritan publikatu zituen artikulua.

5. Marxismoaz



Hangoak burutu eta hilabete zenbait Kordoban igaro zituen, karrera ondoko bigarren nobiziatu gisakoan. Ondoren, hogeita hamabi urte zituela, bi urte egin zituen Friburgen (Suitza), marxismoan espezializatzen.

Gotzonek berak esan izan zuenez, marxismoak eta komunismoak gizartea hobetzen lagunduko zutelakoan hasi zen gaiok aztertzen. Errusiera eta alemana ikasia zenez, jesuita nagusiek komunismoan espezializatzeko agindu zioten, ondoren Deustuko Unibertsita-

tean irakasteko. Bai eta irakatsi ere. Soziologian, Komertzia-lean, Historian eta Filologian eman zituen eskolak.

"Nik uste, Karl Marxek bizitza guztirako eman zidala justiziaren zentzua. Gaur egunean, esaterako, asko hitz egiten da bakeaz. Baina entzuten al da justizia eta maitasunari buruzko hitzik? Ezta bat ere! Joera dugu bakea euria bezala, goitik behera etorriko zaigula pentsatzekoa. Hori ez da horrela. Mundua bankaz gora dago".

Doktore tesia ere egin zuen, marxismoaren gainekoa: *Karl Marx y los nacionalismos separatistas* (Karl Marx eta nazionalismo separatistak). Orduan ere, Euskal Herriari begira egin zuen tesia, garai hartan marxismoa eta abertzaletasuna zirelako –Gotzonen ustez–, "gure herrian indarririk handienak". Tesia izan zen bizian gatzelaniaz ondu zuen liburu bakarra, "Madrilgo Complutense unibertsitatean defenditu behar nuelako. Ez zegoen beste erremediarik". Liburu hartan, Marxen pentsamendua aztertu zuen, Hegel, Engels eta gainerakoen argitan. Euskaldunak zertan ote ginen, Engelsen hitz hauexek aldatu zituen bere lanera Gotzonek.

"No hay nación alguna en Europa que no cobije en alguno de sus rincones ruínas de uno o más pueblos, restos de una población antigua, reprimida y subyugada por la nación que más tarde ha sido portadora del desarrollo histórico.

Estos restos de nación pisoteados despiadadamente por la marcha de la historia, como lo dice Hegel, estas basuras de pueblos son siempre y lo seguirán siendo, hasta su completa asimilación o desnacionalización, los portadores fanáticos de la contrarrevolución, lo mismo que toda su existencia en una protesta contra la gran revolución histórica.

Así son los galos en Escocia, defensores de los Estuardo de 1640 a 1745.

En Francia los bretones, defensores de los Borbones de 1792 a 1800.

Los vascos en España, seguidores de Don Carlos”.

Gotzonek gaztelaniaz idatzi zuen liburu bakarra. Gero, ordea, liburuaren erdikada bat euskaratu egin zuen Dionisio Amundarainek eta Mensajero argitaletxeak kaleratu 1972an *Marx eta nazioa* izenaz. Marxismoari buruz argitaratuko zuen lan sortaren lehena izan zen.

“Euskal Herritik kanpora bederatzi urte egin eta Friburgotik etorri nintzenean esan nuen: euskarari nola lagundu behar diot nik? Garai hartan marxismoa irakasten nuen eta hortixe hasi nintzen. Marxismoari buruzkoak dira nire lehen liburuak”.

Esan ere zioten garai hartan, gaztelaniaz idatz zezala, aipu eta omen handiagoak jasoko zituela. Gotzonek, ezetz.

“Ni euskalduna naiz eta ez dut neure euskalduntasuna diruagatik edo izenarengatik salduko. Inola ere ez”.

Horrela osatu zuen 1971n hasi eta 83ra bitartean argitaratu zuen marxismoari buruzko liburu zerrenda:

Marxen marxismoa

Marx eta nazioa

Marxen ondoko errebisionismoa

Maoren marxismoa: maoismoa

Leninen marxismoa: leninismoa

Lenin eta nazioen autodeterminazio eskubidea...

“Euskarari nion maitasunak eraginda idatzi nituen horiek guztiak. Iruditzen zitzaidan horixe nuela gure bizkuntzaren alde egiteko aukerarik behinena”.

6. Polizia eleberriak

Esanak esan, alabaina, polizia eleberriak ditu, aski segur, lanik ezagunenak, irakurrienak. Deustuko unibertsitatean marxismoari buruzko eskolak ematen zituen garaian nobela bi eta

ipuin mordoxxa idatzi zituen. Eskolak ematea zuen lehenengo eginbearra eta hastapenetan denbora handia ematen zuen eskolak gertatzen; sarritan, goizeko ordu txikiak arte. Urteak igarota, eskolak osatu xamar izan zituenean, literaturari ekiteko denbora izan zuen. Horrelaxe idatzi zituen, zaletasun hutsez, hainbat ipuin eta eleberri. Gaztetan polizia eleberria asko irakuria zen Gotzon Garate. On zitzaizkion hizkuntzak ikasteko, praktikatzeko.

"Gero, ikusi nuen polizia eleberria dela mundu osoan, alde bandiz, gehien irakuria den eleberri mota. Moskun, Indian, New Yorken... garbi ikusi dut hori".

Gazteek, zaharrek, unibertsitateko irakasleek eta langile arruntek ere irakurtzen zituztela zioen Gotzon Garatek eta, horrela, eleberri mota hori ongi ezagutzen zuenez, eta jendeak gustura irakurriko zituela iritzirik, idazteari ekin zion.

"Hurrengo bi egunetan Jon Bidartek esku tartean zeukan arazoa burutu zuen. «Maria Cristina» hotelean lapurreta badi bat egina zen. Lau egun lehenagoko goizean diru-kutxa irekita aurkitu zuten eta diru eta bitxi guztiak falta.

Jon Bidart deitu zuten esku-zikina harrapatzeko. Aurreko gauean diru-gela inguruan sukaldari bat ikusi zutelako, kulpa guztiak sukaldariaren gain botatzen zituzten. Baina Bidartek egiazko ebaslea bilatu zuen: Paraguay'ko kontsul jauna".

Idatzi eta tiraderan gorderik eduki zituen idazlanak aldi batean harik eta 1977an haietarik hiru, literatur lehiaketara bidali zituen arte: lehen saria irabazi zuten hiru lanek, hau da, *Oroitzapenetan* –Donostia Hiria, ipuina–, *Esku leuna* –Irun Hiria, eleberria–, eta *Elizondoko eskutitzak* –Txomin Agirre saria, eleberria–, idazlanek. Geroago, 1979an, Azkue saria jasoko zuen *Lehortean* ipuin bildumarekin, eta 1981ean Azkue saria bera *Izurri berria* nobelarengatik...

“Idazle askori sariak bibotza altxatu digute idazten jarraitzeko. Sari horiek irabazteak benetan bultzada eman zidaten aurrera begira”.

Upel berekoak dira *Goizuetako ezkongabeak* eta *Muskilak* lanak, adibidez, eta bestelakoak, aldiz, geroan idatziko zituen kronika eta bidaia liburuak. Beste iturri batekoak dira, halaber, ondu zituen saiakera lanak: *Atzerriko eta Euskal Herriko polizia eleberria*, *Euskal eleberrien kondaira* (hiru liburuki), edota *Lauaxeta menderik mende* ikerketa lanak.

7. India, New York

“Hiri pizgarri, ernagarririk ezagutu nahi baduzu, zoaz New Yorkera. New Yorken gure egunetako computer munduaren alderdirik kilikagarrienak bildu direla esan liteke. Modernotasunaren distira ikusteko ez da New York bezalako hiririk.


“Lurralde miresgarriak, amesgarriak ikusi nahi baduzu, ordea, zoaz Indiara. Oraindik ere Indiak lehenago aldietako aztiak eta mirariak gordetzen ditu. Norbaitek esan zuen bezala: ‘India, a combination of heaven and hell’: Indian zeruaren ederra eta infernuaren latza elkaturik aurkituko dituzu”.

Gotzon Garate bi txandatan egon zen Indian, hindi praktikatzeraz joana, hau da, lehenago Deustuko unibertsitatean gogotik ikasi zuen hizkuntza. Indian egonaldi bikainak igaro zituela esan ohi zuen, hizkuntza ikasiz gainera gauza berri asko ikasi zituela.

“Kalera irten eta beti ikusiko zenuen barrituko zintuen zer-bait. Jendea, berriz, oso bihoztia eta karana”.

Liburu bat ere idatzi zuen han ikusitakoen berri emanez, Gotzonen beraren hausnarketa zenbaitekin batera tartekaturik: *India barrigarria*.

New Yorken, berriz, uda eman izan zuen urte askoan. Manhattanen, urte gehienetan, baina baita Bronx latz gogorean ere.



“Garai hartan dena desegina zegoen auzoan. Bomba atomikoa eroria zela ematen zuen”.

Bi liburu idatzi zituen han ikusita-koak kontatuz: *New York, New York* eta *New Yorkeko kronika beltza*.

Literatura aldetik polizia eleberriak baino baliotsuagoak irizten zien lanoi. Bazuen damua.

“Ez dira haiek bezain ezagunak, baina”.

Idatzi, gustatzen zitzaiolako idazten zuen eta, bide batez, euskarari laguntzearren. Idaztean sortzaile, kreatzaile ikusten zuen bere burua.

“Libre, istorioak asmatzeko, pertsonaiak moldatzeko, egiturak aldatzeko. Sentimendu oso berezia eta sakona da”.

8. Baserria unibertsitate

Zaragozan, Innsbrucken, Kordoban eta Friburgon igaro zituen bederatzi urteen ondoren atzenduxea zuen euskara, moteldua, herdoildua... 1967an, berriz ere euskararen jabe egiteko bide bila abiatu zen, eta onena baserrietara jotzea zela erabaki. Lehenengoak Azpeitiko Enparangain eta Odriozolatxo baserriak izan ziren. Artean ez zekien, ezin jakin, zer nolako altxorra jasoko zuen baserrietan, Azpeitian, Aramaion, Idiazabal, Aiherran, Goizuetan, Arizkunen... Lexikoa, atsotitzak, esapideak eta gainerakoak biltzeko, koadernotxoa ibiltzen zuen beti eta leku guztietan.

“Oroimenik onena papera da”.

Baserritarrei galdetu, koadernoan idatzi, unibertsitatera itzuli, garbira aldatu eta sailkatu, horixe lana. Hasieran, idazmakinan. Gero, ordenagailuan.



Urtero, maiatzaren lehenengo egunean, Gotzonek ibiltzen zituen baserri guztietako jendearen bilera egiten zuten.

Patziku Perurenak bertatik bertara ezagutu zuen Gotzon Garate, gure jesuita Goizuetako Errero baserrira joan zenean. 2008ko udan “Gotzon Garateri Goizueta aldetik” izeneko artikulua eman zuen argitara Perurenak Diario Vasco egunkarian.

*“Goizuetan ezagutu zintudan, ban 1971-72 aldean. Au-
zoan abudo ikasi genuen, Errerora etorri omen zela fraile
alai umezale bat. Hagitz ongi oroitzen naiz oraindik, igande
arratsalde batez, Erreroko sukaldean nola kantatu zenizki-
gun baur kanta xoragarri batzuk, zeure kitarra eskuan ze-
nuela.*

*“Beste igande ilunabar batean, berriz, Tobeneko Bordara
joanak ginen ezti bila, eta zu Errerotik etorri zinen, familia
guzia atzetik zenuela, aitona Mañuel xaharra ezongi samar
zegoela eta, meza ematera. Jende mordoxka batek egin genuen
mezalegea, eta orduantxekoa dut nik elizaz kanpo entzunda-
ko meza baserritar bakarra.*

*“Handik hoge urtera ikasi nuen, berriz atzera, gu mutiko
ginela Errerora etortzen zen Aita Anjel Mari buraxe eta berbe-
ra omen zela Gotzon Garate sonatua. Ezin nuen sinestu...”.*

9. Erdarakadak, atsotitzak eta beste

Baserrietara hasi zen orduko, garai bateko lan asko galduak ziren gure etxeetan. Ez lihoa, ez garia, ez artoa... Gotzonek, haatik, egiteko haiei lotutako lexikoa, esamoldeak eta atsotitzak bildu ahal izan zituen. Zorte horixe izan zuela zioen Gotzonek, alegia, denak biltzekoa, eta argitaratzekoa, zenbait lanetan: batetik, *Erdarakadak: euskaraz ongi mintzatzeko biztegia, zazpi probintzietako adibideak*; bestetik, 27.173. *Atsotitzak, refranes, proverbs, proverbias* –bigarren edizioan hiru mila atsotitz gehiago erantsi zituen, 30.466 esaera bildurik–, eta, hirugarrenik, *Euskarazko tradizioa eta molde berriak*...

Atsotitz bilduma erraldoiaren lehenengo edizioari dagokionez, 14.458 dira euskaraz, 5.208 gaztelaniaz, 4.045 ingelesez, eta 3.462 latinez:

"Irri, anitzek; negar, guztiek.

Biharko esperantzan, gaurkorik ez utzi.

Hartzen duena, zordun

Hartzeko txarra baino, zor ona hobe.

Pixka eta pixka, puska.

Pobrearen edana, mozkorra; aberatsarena, xelebrea.

Ipurdia lastoz duenak, suari beldur.

Esamesak, gezur hotsak.

Esanak, esankizun baleude...

"Atsotitzak nire biztegian gelditu dira betiko, eta esapideak ere borrelaxe geratuko dira, urte batzuk barru aterako dudan liburuan. Lan luzea izango da, hala ere".

Honela eman zuen Jabier Kaltzakorta irakasleak Gotzon Garate euskalariaren lanaren berria Mendebalde Kultura Alkarteak 2004an Garateren omenez eratutako ekitaldian.

"Vladimir Propp-ek dio bere liburueta hitzaurre batean, Afanasiev ipuin-biltzaileak Errusiako oihanpeetan eta basetxeetan bildutako ipuin-ale ederrak berak [Propp-ek] bulego ba-

teko lau horma estutan aztertzen ari izan zela. Biltzea eta aztertzea, ordea, lan biak, Gotzonek berak egiten ditu. Euskal Herri osoko zazpi lurraldeetan bildutako esapideak Deustuko bulego bateko lau hormaren artean aztertzen dibardu Gotzonek. Ez dago neure ustez lan politagorik. Ez dago neure ustez baserri bateko sukaldeko supazterrean ipuin eta kontakizunak entzutea baino gauza ederragorik. Bebeko sutako sugarrak laratz beltza sorgin-dantzan miazkatzen ari direla, aitona maiagarri baten istorio-mixterioak eta ipuinak entzutea baino gauza ederragorik ba ote dago?...”

Baserrietan ia berrogei urtean milaka erregistro zituen bilduak. Ehun mila esapideren kalkulua egina zuen. Sailkatzen hasita zegoen. Gaztelaniazko ordezkioak bilatzen. Azkenean, erdarak-euskara zatia osatzeko asmotan... Atsotitz liburua bai, argitaratu zuen. Esapideen gainekoari dagokionez, berriz, zazpi euskal herrietan bildutako modismoei buruzko lana ez zuen bukatzerik izan... Heriok hartu zuen lehenago.

Zazpi herrialdeetan ibili zen, baserritarrak irakasle harturik.

“Nik beti esaten diet euskaraz nik baino hobeto dakitela, nire maisu-maistrak direla. Eta poztu egiten dira. Egia galanta da, gainera”.

Euskara aztertzen ematen zuen eguna, etxeko sukaldean beti, bertan izan ohi baitziren etxeko zaharrenak, hau da, aita-ta-amamak.

“Zenbat eta zabarrago, hobeto. Horiek izan dira eta dira nire irakaslerik onenak. Euskaraz eurak dira ongien dakitenak. Logikoa da hori. Lanak ere zabarrak, eta haiek egiten zituzten”.

Eta adin handikoenen ondoan jarri eta bateko eta besteko esaldiak nola esaten zituzten galdetu, halako atsotitz edo halako esapidea erabiltzen ote zuten...

Urtero, maiatzaren lehenengo egunean, Gotzonek ibiltzen zituen baserri guztietako jendearen bilera egiten zuten. Urtero,

toki ezberdin batean. Meza izaten zuten, eta bazkaria. Zazpi herrialdeetako jendea, nor bere euskalkian mintzo.

“Huraxe bai egiazko Euskal Herri euskalduna!”.

Urte askoan egindako lanaren fruitua argitaratu zuen 1998an, atsotitzen gainera lan mardula, eta kontsultarako utzi interneten. Pagotxa irakurle, idazle, ikertzaile eta interesatuarentzat.

Beste alde batetik, baserrian zegoela, beti, egunero, mendi aldera joaten zen, txangoan, zakurrekin.

“Nire lagun maiteekin. Batzuetan, Goizuetan, adibidez, bost zakurrekin”.

Baserrietan zakurrekin izan zituen harremanak liburu batean azaldu zituen gero: *Zakurra zeure laguna*.

Inondik ere, bene-benetako ikastegi, unibertsitate eta, orobat, etxe izan zituen Gotzon Garatek euskal herrietako baserriak. Hainbestexa maite izan zituen gure bazterrak, Euskal Herriko leku eta parajeak. Elgoibar, Azpeitia, Bilbo... gure idazlearen bihotz eta geografian ageri dira, kuttunak izan zituen Gotzonek:

“Munduko lau begaletan bizi izan naiz baina niretzat ez dago Elgoibar bezalako herririk. Hor jaio nintzen eta hemeretzi urte arte hortxe bizi izan nintzen. Beste bi herri ere badira markatu nautenak, baina ez Elgoibarrek moduan. Azpeitiak eta Bilbok. Azpeitian sei urte eman nituen eta nire euskararentzako erabakigarriak izan ziren. Gero ere Azpeitiko baserrietan bizi izan naiz, batez ere Odriozolatxon. Baserri hori izan da nire euskararen unibertsitatea. Eta Bilbon bizi naiz aspalditik. Oso maite dut Bilbo eta Bilboko jendea. Eibartarrak bezalakoxeak dira, adiskidetsuak eta bihotz zabalak...”

10. Euskal filologia deustun

Gotzon Garatek Filologia ikasketak ere burutu zituen. Friburgotik Deustura joanik, bertako unibertsitatean baziren Filo-

logia Erromanikoa, Ingelesa, Frantsesa, Aleman Filologia... Euskal Filologiarik ez, ordea. Gotzonek, orduan, Filologia Erromanikoa ikasi zuen, ondoren Euskal Filologia sortu ahal izateko. Unibertsitateko errektoreari eta beste zenbait laguni



ere esan izan zien, bidegabekeria iruditzen zitzaiola Deustuko unibertsitatean Euskal Filologia ikasketarik ez eskaintzea.

“Denbora aurrera eta ezer gertatzen ez zenez gero, 1977ko maiatzean edo, artikulua bat idatzi eta Euskal Herriko egunkari guztietara bidali nuen: ‘Datorren ikasturtean euskal filologia ikasketak egin ahaliko dira Deustuko Unibertsitatean’. Hura izan zen zalaparta! Errektoreak deitu zidan eta, oso haserre, txantajista hutsa nintzela esaten hasi zitzaidan. Eta balaxe hasi ginen, eta gaur arte”.

Deustuko Unibertsitateko irakasle, jesuita eta apaiz zen aldetik, behin ere ez zuen ezkutatu iritzirik:

“Euskal Herrian apaiza euskararen alde agertu behar da, bizkuntza hori baztertua eta desegina dagoelako. Eta lau begaletara aldarrikatu behar da Euskal Herriak eskubidea duela bere etorkizuna erabakitzeke, hots, autodeterminazioaren eskubidea aldarrikatu behar du”.

Eta nola agertu ote dira josulagunak euskarari dagokionean? Usu agertu zituen bere uste eta aburuak, beti kritikoak:

“Jesuiton artean, denetarik gaudela uste dut. Ene iritziz, euskal kulturaren atzeratutakoak gelditu gara jesuitok. Sekulako indarra eduki izan dugu hemen: ikastetxeak, argitaldariak, irra-

tiak... horixe dut nik bizitzako penarik handienetako bat, guztira gutxi egin dugula euskararen alde. Esan nabi dut, ez dugula geure indarraren arabera euskal kulturaren alde lan egin”.

11. Irakasle eta lagunak

Mikel Zarate, Santi Onaindia, Alfontso Irigoien, Adolfo Arejita... izan ziren –“da” oraindik, Arejitaren kasuan–, Deustuko Euskal Filologian irakasle lehenengo aldian. Geroago, irakasle premia hazi ahala, Gotzonek berak irakasle hartutakoak dira, berriez, Juan Manuel Etxebarria, Rosa Miren Pagola, Jabier Kaltzakorta, Joseba Abaitua, Estibalitz Amorrortu eta Josu Bijuesca...

Urteetara, honela agertuko zuen Jabier Kaltzakorta irakasle eta ikertzaileak Gotzon Garateren eskola modua.

“Literaturako edertasunak irakurleei bizipoza ematen dien bezalaxe, Gotzon Garate irakasleak ere bere eskoletan ikasleei bizipoza txertatzen zien. Bost hitzetan laburbilduko banu, eta hemen bost ez dira asko, bizi-poza, errespetua, maitasuna, jakituria eta eder-sena hitzak erabiliko nituzke. Blaise Pascalek esprit de finesse eta esprit de géométrie direlakoak desberdintzen zituen bere gogoetetan. Gotzon guretzat lehena da batez ere: esprit de finesse. Bizitza guztia aurretik duten ikasle gazteei jarrera baikor, zabal eta ireki batean jardutea, ikasleak izan dezakeen oparirik handiena dela deritzat. Horrexegatik ere preziatzen, estimatzen eta maitatzen dugu Gotzon Garate”.

12. Omenaldi eta goresmen

Zenbait omenaldi ere jaso zituen Gotzon Garatek bizian. Esaterako, Iñaki Zabaletak eta euskal unibertsitatearen aldeko hainbat lagunek erretretan sartuta zeuden irakasleen omenez antolatua, Durangon. Gotzonek ez ezik, Patxi Altunak eta Txillardegik ere jaso zuten omenaldia.

Euskadiko Liburu Ganbararen ekimenez, berriz, Urrezko Luma jaso zuen anaia Romanekin batera, euskararen alde egindako lanarengatik.

2004an, bestalde, Deustuko Euskal Irakaslegoaren errekonozimendua jaso zuen, entitatea sortu zeneko

25. urteburua ospatzerakoan. Urte berean, Mendebalde Kultura Alkarteak ere goretsi eta ohoratu zuen Gotzon Garate, eta hark egindako lan eskerga.

“Guztiokin zorretan gelditu naiz”.

2005ean, Elgoibarko “Seme kutuna” izendatzea hartu zuten asmozat zenbait herritarrek. Gotzonek, onetsi.

“Poz handia eman zidan. Ez naiz tituluen gose baina elgoibartarren aldetik datoren guztia niretzat txit estimagarria da”.



Jabier Kaltzakorta. “Euskal Herri osoko zazpi lurraldetan bildutako esapideak Deustuko bulego bateko lau hormaren artean aztertzen dibardu Gotzonek”



Patziku Perurena: “Hagitz ongi oroitzen naiz...”

2005ean bertan, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren Argizaiola saria jaso zuen.

2006an, Deustuko Unibertsitatearen euskal filologoez omendu zuten, Euskal Filologia ikasketak abiatu zitueneko 30. urteurrena ospatuz.

*“Nik zerua nola izango den
pentsatzen dudanean...” 2008ko
urriaren 8an hil zen, Deustun.
Loiolan datza.*



2008ko Durangoko Azokan ere bereziki ohoratu zuten bere lagunak eta Gerediaga Elkarteak.

2009ko maiatzean, *New York, New York* lanaren edizio eguneratua argitaratu zuen Elkar argitaletxeak, idazleari omenaldia eginez.

2009an, Gotzonen heriotzaren lehenengo urteurrenarekin batera, omenaldi haxe dugu Elgoibarren...

Aipu eta omen guztietan, konstantea zen euskaldunak Gotzon Garateri zion nahitasun handia. Ezin hobeto adierazten asmatu zuen sentimendu hori Jabier Kaltzakorta irakasleak 2006an Deustuko omenaldi hartan:

“Gotzon Garateren eskoletan balako indar berezi bat bar-tzen genuen. Bihotz-minduei bizi-poza ematen zien. Entusias-

moz eta barne-indar handiz hitz egiten zigun. Hitz batean: bizi-pozaren jabe zen eta gu guztiok ere bizi-poztu egiten gintuen; euskaldunok euskaraz hitz egin behar dugula, gauden lekuan gaudela, gizalegez jokatu behar dugula. Berak erabiltzen dituen adjektibo batzuk erabiltzera, esango nuke Gotzon bera hortz-argia eta batik bat bihoztia, jakituna eta jauntasun handikoa dela... Eta guzti horregatik, idazle eta saiogile aparta den partez ere, ausartuko naiz esaten –euskaldunok hola-koetan atzerako eta uzkur xamarrek bagara ere–, estimatzen dugula, eta estimatu ez ezik, maite ere maite dugula...”

Maitasun handi horren jabe eginik hil zen Deustun, 2008ko urriaren 8an. Gotzon hil ostean, haren bi anaia ditugu oraindik euskarazko idazleen artean: Roman eta Jenaro.

Gotzon Mirena Garate Loiolan (Azpeitia) datza, Jesusen Lagundiko kideen azken egoitzan eta berak amesturiko zeruan.

“Nik zerua nola izango den pentsatzen dudanean, Suitza bezalakoa izango dela pentsatzen dut. Hango edertasuna, hango txukuntasuna, hango ordena zoragarria!”

13. ...

–Ez dok hamahiru

–Badok hamahiru. Hoa San Bartolome kalera. Hoa 13. bebarrura. Hoa eta irakur ezak berriz: *“Hemen jaio zen Angel Mari (Gotzon) Garate jesuita, idazle eta euskaltzalea (1934-2008). Elgoibarko herriak esker ona adierazten dio utzitako ondarearengatik”*.

–Eskerrik asko, Gotzon.

–Eskerrik asko, Gotzon. Gotzon Garate, bidegile.

miel a. elustondo

Etxalekun hasi zen

2008ko maiatzaren 31n Euskaltzaindia Nafarroako herri txiki batera doa batzar berezi bat egitera. Izan ere, egun horretan bertako alaba batek, Sagrario Alemanek, bere sarrera-hitzaldia irakurri behar du. Egun handia da Etxaleku herriarentzat, ohore handia herritarrentzat hango alaba batek euskaltzain oso izendapena bereganatzea.

Euskaltzain berriak “Berdetik horira” izeneko hitzaldia dauka bere eskuetan, eta bere umezaroko hizkuntza eta gaurkoa konparatzen ari delarik, zera diosku:

“Gazteek, oharkabean, naturaltasunez mintzatzeko erraztasun gutiago dute, idazteko eta irakurtzeko ordea, ustez behintzat, handiagoa. Lehen, beti euskaraz ari izan arren elkarrekin, idatzi, erdaraz egiten genuen, erdaraz arras juxtu moldatzen ziren gurasoek ere, seme-alabei, eskutitzak erdaraz idazten zizkieten. Nola ez zuten erdaraz egiten idatzia, ahozko komunikazioa bera ere, telefonoz, telefonoa sartu berritan hala egiten bazuten? Esku artean holako tresna deabru bat zutelarik ezinezkoa zitzairen euskaraz aritzea. Arantzazuko takoa, dotrina, elizako kantuak, *Umeen deia* eta etxe guztietan doan banatzen

zen *Príncipe de Viana* aldizkariak landa, deus gutxi irakurtzen zen euskaraz herri hauetan”¹.

Mende erdi lehenago, 1959ko maiatzaren 17an, Etxalekutik Iruñera doaz Aita Murieta kaputxinoa eta Pedro Díez de Ulzurrun medikua eta “Institución Príncipe de Viana”-ko bokala dena. Imozeko herri politean Euskal Jaialdi bat antolatu da, eta euskaltzale biak etxerantz doaz. Medikuak gidatzen duen bitartean, fraide euskaltzaleak hausnarketa sakon bat darabil buruan: zelan areagotu umeen euskararekiko atxikimendua, nola sendotu euskal hizkuntza umeengan... Autotik bajatu-eta, kaputxinoak labur eta zehatz azaldu zion bere asmoa medikuari: umeek eurek eurretara eginiko aldizkaritxo bat argitaratzea. Ondo ere ondo iritzi zion Díez de Ulzurrunek Aita Murietak esandakoari, eta Príncipe de Viana erakundearen diru laguntzaren bat lortzen saiatuko zela agindu zion, baita lortu ere.

Zazpi urte zituen orduan euskaltzain oso berriak. Handik urte gutxira, hamabi urteko neskaila batek “Erderaren ederra” eta “Bi gizonen beldurra” izeneko ipuinak argitaratu zituen *Umeen-Deia* izeneko aldizkari xume eta bitxian, euskara ederrean argitaratu ere. Errealitate pozgarri bihurtuta zegoen Etxalekutik Iruñerako bidean, maiatzeko egun euritsu hartan Aita Murietak izan zuen ametsa. Umeek umeentzat eginiko aldizkaritxo aurrera zihoan.

Bere hitzaldian euskaltzain berriak beren-beregi aipatu zituen gerra osteko urteetan euskaldunek, orokorrean, eta, zer esanik ez, ume eta gazteek euskarazko irakurgaiak eskuratzeko zeuzkaten arazo larriak. Ume eta gazteentzako publikazioei lotzen bagatzaizkie, tradizioa ezin esan oparoegia zenik, gerra aurreko hamarkadetan ahaleginak egin ziren arren.

Euskara hutsezko lehen tira komikoak (On Kosmerentzat) *Baserritarra* aldizkari donostiarrean agertu ziren 1907an. 1916an *Euzko Deya* aldizkaria Teles eta Niko haur bikotearen

¹ www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/72620.pdf

abenturak plazaratzen hasi zen, eta 1926an *Argia* astekariak *Txistu* argitarapena sortu zuen, hamabi ale besterik ez ziren argitaratu, baina. *Euzko* aldizkariak (1932-34) ere zertxobait egin nahiz, *Gaztetxu* gehigarrian Peru Malluki orri komikoa argitaratzeari ekin zion. Handik lasterrera, Ixaka Lopez Mendizabal kulturgileak euskara hutsezko bigarren komiki aldizkaria plazaratu zuen, *Poxpolin*, orduko TBOaren istorioak euskarara itzulita eta Txiki marrazkilariaren ilustrazioekin hornituta argitaratzen zituena. Gerra osteko lehen urteetan Iparraldeko *Potolo* da umeentzat argitaratzen den bakarra. 1959an Aita Murieta *Umeen-Deia* aldizkaria, bere txikian, hutsune nabarmen bat betetzera dator euskal mundura².

Aurten, beraz, 50 urte betetzen dira aldizkaria sortu zenetik, eta uste dugu une egokia dela aldizkaria eta haren sortzailea Frantzisko Torres Ibáñez *Aita Murieta* gogoratzeko eta omentzeko.

Aita Felipe Murietakoa

Frantzisko Torres Ibáñez Lizarra ondoko Murieta herrian jaio zen 1897ko urriaren 3an. Bere aita, Juan Torres Elizondo, Lizarrako semea, zirujaua zen eta ezagutu zutenek ziotenez, kristau eredugarria eta lagun hurko behartsuekiko eskuzabala genuen oso. Ama, Gedeona Ibáñez Arretxea, Nafarroako Iturgioen herriko alaba zen eta fededun sutsua. Sei seme-alaba izan zituzten.

Frantzizkok –Paco etxekoentzat– bost urte zituela, familia Lizarra herriko Puy kalera aldatu zen. Handik denbora laburre-ra aita hil zitzaien eta amak Iruñera joatea erabaki zuen, han seme-alabak aurrera ateratzea errazagoa izango zela pentsaturik. Frantzisko gaztea Iruñean Eskolapioen ikastetxean matri-

² Handik lasterrera, 1960. urtean, *Zeruko Argia* aldizkaria *Pan-Pin* umeentzako gehigarria argitaratzen hasi zen, 1970ean desagertu zena. Guztira 68 zenbaki argitaratu ziren.

kulatu zen; eta, 1909an, hamabi urte zituela, Altsasuko kaputxinoetara joan zen. Bertan, berehala, nagusien arreta bereganatu zuen, baita haiengandiko laudorioak sarri jaso ere.

1914ko abuztuaren 7an hartu zuen kaputxinoen abitu latza; eta, ohitura zenez, izena aldatu egin zuen, *Felipe de Murieta* izen berria harturik. Hurrengo urteko abuztuaren 8an lehenengo botoak egin zituen Zangotzan eta 1918ko abenduaren 3an –Xabierreko San Frantziskoren egunez, hain zuzen ere– behinbetiko profesa egin zuen. Kaputxino gazteak bost urtez jardun zuen Hondarribian, Lizaran eta Iruñean Filosofia eta Teologia ikasten, eta 1922ko apirilaren 15ean apeztu zen, Nafarroako hiriburuan; handik lasterrera, apirilaren 18an, eman zuen bere lehenengo meza.

Urte batzuk geroago, 1925eko irailaren 15ean, Argentina aldera joan zen Aita Murieta nagusiek hala erabakita. Bertan O'Higgins, Córdoba eta Nueva Pompeya (B. Aires) hirietako komentuetan irakasle eta organo jolea izan zen. Azken honetan *Juventud* aldizkariaren zuzendaria ere izan zen. Edozelan ere, osasun eskasak behartuta, berak hala eskaturik, Nafarroara itzuli zen. Ha-




Aita Murieta (1930).

maika urte eman zituen Aita Murietak Argentinan eta bueltatzean nagusiek Teruel-go Hajar herrira bidali zuten. 1936ko uztailaren 18an, gerra zibila piztean, erre egin zieten frantziskotarrei komentua, eta gorabehera batzuen ostean Tuterako komentura heltzea lortu zuen Aita Murietak. Handik Lekarotzeko komentura abiatu zen eta San Inazioaren egunean, uztailaren 31n, harrera anaikorra egin zioten bertako anaia kaputxinotarek.

Hala eta guztiz ere, gerra garaia ez zen izan samurra Aita Murieta bezalako euskaltzale batentzat. Une txarrak izan ziren zinez, eta 1936tik 1939ra gurutze bide partikularra bizitzea tokatu zitzaion: Vigo, Sevilla, Granada, Salamanca... Gerra amaitzean, Lekarotz eta Zangotzan egotaldi labur batzuk egin eta gero Altsasura joan zitzaigun; eta, azkenik, bere etxea izango zen Iruñeko San Antonio komentura joan zen.

Frantziskotar hutsa, onbera, xaloa, umoretsua, gozoa, ulerkorra, nortasun sendokoa, ekintza gizon aparta, gauzak isilean egin zalea, gizabidetsua... Horra hor ezagutu zutenek kaputxino apalaren gainean esaten dutena. Azken gaixotasuna, minbi-zi ankerra, heldu zitzaionean ere eroapenez



Aita Murieta (1966).

eramaten saiatu zen, ingurukoei ahalik eta lanik gutxien emanik. Beretzat nahi zuen gurutzea, ez zuen nahi beste inork beragatik sufritzerik:

“Goi arnas aundiko gizona –ez esateagatik santua–, barnean estaltzen zuen Jainkoak emandako gurutzea. Anaia anai izanik, etzion ontan besteri baño aurrerabide gehiago ematen. Bere gurutzea osorik beretako nahi zuen”³.

Heriotza hurbil sentitzean, lagun batek Aralarko santutegira eramaten zuen. Izan ere, urtero joan ohi zen Aita Murieta Aralarra, batez ere Gorpuzti eta Mikel Goiangeruaren egunez. Egonotan euskarazko aitortzak entzun eta organoa jotzen zuen meza nagusian. Azken bisitaldi horretan ere, teklak maitasunez joz eta hauspoak ozta-ozta mugiaraziz, azken agurra luzatu zien euskaldunon zaindariari eta bertako natura zoragarriari.

Zarata handirik atera barik bizi izan zena halaxe hil zen, 1966ko uztailaren 13an, azken olioak –Aita Murietak beren-beregi eskatuta– anaia Ismaelek emanda.

Aita Murieta idazle, euskaltzale

Gorago esanda daukagunez, Buenos Aires-en eginiko egotaldian *Juventud* aldizkariaren zuzendaria izan zen eta bertan kokatu daiteke letrekiko lehenengo harreman literarioa. Kaputxino euskaltzalearen lehenengo lanetariko bat Teruelgo Hajar herrian

³ Torres, Ismael: *Umeen-Deia*, Librería Claret, Bilbo, 1971, 17. or. Liburu honetan Aita Murietaren anaia Ismaelek hainbat datu, testigantza eta artikululu eskaintzen dizkigu. Era berean, *Umeen-Deia* aldizkarian haurrek idatzitako 1.482 kolaborazio ematen dizkigu lurraldeka, herrika eta ordena alfabetikoz antolatuta. Hona hemen egilearen hitzak: “UMEEN DEIA aldizkariaren berrizte hau aita Felipe Murietako sortzaile eta zuzendari berberaren gomendioz moldatu dut. Jakintsu haundien ustez, euskeran eta beste edozein elertitan jakingarri den aberastasuna bezala jo laike. Euskeraren zabalkundean hain egoki jo-katu zuen gizonari hil-ondoko omenaldia da, denbora berean. Aldizkari guzia jatorra da eta oso osorik biltzen dugu hemen” (70. or.).

idatzitako gerra-kronika dugu. Izan ere, bertan zegoela piztu zen Espainian gerra zibila, eta hur-hurretik bizi izan zuen euren komentuaren erreketak, baita zenbait pasadizo lazgarri ere.

Aita Murietak euskara ikasteko hainbat ikasliburu idatzi zituen, baina idaztiok ez zuten argia ikusteko zoririk izan. Liburu horiek euskara ikasteko eta irakasteko, beren-beregi prestatutako materialak dira, betiere sinpletasunari lehentasuna emanik. Izan ere, euskaldun berri izanik, kaputxinoak bazekien zenbat kostatzen zitzaion jendeari, behin euskararen bidean abiatuz gero, bide horretan jarraitzea eta irautea.

Jose Mari Satrustegik dioskunez⁴, lau lan nagusi prestatu zituen Aita Murietak euskararen irakaskuntzari begira, baita makinaz txukun jo ere:

- a). *Gramática elemental del vascuence*. Lehen mailako ikasgaiak ditugu, errazak eta ikasitakoa apurka-apurka erabili ahal izateko zenbait ariketarekin hornituak. Proposatzen duen euskara mota ahozko hizkuntzatik hurbil dago.
- b). *El verbo en su forma impersonal*. Ikusirik, euskal aditza ikasle askorentzat arazo handi ere handia zela, bere esperientzia propioan oinarriturik, Aita Murietak aditz forma nagusiak eskaintzen zizkion ikasle hasi berriari, hasiera-hasieratik erabiltzeko gai izan zedin. Kasuon ere, ez zen asko urrundu herri hizkeratik eta ariketa ugariz hornitu zituen bere azalpenak. Liburuaren azalean esaldi esanguratsu hauxe dago idatzita: “Dena lortu ezina ez da ezer ez egiteko arrazoia”.
- c). *Ejercicios prácticos sobre el verbo euskérico*. Funtsean aurreko liburuaren jarraipena. Hogeita sei ikasgai dira guztira.

⁴ Satrustegi, Jose Mari: *Frantzisko Torres Ibañez Aita Felipe Murueta-koa (1897-1966)*, Bidegileak 33, E. Jaurilaritza, Gasteiz, 2003.

- d). *Diccionario fraseológico*. Bostehun bat hitzen adiera eta joskera bildu zituen euskara-ikasleek euren hizkuntza non aberastua izan zezaten. Liburuaren barne aldean aldatu egiten du izenburua (*Pequeño Vocabulario erdera-euskera*). 1956an sinatzen du liburua, baina sinadura ez da ohikoa, “EGA ldeko batek idatzia” sinatzen baitu. Sastrustegirentzat, kronologikoki, berau dateke azken lana, laurak elkarren osagarriak izaki.

Aita Murietaren ezizen erabiliena “Apakia” zen, eta izen bera zeukan Iruñeko Carlos III.a kaleko haren *argitaletxetxoak* –hala deitzen zion berak, umoretsu, bere gela frantziskotarri–. Langintza horretan, kanpotik laguntzaren batzuk lortzen bazituen ere, Aita Murieta bera zen ia-ia dena: fundatzaile, zuzendari, idazkari, proba-zuzentzaile... Esan dezakegu bera zela “Apakia” editoriala, eta bera zela *Umeen-Deia* aldizkaria ere.

Jarduera horretan askatasun osoa eman zioten nagusiek, eta bere lantegitxo horretan idatzi eta moldatu zituen goian aipaturiko lan guztiak, baita hurrengo gehienak ere:

- a). *Nafarroako Bertsolarien Txapelketa* (1960-61, 1962, 1963): Nafarroako Diputazioko “Príncipe de Viana”-ko euskararen aldeko sailak Euskaltzaindiaren laguntzarekin antolaturiko txapelketetako bertsoak bildu zituen hiru liburuxkaotan⁵.
- b). *Kontu Zarrak eta Berriak* (1961): Hamasei orrialdeko liburuxka, kolorezko apaindurekin hornitua. Euskal Herriko zein mundu zabaleko ipuinak batzea zen Aita Mu-

⁵ “Nafarroa Garaiko txapelketetan abestutako bertsorik gehienak liburuxka ttipi batzutan bildu izan dira. Pedro Díez de Ulzurrun medikua eta Estellerriko Murieta herrixkan sortutako Francisco Torres kaputxinoa, hots, Aita Felipe Murieta arduratzen ziren ordu libretan bertsoak paperera pasatzen. Gisa honetan, 1960-1961, 1962 eta 1963. eko bertsoak argitara eman ziren. 1964 eta 1966.eko txapelketak ez ziren argitaratu Aita Felipe Murieta gaisotu eta hil zelakoz” (“Nafarroako Txapelketen lehen aldia, 1960-1966”, www.bertsozale.com).

rietaren nahia, baina baimen kontuengatik ale bakarra argitaratu zuen.

- c). *Mendizaleen Meza* (1963): “Euskeraz eta gaztelaniaz eta euskal kantak” azpigitulua agertzen zen “Apakia”-k berak eginiko publizitatean.
- d). *Maria Luisa Aguerre*: D. L. Bolher-en liburuaren itzulpena, frantsesetik gaztelaniara.
- e). *Encuesta entre estudiantes sobre el euskera*: 13-16 urteko gaztetxoek euskararen inguruan egindako galdekizunak dira. Lehenengo sorta hogeita sei erantzunekin moldatu zuen, eta Ignazio Larrañaga Lasari, Pingliang-eko (Gansu, Txina) apezpiku kaputxinoari, eskatu zion hitzaurrea, baita honek egin ere, 1965-04-17an sinatua. Edozelan ere, baimen arazoengatik ezin izan zen argitaratu Aita Murietaren lana.

Apakia izena aipatu dugularik, ezinbestekoa da hizpidera ekartzea Aita Murietaren jatorria eta euskararekiko haren atxikimendu irmoa, jaio zen herrian euskara aspalditxo galdua zegoen arren. Paco Torres umetxoak, beraz, ez zuen euskal hizkuntza gurasoen ahotik ikasi eta horrek hutsune sakona utzi zuen murietar gaztetxoarengan. Hori dela-eta, gaztetan hasi zen euskara ikasten, baita bere baitan betiko errotu ere. Zaletasun horretan, zalantza barik, amaren eragina, amarekiko lotura afektiboa, erabakiorra izan zen.

Ama Iturgoien herriko alaba zen eta ba omen zekien zer-txobait euskaraz; izan ere, hitz solteren batzuk esaten omen zizkien seme-alabei, euren artean *apakia* (“sutondoan hauts azpian gordetako ilitia edo txingarra”). Hona hemen zer zioen Jose de Arteche idazleak Aita Murueta hil berritan⁶:

“Bere amatzaz askotan itz egiten ziran. Orain Naparruko Murieta’n ez da euskeraz itz egiten, baño bere amak ba

⁶ Arteche, Jose de: “Aita Murieta”, *Zeruko Argia*, 1966-08-07.

omen zekien euskeraz zerbait, eta arek erabiltzen zituan itzak esaten zizkidan.

Abetan bat *apakia*, kear azpian gelditzen dan txingarra adieraziaz. Zenbat maite zuan itz au Aita Murieta! Baño iztegiak erabilli arren, ez det arkitu. Nik erabillitakuetan beintzat. Ezta Azkue⁷ren iztegian ere⁷.

Murieta, Lizarra⁸tik gertuan dagon erri txiki bat da. Noiz galdu zen euskera bertan?⁸ Nola gogoratzen zala Aita Murieta bere amak erakutsitako euskerazko itzakin!”.

Esan dezagun Aita Murieta bera ere *apakia* zela; eta, era berean, kaputxino pobrearen gela-argitaletxea ere *apakia* zela.

⁷ Azkuek, Orotariko Hiztegiak eta UZEIk *apakin* hitza dakarte. Azkuek: *apakin*> *pozo*; *suciedad*; *hierba de arroyo*; *residuo*; eta *charco* adierak dakartza. Euskaltzaindiaren Orotarikoak: *apakin*> *residuo*, *materiales de aluvión*; *pozo*; eta *hierba de arroyo*. Edozelan ere, lehenengo adieraren inguruan Murietaren amaren “apakia” gogorazten digun adibide bat dakar, Nemesio Etxanizen *Lur Berri Billa* (1967) liburutik hartua: “Sasiolatik dator / ibai aberatsa, / illargi berrietan / angula arratsa, / ujola-egunetan / egurra ta zotza, / **apakiñez berotu / dedin etxe otza**”. UZEIk: *apakin* (gutxi erabilia)> *apurkin*, *bondakin*, *kondar*...; baina baita honako hau ere: *errondo*. Azkueren hiztegiara joz gero: **errondo**>tízón (**ilintia**), hain zuzen ere “apakia” hitzaren adiera bera.

⁸ “En los valles apartados de la montaña es donde se parapetó durante más tiempo la lengua de nuestros antepasados ya que la movilidad de la población era mínima y se fueron conservando mejor las características de cada modalidad dialectal, influenciada a su vez por el vascuence de las zonas de contacto en función de relaciones familiares y por razones de convivencia y trabajo El siglo XIX, con matizaciones puntuales, supuso la pérdida definitiva en buena parte de la comarca de Estella.

Iturgoien. La franja noreste de Tierra Estella en las estribaciones de la sierra Andia, no aparece en la documentación del estudio y es una zona que ha conservado hasta muy tarde la lengua vasca. El Padre Felipe de Murieta, Francisco Torres Ibañez (1897-1966), capuchino, decía que su madre Gedeona Ibañez, nacida en Iturgoien, sabía euskera” (Hitzok, Juan Mari Satrustegik *Toponomástica histórica en Tierra Estella y Valdizarbe* libururako idatzitako hitzaurrean agertzen dira).

Izan ere, gerra osteko urte latzetan agonia luze baten zetzan euskararen su ahula, hautsak ito aginean, baina bizirik hala ere, bizkunde loretsu baten zain. Lizardik ere *apakia* aurkitu zukeen hauts gainera belaunikatu zenean:

“Ordun belaunikatu
nintzan auts gainera.
Ark gordetako sua,
zu´ere il ote zera?
Autsa pittinka urratu
nuan, beldur-bera.
Sua bizirik dago!
Galduak ez gera!”⁹.

Apakia umeen aldizkarigintzan: Umeen-Deia

Aita Murietak argitaratu gabeko apunte batzuetan dioskunez, orduko euskaltzaleen pasibotasunak bultzatu zuen euskal nortasunaren ezaugarri nagusia den euskal hizkuntzaren alde zer bait egitera:

“En la actual situación de la vida del euskera, triste es decirlo, ni la Literatura ni la Filología hacen nada de provecho para la conservación del mismo. Aun en el aspecto *político*, el trabajo de muchos de los que se dicen *patriotas* no hacen absolutamente nada en pro del aspecto más interesante y básico de la vida del Pueblo Vasco: el propio idioma. Porque, desaparecido éste, el mismo Pueblo Vasco habrá pasado a la historia, o, como vulgarmente se dice, habrá muerto”¹⁰.

Esan dugunez, ideia 1959ko maiatzaren 17an sortu zen, Príncipe de Viana¹¹ elkarteak Etxaleku herrian antolatutako

⁹ *Lizardi*: “Euskal Pizkundera” (*Olerkiak Xabier Lizardi*, Erein, Donostia, 1983).

¹⁰ *Umeen-Deia*, 41. or.

¹¹ Nafarroako Diputazioa, “Euskararen Aldeko Saila”-ren bitartez,

jaialdi baten inguruan. Aldizkariak hasieratik bertatik 5.000 pezetako diru laguntza jasotzen zuen urtero Díez de Ulzurrunen gestioei esker; baina Aita Murietak berak esaten zuenez, *Umeen-Deia* ateratzea sare euskaltzale langile eta eskuzabal bati esker izan zen posible: babesleak, euskaltzaleak, maisu-maistrak, gurasoak, euskal umeak...:

“Merced a esa subvención, y a la generosidad de unos pocos euskaltzales, sobrevive UMEEN-DEIA. Pero hay que notar que esa ayuda económica no serviría para nada de no haber hallado *algunas* personas verdaderamente euskaltzales que con su esfuerzo personal animaran a los niños a sostener la revista con sus escritos”¹².

Argitaratzeko baimena lortu ahal izateko, Pedro Díez de Ulzurrun abadea¹³, Ignazio Baleztena eta Aita Murieta bera joan ziren Nafarroako Diputaziora. Orduko ahaldun nagusia Jaime del Burgo zen, eta, dirudienez, amultsuki hartu zituen. Aita Murietak oso planteamendu xumea –frantziskotarra esango genuke– egin zion: lau orrialdeko papertxo bat, izenbururik ez zeukana; maiztasun jakinik ez; dohainik banatu beharrekoa; umeek idatzitako gauzatxoak besterik (ipuinak, tokian tokiko berriak, pasadizoak...) argitaratuko ez zituenena...

Proposamenaren xumea!, pentsatuko zuketen Diputazioko arduradunek. Kontua da, berehala eman ziotela argitaratze-baimena (NA 295/1959) Aita Murietari eta honek lanari ekin ziola, gogotsu ekin ere. Posta helbide batekin hasi zen lanean Aita

1957an hasi zen haur euskaldunei sariak banatzen. Horretarako, Nafarroako eremu euskalduneko herrietan beren-beregi antolaturiko jaialdiak baliatu zituen.

¹² *Umeen-Deia*, 42. or.

¹³ Izan ere, bi Pedro Díez de Ulzurrun izan ziren gerra osteko Iruñean: bata medikua, Pedro Díez de Ulzurrun Etxarte (1924-1994), Iruñean bertan jaioa; eta bestea abadea, Pedro Díez de Ulzurrun Ezkurdia (1907-1977), Irañeta herriko semea. Biak euskaltzale sutsuak, biak ahala biak euskaltzain urgazleak, bitzuek Iruñean bizi izanak eta bertan zenduak adin bertsua zeukatela...

Murieta: *Umien Deia*, Carlos III, 22. Pamplona. Gerora -23. zenbakitik aurrera- helbidean erabilitako epigrafea izango da aldizkariari izena emango diona: *Umeen-Deia*.

Lehenengo alea 1959ko ekainean argitaratu zuen Aita Murietak, eta hilero-hilero jarraitu zuen argitaratzen, harik eta 1965eko udazkenean lege aldaketa batek aldizkariaren bidea eten zuen arte. Hori dela-eta, kaputxino nekaezina *Euskal kontuak* izeneko ipuin bildumak (16 orrialdekoak) argitaratzen hasi zen, baina bigarrena¹⁴ inprentan zegoela hil zen Murietako semea¹⁵. Gaztetxoek eta nerabeek ere parte hartu ahal izan zezaten, 1963an Aita Murieta *Gu Batxiller Euskaldunok* aldizkari berria (8 orrialde) hasi zen argitaratzen, baina lehenengo bi zenbakiek baino ez zuten argia ikusi.

Aldizkariaren mantxetari bagagozkio, aldaketa bat baino gehiago ikus dezakegu aldizkariaren bizitzan zehar: a) 1-3 zenbakietan “Depósito Legal”-aren zenbakia besterik ez da agertzen¹⁶; b) 4-15 zenbakiek data daramate; c) 16. zenbakitik aurrera zenbakia darama agerkariak; d) 23. zenbakitik aurrera *Umeen-Deia* izenburua agertuko da¹⁷; eta e) 45-65 zenbakietan izenburu bikoitza izango du hilabetekariak: *Eudeia* (*Euskal Umeen-Deia*) Donostiatik (Arabara, Bizkaira eta Gipuzkoara) banatuko da, eta *Umeen-Deia* Iruñetik, nahiz eta mamiz eta izaeraz aldizkari bera izan.

¹⁴ Murietak Jose Angel Irigarai nafar euskaltzale ezagunaren eskuetan utzi zuen proiektuaren jarraipena eta honek hurrengo bi zenbakiak argitaratu zituen, *Umeen-Deia* berrirako argitaratze baimena heldu birtartean.

¹⁵ Argitalpenok bideratzen Rafael Goñi abadeak laguntzen zion Aita Murietari eta Ismael Torresek kontatzen digunez (*Umeen-Deia*, 41. or.), bien eskelak egun berean agertu ziren Iruñeko egunkarietan.

¹⁶ Edozelan ere, esalditxo hauxe zekarren aldizkariak ikurritz modura: “Aterako da ahal dugularik. Ahalko dugu nai duzularik”.

¹⁷ 23. zenbakitik aurrera honako idatzi hau agertuko da azken orrialdean: Reg. NA 18-61. Graf. XAVIER, Pamplona. Dep. Legal: NA-295-1959.



Lehenengo zenbakian agertzen diren hitzotan argi ikus daiteke Aita Murietaren egitasmoa zertan zetzan. Hona hemen kaputxinoak ume euskaldunei luzatutako berbak:

“Aurrek: zergatik egon bear duzue zuek beti ixillik? Noiz bat itz-egin bear duzue aundiek bezala. Nai dugu jakin zuen errietako berri. Bidali lanak zuek berberak idatziak eta firmatuak, esanez gañera zenbat urte duzien. Igorri dizkigute erri zenbaitzuetatik, baño nai dugu egin dezazuten euskalerrri guzietako mutiko edo neskatiko euskaldunek. Guk ezarriko dugu gero inprentan”.

Aparteko orri baten, erdaraz, aldizkariaren xede nagusia aipaturik, hots, gaztetxoek euskararekiko atxikimendua sendotzea eta areagotzea, helduen partaidetzaren garrantzia ere azpimarratzen du:

“Nada mejor que las ingenuas ideas de los niños para mover a serias meditaciones a los grandes. Empresa ardua es ésta. Pero nos hemos lanzado a ella. Y nos hemos lanzado, como vulgarmente se dice –en el caso es realidad–, sin un céntimo, confiados en la buena voluntad de todos los amantes del euskera. La hoja se reparte gratis. Tenemos a nuestro favor la confianza del éxito y el entusiasmo de nuestros pequeños. Esperamos tener también la ayuda de los Mayores”.

Aldizkariak lehenengo urtea bete zuenean (1960ko ekaina), Aita Murietak ale bikoitza argitaratu zuen, bata euskaraz eta bestea erdaraz, ahalik eta jenderik gehienengana heldu ahal izateko. Aleotan lehenengo urtearen balantze moduko bat egin du kaputxino euskaltzaleak:

Gu Batxiller

UMEEN-DEIA

CARLOS EL NOBLE, 22

PAMPLONA

Euskaldunok

ere gure-gurea dan EUSKERA landutzeko eginbearra nai dugu artzen.

“No todo se ha desarrollado a medida de nuestras esperanzas y deseos; pero tenemos la satisfacción, muy honda por cierto, de haber trabajado en la medida de nuestras posibilidades en pro del Euskera.

Alégranos el haber asociado a tantos niños y niñas euskaldunes a tan noble empresa. Si a esto añadimos las palabras de aliento y de simpatía que nos han llegado de todo el País Vasco y de los más lejanos países, se comprenderá el que sigamos confiados el camino que hace un año emprendimos”.

Izan ere, aurreko urtean “Apakia” Argitaletxera, kaputxinoaren gela pobrera, bidalitako lanak 350 inguru dira (%55 Nafarroatik, %38 Gipuzkoatik, %4 Bizkai-Arabetatik, eta gainontzeakoak Ameriketatik), eta euretatik –oso datu azpimarragarria– %45 neskatoek eginak.

Eupadak, adore-hitzak eta zorionak nonahitik heldu zaizkio Aita Murietari. Ignazio Maria Etxaide orduko Euskaltzainburuak honako hau ziotson 1960ko apirileko eskutitzean:

“Zorionik aundienak eman bear dizkizuet Euskaltzaindiaren izenean artu dezuten zeregin balio aundikoagatik. Izan ere, aurrak geroko gizonak dira eta eztago dudarik euskalgaietan saiatzen badira gure euskal-kulturak etorkizun argia izango duela”.

Hurrengo hil eta urteetan Euskal Herritik ez ezik, mundu zabaletik ere ugariak izango dira Aita Murietak harturiko esker onezko gutunak: Suediako Lund unibertsitatetik (N. M. Holmer eta V. Abrahamson), Pragatik (N. Tauer), Insbruck-etik (A.M. Goyarzun), Hego Ameriketatik (Rev. Internacional Americana, B. Aires-eko Euskalzaleak elkarte eta Mar del Plata-ko Euskal Etxea, besteak beste)...

Umeen-Deia aldizkarian eta euskararen alde eginiko lana saritu guran, Euskaltzaindiak 1961eko azaroaren 24an egindako bileran euskaltzain urgazle izendatu zuen Murietako euskalduna. Batzarraren aktak honako hau dio: “Iru urgazle barri izentatu dira: Mariano Iceta, Francisco Tirapu, eta Aita Felipe Murieta´ko kaputxinoa, UMEEN DEIA´ren zuzendaria”. Izendapena bihotzaren erditik eskertu zion Aita Murietak Euskaltzaindiari, apal-apal eskertu ere: “Ez nuan merezi orrelako goratzetik. Beronek emango dit bidea aurrerakoan lan ugariagoa egiteko gure Euskera maitearen bizibiderako” (1962-03-08).

Edozelan ere, *Umeen-Deia* aldizkaritxoan umeek eurek idatzitako testuen artean, ohikoa zen Aita Murietak euskaraz eta erdaraz tartekaturiko aipuak, esaldiak, bertsoak-eta agertzea, kasurik gehienetan helburu didaktiko batekin. Honakook genituzke garrantzitsuenak:

- a). *Pentsalari bandien aipuak* (“Lo que dicen los sabios y lo que dicen los otros”). “El mundo no habrá de ganar nada por el hecho de que mueran las lenguas de los pueblos pequeños; por el contrario, todo será perder. El reemplazar la diversidad lingüística actual por un número reducido de lenguas llamadas grandes o también por una sola lengua, artificial o no, llevaría simplemente a una fosilización del pensamiento, sería una organización de la estupidez... El euskera debe sobrevivir para que el espíritu vasco no muera” (Benjamin Lee Whorf). Aita Murietak honako hau gehitu ohi zuen holakoen az-

pian: (Esto dicen los sabios. Los tontos y los enemigos del Euskera dicen todo lo contrario)...

- b). *Esames bitxiak*. Euskaraz eta erdaraz, sarri errepikatu egiten zituenak: “La revista vasca más leída. Se lee por lo menos en cinco partes del mundo”; “Aurresku, ezpatadantza, ariñ-ariñ... oso politak benetan. Dantzak baño obeki ordea, euskerak ematen dio bizia Euskalerriari”; “Revista única: apta para mayores escrita por pequeños”...
- c). *Bertsoak*. Esanda daukagunez, Aita Murietak parte aktiboa izan zuen Nafarroako Bertsolari txapelketa askoren antolaketan. Txapelketetan kantaturiko bertso-bildumak ere argitaratu zituen. Sarri baliatu zituen Aita Murietak euskararen inguruko bertsoak, baita aldizkarirako beren-beregi paratutakoak ere: “UMEEN DEIA nolakoa dan / bear genduke juzkatu; / aurtxo txikiak zeñen ederki / egiten diran jostatu! / Aita Murietak asi zuanda / oraindik ezta nekatu, / gero ta gero politaguak / egiten ditu moldatu. / Irakurtzeko gogorik bada / berai Iruñe´ra eskatu” (M. Arotzarena)...
- d). *Kultur obarrak*: Bertsolari txapelketen inguruko jakingarriak, Príncipe de Viana elkarteak antolaturiko sariketen berri, Nafarroako Euskal Herriaren Adiskideek eginiko lanak...

Guztira, 65 zenbaki (lau orrialdekoak) argitaratu ziren, eurentariko zazpi (material ugari egoteagatik) bikoitzak izan zirelarik. Hona hemen datu nagusiak: 65 zenbaki, 330 orrialde, 1.500 kolaborazio inguru, 885 idazle txiki...

Uztaren ederra! Umeen bihotzetako lur bizi eta jorian emaro erein zuen aita Murietak euskalduntasunaren hazia, eta ereite horrek fruitu ugari opetsi zion euskal kulturari. Esanda daukagu 1965eko udagoieneko argitarapen lege berriak etena ekarri ziola aldizkariari. Aita Murietak, gaixorik eta ahul zegoen arren, galdekizuna bete eta eskaera egin zuen aldizkaria

argitaratzen jarraitu ahal izateko. Laguntza eske ere hasi zen han-hor-hemen. Aita Onaindiak kontatzen digunez¹⁸, eguerdi aurre baten joan zitzaion Aita Murieta Larrako (Amorebieta-Zornotza) komentura eta beren-beregi eskatu zion Amoroto-ko karmeldarrari aldizkaria bere gain hartzeko, bera gaixo samar zegoela-eta:

“Beti agertu izan naz gertu mesedeak egiteko; ainbat errazoi arildu eustazan Aita Felipe Murieta⁷k, baiña azkenez, ezetz esan bear: etxeko ta edu orretako lanakaz bete-bete egiñik aurkitzen nintzan. Gaiñera, zeregin ori aita kaputxinoak eurak artzea nai neban, nik baiño obeto bete al izango ebela-ta. Pena aundiz biurtu zen etxera A. Murieta, biziak jota il-zori sentitzen zan euskaltzale porrokatua”.

Gizon txikiak bere lan handia opetsi zigun. Haurrengan zekusan geroa eta umeak irabazi nahi izan zituen euskararentzat. Aita Murieta ondo ere ondo ezagutu zuen Jose Mari Satrustegik dioskunez, –euskaldun askoren euskararekiko utzikeria ozen salatuagatik– isilean eta apaltasunez burutu zituen bere egitekoak, zarata handirik atera barik, lagun hurkoa gehiegi moles-tatu barik. *Gizon haundi bat* genuen kaputxino txikia:

“Ixilian egin ditu bere gauzak. Ixilian ikasi zuen euskera, ots aundiko askok egiten ez dutena. Ixilian idatzia zuen euskaldun berriendako gramatika; eta argitaratzeko biderik eman ez duen ixiltasunean, izan ere. Ixilian bere Euskalerrri maitearen aldeko otoitza; eta ixiltasunik aundienengan bere eritasun latza... eta eriotza. (...) Itz gutxi eta egite ugari, ori da gizonaren neurria; gure arteko gizon aundi baten mendi gailurra”¹⁹.

Beharrik, Aita Murieta hil zen urte berean (1966), Jose Antonio Retolazaren eskutik, *Kili-kili* aldizkaritxoak hartu zuen *Umeen*

¹⁸ Onaindia, Santi: “Iruñarrakaz”, in *Oroi-txinpartak*, Igarri SCL, Bilbo, 1988, 84-86.

¹⁹ Satrustegi, Jose Mari: “Gizon aundi bat”, *Príncipe de Viana*, 1966, 6, 2. or.

-*Deia* apalak utzitako lekua. Umeek bazuten beste erreferente bat Bizkaitik Euskal Herri osora zabalduko zena. Apakiak bizirik zira-
rauen Kili-kili umetxoarengan. Hori ikustean, Aita Murieta pozez
gainezka egongo zen *ixarren unian*; bitsetan ikusiko zituzkeen
umetxo bizkaitarraren ibilerak arimen pausalekutik.

Bibliografia

- Aleman, Sagrario: “Berdetik horira” (Sarrera hitzaldia, euskal-
tzain oso izendatzean, Etxaleku, 2008-05-31), www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/72620.pdf
- Arozamena, Mikel: “Aita Murieta zanari”, *Príncipe de Viana*,
1966-urria.
- Arteche, Jose de: “Aita Murieta”, *Zeruko Argia*, 1966-08-07.
- Calleja, Seve: *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaie-
tatik 1986ra arte*, Labayru Ikastegia-BBK, Bilbo, 1994.
- Claveria, Carlos: “*Umeen Deia*-ren sortzaillea izketan gurekin”,
Zeruko Argia, 71, 1964-07-05.
- Díaz Noci, Javier: “50eko hamarkadako euskal aldizkariak eta
beren eragina”, *Egan*, 54, 2001, 97-124. Baita hurrengo hel-
bidean ere: www.ehu.es/díaz-noci
- “Euskal kazetaritza” in *Kazetaritza bizkuntza minorizatu-
tan: Espainiako kasua*, EHU, Gasteiz, 2009, 13-403.
- Diez Ulzurrun, F.: “Abriendo caminos al euskera”, *Diario de
Noticias*, 2008-06-01.
- Díez de Ulzurrun Etxarte, Pedro: “Aita Felipe Muruetakoa za-
nari”, *Príncipe de Viana*, 1966-ekaina/uztaila.
- Díez de Ulzurrun Ezkurdia, Pedro: “Aita Felipe Murueta il zai-
gu”, *Zeruko Argia*, 1966-07-13.
- Iñigo, Andres: “Euskara Estellerrian”, *Euskera*, XLIX, 2004, 2,
1121-1126.
- Izagirre Sagardia, Ana: *Abozko bitzetatik idatzietara: ikasi eta
jardun*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2007.

- Onaíndia, Santiago: “Aita Felipe Muruetakoa”, in *Euskal literatura IV*, Etor, Bilbo, 1976, 349-351.
- “Iruñarrakaz”, in *Oroi-txinpartak*, Igarri SCL, Bilbo, 1988, 84-86.
- Satrustegi, Jose Mari: “Gizon aundi bat”, *Príncipe de Viana*, 1966, 6, 2. or.
- “Umeen Deia”, *Príncipe de Viana*, 1971, 62, 3. or.
 - “Aitzinsolasa-Prólogo” in Sáinz Albero, Inés & Sáinz Pezónaga, Jabier: *Toponomástica histórica en Tierra Estella y Valdezarbe*, Euskara Kultur Elkargoa, Pamplona, 2002.
 - *Frantzisko Torres Ibañez Aita Felipe Muruetakoa (1897-1966)*, Bidegileak 33, E. Jaurilaritza, Gasteiz, 2003.
- Torres, Ismael: *Umeen-Deia*, Claret Liburutegiak, Bilbo, 1971.
- XX: “Francisco Torres Ibáñez, Padre Felipe de Murieta”, *Ze Be-rrri?* (Euskararen sustapenerako udaletako aldizkaria), 2005-apir., 13. or.

Iñaki Sarriugarte Irigoien

BERNARDO MARIA GARRO “OTXOLUA”
(A. Santi Onaindiari gaztelaniaz idatzitako gutuna)

Asko dira Bernardo Maria Garro “Otxolua” miresten duten euskaltzaleak eta neure burua ere horien artean sartzen dut.

Nahiko gazte nintzela ezagutu nuen, ez sakonki, baina haren berri jakin nuen behintzat. Urte haietan, 1957 aldean hasita, aurreko hiru urteak Nafarroako Alesbesen euskararik batere egin gabe igaro ondoren, euskal liburuaren gose izan ohi nintzen. Han, mutikotan, debekatu egin ziguten euskaraz egitea, gaztelanirik ez genuela ongi ikasten eta... Larreara etorri nintzenean, ez nuen onik izan euskaraz hitz egiteko berezko eta umetako jarioa berreskuratu arte. Horretarako, euskarazko liburuak irakurtzen ni-



Otxolua, 1930ean.

tuen. Ez zen, orduan, aukera handirik. Latinezkoak-eta errazago eskura zitezkeen. Euskarazkoetatik, gure eskueran ziren banaka haietatik, nahiko ulergaitzak ziren orduko gure euskal kultura mailarako. Esaterako, Larreako nobizio-etxean A. Kardaberaz eta A. Mendibururen erlijio-liburuak... euskara zaharrean idatziak eta, gainera, beste euskalki batean.

Gasteizen Filosofiako ikasketak egiten ziren gure garaian. Ikasgelen ondoan bazen liburutegi txikitxo bat eta han aurkitu nituen, beste batzuen artean, A. Gabriel Jauregiren *Pisia* eta Bernardo Maria Garro "Otxoluaren" *Bertolda´ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin´en txaldankeri barregarriak*. Hau Bernardo Maria Garroren libururik ezagunenetakoa, bere-berea barik itzulpena izan arren. Nekez bada ere, orduan barneratu nin-




Otxolua, Txindokin, 1955ean.

tzen gerra aurrean eta gerra ostean idazle askok, batez ere abertzale girokoek, idatzi ohi zituzten testu sabin-darretan. Bai Gabriel Jauregi eta bai Bernardo Garro giro horretako idazleak ziren bete-betean, oso garbizaleak, baina baita bizkaieraren maisu ezin hobeak ere. Hainbat ekitaldi eta ahalegin egin nituen bi liburuak ulertu eta edukiaz jabetu nahirik. Egia esan, edukiaz jabetzea baino zera-

bilten euskara dastatzea eta haien laguntzaz neure euskara maiztua aberastea zen helburua.

Bernardo Maria Garro "Otxolua"ren bizitzako zertzelada eta idazlanez ez dut jardungo, hori euskal literaturaren historia idatzi dutenek egin baitute eta, nire uste apalean, besteek baino txukunago Igone Etxebarriak *Bidegileak* izeneko sortan. Joskera onaren eta herritik harako esamoldeen erabileran mai-



1932.

su aitortzen dutenen hitzak bai ekarri nahi nituzke hona, han hor hemen esandakoen errepikapena izango bada ere.

Mikel Zaratek *Bizkaiko euskal idazleak* liburuan, itzulpenetarako zuen trebetasuna azpimarratzen du lehenik; beste hizkuntzetako testuak euskaratu soilik ez, “euskaldundu” ere eginen zituela Otxoluak. Hori esan ondoren, hau dio:

“Baiña joskeran, aditzean eta esakeretan bere, esakeretan batez bere maisua dogu. Zenbat eta zenbat esakera eder dituan, eta zelango jatortasuna darioen!”

Lizardik *Itz-lauz* izeneko liburuan hau dio:

“Ona, ezin polikiago ari dan idazle bat. Asteazkenero, uts-egin gabe, arki dezakezute *Euzkadi*-ko “Euzkel-Atala”n “Otxolua”ren idazki mamia, Mundaka-ko berriez ta zenbait goxoki geiagor ornitua. Maiz, berebiziko ipui irakurgarriak ingeleratik txukun-askirik itzuli oi ditu. Oiek bilduz-bilduz noizpait idazti-txo bat osatze´aal ba zeneza, elitzake makala aldarte beltza argitzeko. Bizkaiera giartsu egokia oi derabil, ta itz-aukeratze ta are asmagintzan ere zolia da. Euskerak Bizkai aldean ditun idazle bikañenetakorik irudi zait”.

Orixek “lagun eta irakasle” deitzen dio.


A. Villasantek *Historia de la Literatura Vasca* liburuan haren itzulpen-lana goraiatzan du alde askotatik begiratuta, baina tamalgarritzat jotzen haren garbizalekeria...

A. Santi Onaindiari egindako gutuna

Hauxe zen, lan hau idazten hasterakoan, izan dudana xedea: dokumentu hau dagoen-dagoenean argitara ematea eta beroni sarrera txiki bat egitea. Izan ere, dokumentu originala eta oso garrantzitsua da, non Bernardo Garrok euskararekiko bere bizitzaren kontu ematen baitu. Labur bada ere, euskal letretan barna egin duen bidaiaren berri nahiko zehatza ematen digu. Jakina, gutun baten sartzeko bezain laburtua.

Dokumentu hau altxor txiki bat bezala ikusi nuen hasierarik, baina geroago ezaguna zelako susmoa izan nuen, hemen go hainbat argibide han hor hemen ikusi baintuen; esaterako, "Kirikiño" k antolatu zuen palindromo sariketaren kontua... Gero ohartu nintzen Santi Onaindia bera izan zela albiste hauen iturria; hala uste dut, behintzat. Izan ere, A. Santi Onaindiak dokumentu honetako hainbat zertzelada agertzen dizkigu, bere erara euskarara itzulirik, *Euskal literatura IV* (1975) liburuan. Hartaz jardun duten gerokoek hortik edan zutela esango nuke. Dena dela, Bernardo Maria Garro "Otxolua" bere testu originalean irakurtzea interesgarri delakoan argitaratu nahi izan da dokumentu hau. *Karmel* aldizkariak ez du gaztelaniazko testuak argitaratzeko ohiturarik, baina oraingoan, autorearen ospeaz eta dokumentuak irakurlearen pitz dezakeen interesaz jabeturik, salbuespena egin nahi izan da.

Zer dakar testu honek? Irakurleak berak ahozozatu ahal izan-



1936.

go du, baina hari jakia mahaian prest-prest ipintzearren, gauzatxo hauek aurreratu nahi nituzke:

Hautzarotik elebiduna dela dio. Kalean entzuten zuenera erne egoten zela eta belarria zoli izaten zuela batez ere atsoek ahots-tonu bereziaz botatzen zituzten irain-hitz eta araoetara, baita zaharrengandik entzuten zituen ipuin, kontu, errefrau eta esaeretara ere.

Txikitan hartutakoaren gainean, bere jakin-mina bitarteko zela, eraikiz joan zen bere euskal jakintzaren ondarea, Añibarroren *Eskuliburua*, gramatika eta eleberriren bat lagun zituela. Bilbon merkataritza ikasketak egiten ari zela, hainbat euskara mota entzuteko zoria izan zuela, dio, alde askotako ikaskideak baitzituen han. Gero, Argentinara joan zenean, hainbat euskalkitako euskaldunekin harremanetan, gehiago aberastu zuela bere euskara, zazpi urte igaro ondoren, handik *nazioarteko euskaldun* eginik itzulirik...

Horrela euskaltzasunean aurrera zihoala dio, eta 1924an “Kirikiño” zenak antolatu zuen palindromoen lehiaketara aurkeztu zela. Gutun honetatik atera dezakegunez, behin plazara irteteko bultzada izanik, haren lumak ez du ia atsedetik hartuko.

Berak euskaraz hitz lauz eta hitz neurtuz egindako hainbat lanen berri ematen dio gutun honetan A. Santiri. Baina nire iritziz interesgarriena, bere euskal lanen berri ematearen gaitetik, oraindik argia ikusi gabeko bertso batzuk dokumentu honetan agertzea da. Zein dira horiek? “KABELIÑEA” (Vals) eta “VILLANCICO” izenburuaz datorren Gabon-kanta herrikoia. Berak dio argi Gabon-kanta horren 1., 6., 9. eta 10. ahapaldiak herrikoiak direla eta gainerakoak (2., 4., 5., 7. eta 8.a) berak sortuak, herrikoien estilora egokituz.

Gutunaren testua osorik

BERNARDO M^a GARRO
Buenos Aires, 13 – 1º
Bilbao

7 de julio de 1954

R. P. Santiago de Onaindia,
Residencia P.P. Carmelitas
EIBAR (Guipuzcoa)
Rvdo. Padre:

Conforme le prometí hace algún tiempo y me lo ha hecho recordar el amigo Erquiaga, tengo el gusto de darle detalles de mi vida euskerófila, que no tiene nada de particular.

Nací en Mundaca (Vizcaya) el 22 de agosto de 1891, y como en nuestra casa, lo mismo que en la calle, se hablaba indistintamente en vasco y en castellano, soy bilingüe desde la niñez. Solía prestar atención al tono melodramático que en ocasiones solían adoptar las viejas del pueblo, sobre todo para soltar denuestos, imprecaciones, etc., con sus variantes de voz y todo, así como a los cuentos, anécdotas, refranes y dichos que oía de mis mayores, a quienes a mi vez proponía problemas de traducción con frases en que entraba el verbo en los modos subjuntivo, condicional y potencial, pues el vascuence que aprendía en la calle quedaba corto para equipararse con el castellano que nos enseñaban en la escuela.

Con estos principios, más lo que iba aprendiendo en los devocionarios euskéricos, sobre todo el "Eskuliburua" de Añibarro, alguna que otra gramática y novela, mis relaciones en Bilbao durante mis estudios de comercio, con amigos de Elorrio, Mondragón y otros pueblos guipuzcoanos, me marché a Argentina en 1910, de donde volví al cabo de siete años, hecho, como yo mismo me llamaba un "euskaldun internacional", pues me consideraba capaz de mantener conversación en vasco de cualquier parte, por el trato que había allí tenido con vascos de todas las regiones.

Seguía así mi afición por el euskera, hasta que hacia 1924 el difunto "Kirikiño" organizó un concurso de frases palindrómicas euskéricas, al estido de "Dábele arroz a la zorra el abad". Envié a él más de 100 frases de todos los tamaños, entre las que recuerdo "Aita, itxi atia", "An atzo arro za-

na, senarran esanaz orra otzana," etc., pero el premio se lo llevó una señorita que envió solo dos frases, pues una de ellas era la más larga que se había presentado en el concurso, y el premio era para la más larga. Yo solo obtuve mención honorífica. Después seguí enviando al periódico noticias semanales de mi pueblo, que siempre terminaban con algún cuento o anécdota, retazos de historia, etc. También solía enviar algunos cuentos míos, con más frecuencia traducciones de cuentos del inglés. Con intención de coleccionar y publicar si posible, enviaba también la traducción del italiano de "Bertolda y Bertoldín"; del inglés de "Abere Dontsuak", o sea relaciones de los animales con Santos célebres; "Euskal-erriko Abere-Piztiak", "Abere Ipuñak", la traducción al vizcaino de los cuentos de Jean Barbier, y otras muchas cosas, de las cuales solo he llegado a publicar el "Bertolda eta Bertoldín", hacia 1934, si mal no recuerdo, pues estoy escribiendo de memoria. En 1929, se publicó un pequeño cuento, titulado "Bijar Donianera", que antes no había aparecido en el periódico. Y pare Vd. de contar. Con posterioridad he escrito una traducción al vizcaino de los Evangelios Concordados del Cardenal Gomá, a base del "Itun Berria", que no se ha publicado en ninguna parte.

De poesías originales, si así puede llamarse, sólo tengo la que reprodujo el Sr. Altube en una de sus obras, que empieza por "Ba-neban nik izan, ba-neban..." y cuyo título ni siquiera lo recuerdo. Con la traducción de "Abere Dontsuak", a que me he referido anteriormente, iban traducciones también en verso de muchas poesías inglesas, que ya me gustaría volver a leerlas, pues algunas de ellas me parecían que no estaban mal. Por lo demás, a menudo he hecho "Bertsos" o más bien letras euskéricas para canciones en boga, en las que se pueden permitir ciertas licencias, pues son más que nada de contención, si no de propaganda, pero... la gente, como se suele decir, no está por la labor. He aquí algunas muestras, si Vd. me permite:

NEURE ONDOTXUTIK NORA?

(Con música de "Eras como la rosa de Alejandría, colorada de noche, blanca de día...")

Neure ondotxutik nora
zoaz, biotza?
Emen beroa dozu,
kanpoan otza,
maitea, polita,
kanpoan otza.

Kanpoan ezauz iñok
nire beste gura;
zatoz, ene maitea,
neure ondotxura,
maitea, polita,
neure ondotxura.

Ez da zeruan izar
politagorik
zure begiak baño,
Jaunak emonik,
maitea, polita,
Jaunak emonik.
Beituten naubenean
zoratuten naube;
ez ete naz egingo
begion jaube,
maitea, polita,
begion jaube?

Basoan gora doa
txoria kantuz;
nire pentsamentubak
beti zuganutz,
maitea, polita,
beti zuganutz.
Deutsudan maitasuna
kabidu ezinik,
biotzak ler egingost,
zu etorri ezik,
maitea, polita,
zu agertu ezik.

KABELIÑEA (Vals)

San Pedro-kabeliñea
goiz baten emon zeunstana,
neure penatxu guztien
testigu bakarra dana,
atzera dotsut bialtzen
izan daizun nire barri:

urrun zugandi egon arren,
 zukodazala aitzu barik.
 Kabeliña, kabeliña,
 kabeliña biotzekoa,
 nire maite-txuagana,
 nire maiteagana oa.
 Esayona, esayona,
 esayona itxaroteko,
 nire pentsutan ba'yagona,
 etxakonala damutuko.
 Kabeliñea, kabeliñea,
 maiteak niri paparrean
 pa-emonda imiñia.

VILLANCICO

(Popular en Vizcaya, oído muchas veces en nuestra casa).

1. Nazareteko urian dago
 Dama eder bat jarririk (bis)
 Izena bere Maria dauko,
 Dago graziaz beterik (bis).
 Eta bart Belenen,
 eta bai Belenen,
 jaio da Jesus Nazaren.
2. Aingeru Grabielek esan eutsan:
 "Semea jaioko yatzu;
 Munduko Salbadorea da-ta
 Jesus deituko dotsazu".
 Eta bart Belenen, e.a.
3. "Espirituaren gerizeaz,
 Aita Eternoaren Seme:
 Zeruetao podere danak
 Ak izango dituz bere".
 Eta bart Belenen, e.a.
4. San Juanek, Mariak ebanean
 Isabel lenen bisitau,
 Jesusen aurrean zala-eta
 Eutsan sabelean saltau,
 Eta bart Belenen, e.a.

5. Maria ta San Josepe doaz
Belenera izena emoten:
Ostaturik topau ezin eta
Sartzen dira aterpe baten,
Eta bart Belenen, e.a.

6. Belenengo urian eta
Gabon gabaren erdian,
Birjina Andra Maria egoan
Kontsolamentu andian.
Eta bart Belenen, e.a.

7. Orduan emon eban mundura
Miñik bapere artu gabe,
Jesus Nazaren, Jangoiko eta
Zeru ta lurraren jaube.
Eta bart Belenen, e.a.

8. Aingeruak artzáñari eta
Izarrak Erregéari
Laster jakin izan zan munduan
Jaiotza andi onen barri
Eta bart Belenen, e.a.

9. "Jesus Jangoiko! Gauaren otza!
Jausten da liñetazia.
Ordu bi orretan olan bada,
Il da ganadu guztia.
Eta bart Belenen, e.a.

10. Korraletako ardiak bere
Dantzan zebizan orduan,
Salbagillea jaio ta geugaz
Bizi dalako munduan.
Eta bart Belenen, e.a.

Las estrofas 1, 6, 9 y 10 son populares y figuran en el "Cancionero Vasco" de D. Resurrección M. de Azkue. Las otras estrofas las he compuesto yo adaptando el estilo de las populares. La música que aparece en el cancionero es una variante de la usada en nuestra casa, y no tan bonita. De la música hay otra variante en algún otro Cancionero con la siguiente letra de Nochebuena y melodía más monótona:

“Gabon gabea oituten dogu
 Guztiok apari ona:
 Besigu, lebatz, makallu-saltza,
 Bakotxak berak al dauna.
 Gero, txurrunplin-plan, ardau ta patxarra,
 Katuak artuta, zabu-zabuka”.

Ya, para terminar, a fin de que se dé cuenta de mi estilo en poesía, que no es precisamente para figurar en ninguna antología, he aquí otra letra aplicada a un vals de una película que hizo furor: (no es traducción):

LANDER MAITEMINDUA (VALS)

Bidaztiak udan gerizea,
 ur-baretan untziak aizea,
 batez bere landerrak billatzen
 dauan legez abaroa;
 mundu onetan gogait egiñik,
 jasan baidot asko samiñik
 ene biotz gaizoak zugana
 bultzez, maitea, naroa.
 Izan zakidaz abaro,
 geriza eta aize naro
 ene bizitza lander samin onetan;
 itxi egidazu uste izaten
 izango gareala egun baten
 zu nire erregin, ni zure senar ta jopu benetan.

- LIZARDI, ik. Agirre, Jose Maria.
- LON Aba, ik. Arteaga, Lon.
- LORAMENDI, ik. Arana Ezpeleta, Juan.
- Lotazilla – 1951*, KAEgutegia 1 (1951) 119-121.
- Lotazilla 1952*, KAEgutegia 2 (1952) 129.
- Lotazilla 1953*, KAEgutegia 3 (1953) 28.
- Lotazilla 1954*, KAEgutegia 4 (1954) 18.
- Lotazilla 1955*, KAEgutegia 5 (1955) 19.
- Lotazilla 1956*, KAEgutegia 6 (1956) 18.
- Lotsia*, KAEgutegia 5 (1955) 56.
- LUZIO, ik. Agirre, L. (D).
- M. Y., *Ediskide txikiak*, KAEgutegia 3 (1953) 86-87.
- M., *Teresa deunaren biotzkadak*, KAEgutegia 3 (1953) 105-106.
- Maitasun-neurriak*, KAEgutegia 3 (1953) 37.
- Mandoa mando gañean*, KAEgutegia 2 (1952) 70.
- MANTEROLA, G., *Edurtzan...*, KAEgutegia 5 (1955) 22-23. (Olerkia).
- MANZISIDOR, Aita, *Ama Birjina'ren mantupean*, KAEgutegia 1 (1951) 8.
- , *Kana'ko esteyak*, KAEgutegia 1 (1951) 45-46.
- MAÑARIKO, ik. Bustintza Ozerin, Errose.

MAÑORTU, ik. Agirre, L. (D).

MAORTUA, Miren ("Aldakaitz"), *Bederatzigarrena*, KAEgutegia 6 (1956) 58-61.

—, *Dendari artean*, KAEgutegia 5 (1955) 20-21.

Markiñako ipuñak, KAEgutegia 3 (1953) 39-40.

MARTIARTU, ik. Uriarte, Martin.

MARTIN, Aita, ik. Uriarte, Martin.

Mezea, KAEgutegia 5 (1955) 73-74.

Miin gaiztoa, KAEgutegia 1 (1951) 106.

1952'garren urteko egutegia, Irakurleari, KAEgutegia 2 (1952) 4.

MISTRAL, G., *Jaungoikoaren arrabita*, KAEgutegia 2 (1952) 63.

Mixiolari, mixiolari!, KAEgutegia 5 (1955) 36.

MOGEL, B., *Eskua, oñak ta sabela*, 4 (1954) 76-77.

MOGEL, Juan Antonio, *Aume esan onekoa ta otso gaiztoa*, KAEgutegia 4 (1954) 39. (Bertsoak).

—, *Txakur-katu adiskideak*, KAEgutegia 4 (1954) 39. (Bertsoak).

Muxika Ormetzeko txakoliña, KAEgutegia 5 (1955) 92. (Bertsoa).

Neskatilla ta bere apaina, 1 (1951) 33.

Nor burutsuago?, KAEgutegia 1 (1951) 26.

Nor zara?, KAEgutegia 5 (1955) 93.

NORBAIT, *Oldozkunak*, KAEgutegia 6 (1956) 19.

NORBEITEK, *Zoriona*, KAEgutegia 3 (1953) 58.

O., I., *Biotz-agurra*, KAEgutegia 1 (1951) 71.

OLAGOITI, ik. Barandiaran, Emiliano.

Oldozkunak, KAEgutegia 2 (1952) 56.

ONAINDIA BASETA, Santiago ("Baseta"), *Andra Maria'ren gurasoak*, KAEgutegia 1 (1951) 84.

—, *Andra Maria'ren jayotza*, KAEgutegia 1 (1951) 95-96.

—, *Sortzez Garbia*, KAEgutegia 1 (1951) 125-126.

- ONAINDIA BASETA, Santiago (“Aita Jakoba”, “Igotz”, “Otarri”), *Aloka*, KAEgutegia 1 (1951) 41.
- ___, *Andra Maria*, KAEgutegia 6 (1956) 101-105.
- ___, *Bizitzako goiza*, KAEgutegia 2 (1952) 62.
- ___, *Eba eta Maria*, KAEgutegia 4 (1954) 52-54.
- ___, *Eskuak uts*, KAEgutegia 6 (1956) 47-48. (Olerkia).
- ___, *Maite sugar bizia*, *Joan Gurutzeko*, KAEgutegia 5 (1955) 52-54.
- ___, *Oi Jauna!*, KAEgutegia 1 (1951) 21.
- Ondarrabi erri txikia*, KAEgutegia 4 (1954) 78. (Bertsokak).
- Ondo merezia*, KAEgutegia 3 (1953) 75-76.
- Ordia, balkotik erorita*, KAEgutegia 2 (1952) 64.
- ORIXE, ik. Ormaetxea, Nikolas.
- ORMAETXEA, Nikolas (“Orixe”), *Lioaren nekeak*, Karmen 1 (1951) 94. (Olerkia).
- ___, *Mari*, KAEgutegia 2 (1952) 37-38.
- ORMAETXEA ALDANA, Pedro (“Ormalda”), *Lezo’ko Kristo deuna. Eresia*, KAEgutegia 1 (1951) 35. (Olerkia).
- ___, *Egia argi*, KAEgutegia 1 (1951) 46.
- ___, *Jai aundi-txikiak*, KAEgutegia 1 (1951) 46.
- ___, *Sariaren ezaugarria*, KAEgutegia 1 (1951) 77.
- ___, *Ur neurtzalle ona*, KAEgutegia 1 (1951) 87. (Olerkia).
- ORMALDA, ik. Ormaetxea Aldana, Pedro.
- Orrilla – 1951*, KAEgutegia 1 (1951) 49-51.
- Orrilla 1952*, KAEgutegia 2 (1952) 55.
- Orrilla 1953*, KAEgutegia 3 (1953) 14.
- Orrilla 1954*, KAEgutegia 4 (1954) 11.
- Orrilla 1955*, KAEgutegia 5 (1955) 12.
- Orrilla 1956*, KAEgutegia 6 (1956) 11.
- Osasuna izateko*, KAEgutegia 2 (1952) 31.

Ostoa ta bar artian, KAEgutegia 1 (1951) 128a-b. (Bertsok; musika: Aita Donostia).

OTARRI, ik. Onaindia Baseta, Santiago.

Otsaila 1953, KAEgutegia 3 (1953) 8.

Otsaila – 1951, KAEgutegia 1 (1951) 19-21.

Otsaila 1952, KAEgutegia 2 (1952) 22.

Otsaila 1956, KAEgutegia 6 (1956) 8.

Otsaila 1954, KAEgutegia 4 (1954) 8.

Otsaila 1955, KAEgutegia 5 (1955) 9.

Otso urdina, KAEgutegia 2 (1952) 131.

OTXABIO, *Kaiku eta kirten*, KAEgutegia 4 (1954) 48-49.

—, *Txepetxa ta artza (Grim anaien ipuietatik euskeraldua)*, KAEgutegia 3 (1953) 83-84.

Parkamenak, KAEgutegia 1 (1951) 7-8.

PATIRKI, ik. Larrañaga, Patirki.

Patxada aundidun ingles bat!!, KAEgutegia 2 (1952) 60.

Pedro donearen eriotza, KAEgutegia 1 (1951) 66.

Perra galdua, KAEgutegia 2 (1952) 107.

Peru moskor, KAEgutegia 2 (1952) 75.

Pilsuski ta sinesbakoa, KAEgutegia 2 (1952) 104.

PIO XII, AITA SANTUA, *Idazkia. Karmen'go Eskapularioaren VII'garren eunurte-burua dala-ta*, KAEgutegia 1 (1951) 5-6.

Pospolina ta olo-burua, KAEgutegia 2 (1952) 74-75.

S., K., *Ez dezu maite*, KAEgutegia 5 (1955) 39. (Olerkia).

Salve Mater (Agur Ama errukiz betea), KAEgutegia 1 (1951) 88b (Eusk.: Lino Akesolo).

Sapaburuak, KAEgutegia 2 (1952) 49.

SARRIEGI, Fidel, *Amama zanari...*, KAEgutegia 4 (1954) 33. (Bertsok).

—, *Mixiolariak*, KAEgutegia 4 (1954) 50-51. (Olerkia).

- Saski-Naski*, KAEgutegia 2 (1952) 21, 32, 44, 54, 67, 78, 89, 101, 112, 121, 128, 136,
- Senar-emazteak auzitegian*, KAEgutegia 2 (1952) 23.
- Sendi deunaren jayekoa*, KAEgutegia 2 (1952) 11.
- SIMON STOK, Deuna, *Karmeldar guztiai egindako eskutitza*, KAEgutegia 1 (1951) 4.
- Surtasun-agaka*, KAEgutegia 2 (1952) 60-61.
- Taberneru zurra*, KAEgutegia 3 (1953) 48.
- Teresa deunari*, KAEgutegia 1 (1951) 128a. (Bertsoak; musika: Aita J. Domingo).
- THERESIUS, *Teresatxo donea. ¿Zergaitik ain baitatua?*, KAEgutegia 3 (1953) 88-90.
- Txakurrak eta azeria*, KAEgutegia 2 (1952) 62.
- TXANKERRE, Nemesi, *Ilario belarri motz*, KAEgutegia 6 (1956) 99.
- Txantxangorria*, KAEgutegia 3 (1953) 108.
- Udabarria*, KAEgutegia 2 (1952) 51. (Bertsoak).
- Ulertzen ez dodazan amar gauza*, KAEgutegia 1 (1951) 11.
- Umien otoitza*, KAEgutegia 3 (1953) 35-36.
- URIARTE, Martin ("Martiaritu", ("Aita Martin")), *Baserri gaiak [solo lanak, Baserri-lanak]*, KAEgutegia 1 (1951) 16, 27, 37, 47, 57, 67, 77, 87, 97, 107, 117, 131; 2 (1952) 12, 18-20, 29-30, 34, 42-43, 52-53, 56-58, 75-77, 86-87, 98-99, 110-111, 119-120, 123, 126-127, 134-135; 3 (1953) 7, 9, 11, 13, 17, 19, 21, 25, 23, 27, 29; 4 (1954) 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 100,
- , *Baserritarren esakun zarrak*, KAEgutegia 2 (1952) 31, 43, 53, 59, 87, 100, 135,
- , *Egi biribillak*, KAEgutegia 1 (1951) 18, 28, 38, 48, 58, 68, 78, 88, 98, 108, 118, 127; 2 (1952) 23, 46, 59, 69, 80, 91, 103, 114, 130; 3 (1953) 32, 45, 55, 60, 67, 79-80; 4 (1954) 21, 28, 44, 55, 79; 5 (1955) 21, 38, 47, 54; 6 (1956) 69, 86, 100, 110,
- , *Mariaren biotz garbi-garbia*, KAEgutegia 5 (1955) 61-64.

___, *Terese deuna*, 4 (1954) 74-75.

URIONAGUENA GARRO, Jose Sotero (Aita Errapel), *Biotz-errea*, KAEgutegia 5 (1955) 108.

___, *Ez egurrik, ez ikatzik, ez gasoliñarik*, KAEgutegia 4 (1954) 35.

___, *Gertatua*, KAEgutegia 4 (1954) 27-28.

___, *Irutasun deun ezkutukia*, 4 (1954) 65.

___, *Kizi-indarra (Atomismo)*, KAEgutegia 5 (1955) 98-100.

___, *Mixiño eguna (Urtarrilaren 24'an)*, KAEgutegia 6 (1956) 84.

___, *Mundu berriaren zai*, KAEgutegia 5 (1955) 69.

___, *Zeure oñak zaitu*, KAEgutegia 4 (1954) 29-21.

URRE, *Berriz'ko erriari*, KAEgutegia 6 (1956) 33-35. (Bertsoak).

Urrilla – 1951, KAEgutegia 1 (1951) 99-101.

Urrilla 1952, KAEgutegia 2 (1952) 113.

Urrilla 1953, KAEgutegia 3 (1953) 24.

Urrilla 1954, KAEgutegia 4 (1954) 16.

Urrilla 1955, KAEgutegia 5 (1955) 17.

Urrilla 1956, KAEgutegia 6 (1956) 16.

Urtarrilla – 1951, KAEgutegia 1 (1951) 9-11.

Urtarrilla 1952, KAEgutegia 2 (1952) 9-10.

Urtarrilla 1953, KAEgutegia 3 (1953) 6.

Urtarrilla 1954, KAEgutegia 4 (1954) 7.

Urtarrilla 1955, KAEgutegia 5 (1955) 8.

Urtarrilla 1956, KAEgutegia 6 (1956) 7.

Urteko illak, KAEgutegia 2 (1952) 5-6.

X'garren Pio Aita Santua, KAEgutegia 2 (1952) 83-84.

XALOKIN, ik. Batiz, Bizente (Nikolas).

Zai-saku!, KAEgutegia 1 (1951) 74.

Zazpi lotiak (Irakurgaia), KAEgutegia 5 (1955) 109-110.

Zazpi urre-txindiak, KAEgutegia 2 (1952) 51.

- Zein zurrago?*, KAEgutegia 3 (1953) 43.
Zenbat Jaungoiko?, KAEgutegia 2 (1952) 64.
Zenon'en ikaslea, KAEgutegia 1 (1951) 23.
Zer aiz i?, KAEgutegia 3 (1953) 36.
Zer ikusi axe ikasi ta..., KAEgutegia 6 (1956) 53.
Zeru goigoitik [Has.], KAEgutegia 2 (1952) 58. (Bertsoak).
Zerua, KAEgutegia 3 (1953) 45.
Zeruko Ama, izar argia [Has.], KAEgutegia 2 (1952) 2. (Bertsoak).
Zornotzako Karmeldarren Ikastetxea, KAEgutegia 1 (1951) 116.
Zorrak atera, KAEgutegia 6 (1956) 81.
Zortzi zorionak etxean, KAEgutegia 1 (1951) 131.
Zu bakarrik maite, KAEgutegia 5 (1955) 105. (Olerkia).

**LAPURDIKO EMAKUMEEI
JUSTIZIA EGIN DIEN
PASTORALA**

Pastoral guztietan berrikuntzak izaten diren arren, aurtengo pastoraLEAN berrikuntza handiak itxaro genituen, eta egia esateko, hizkuntzaren gordintasuna kenduta, ez dira horrenbeste-koak izan; eta hobeto horrela agian, honek esan nahi baitu pastoralara etengabeko berritzean den antzerki mota dela. Bada-ki betikotik edaten, baina beti aitzinera begira. Azken hamar-kadetako pastoral-idazleek eta errejentek¹ era guztietako berri-kuntzak landu eta burutu dituzte, ez dira inoiz antzinako mol-deetan estekaturik geratu.

Etxahun-Iruri izan zen, zalantzarik gabe, pastoralera berri-kuntza handiena ekarri zuena, ordura arteko süjetak² –sain-duak eta Frantziako pertsonaia handiak– baztertu zituenean, euren tokietan euskal pertsonaiak jarritz. Orduz geroztik, euri ugari bota badu ere, dena progresio logiko batez etorri da. Zu-beroak aunitz zor dio pastoralari, gizarte kohesioa eta auzola-na, besteak beste, eta Etxahun-Irurirekin hasitako pastoral be-rririari euskararen prestigioa eta berrindartzea.

¹ Errejenta: Pastoral zuzentzen duena, pastoral-zuzendaria.

² Süjeta: Pastoraleko pertsonaia nagusia.

Pastoral berri honetan badira estilo ezberdinak, prefosta!. Batzuk besteak baino klasikoagoak dira, neurri eta molde zaharrei lotuagoak; badira pastoralaren indarra musikan eta dantzan bereiziki oinarritzen dutenak, eta badira ere, istorioari eta hizkuntza landuari izugarrizko garrantzi handia ematen diotenak. Estilo kontua, besterik ez da.

Aurtengo pastorala biziki berezia izan da peredikü³ eta azalpenetan erabilitako hizkuntzaren gordintasunaren aldetik. Honek bizitasun handia eman dio, eta 1609. urtean Frantziako Henrike IV.ak Lapurdin bultzatu zuen zapalketa dakarkigu gogora, bere lazarritasun osoz. XVII. mendeko Lapurdi hartan, etxeko jaunek botere handia zeukaten eta Uztaritzen biltzen zen biltzarraren bitartez, herrialde osoa gobernatzen zuten, benetako gobernu moduko bat osatuz. Lapurdiko foru eta usadio zaharrak ziren sistema honen oinarria. Urtubiako eta Senpereko jaunek, gerra garaiko agintea izateaz aparte, ez zuten bestelako aginterik, eta hau ere aski mugatua eta kontrolatua, Uztaritzeko Biltzarrak aunitzetan azken hitza ukaiten baitzuen. Bi jauntxo hauek bekaitzaz begiratzen zuten Frantzia alderat, hango nobleen botere handia nahi baitzuten beraientzat.

Hori dela eta, Lapurdiko etxeko jaunak kolpatu nahirik, Henrike IV.gana jo zuten. Urtero, Lapurdiko bost mila gizon inguru joaten ziren Ternuako itsaso izoztuetara bale-arrantzan. Eta horretaz baliatuz, belar-sendagintza, sinesmen zaharrekin loturiko tradizio eta erritoak... jorratzen zituzten emakumeak sorgintzat harturik, salaketa ezarri zuten frantses erregearen aurrean. Salaketa hark ez zuen inolako funtsik, hala eta guztiz ere, erregeak hori guztia jakinki, Pierre de Lancre bidali zuen Lapurdira epaile nagusi eta errege ordezkari gisa. Erregeak be-

³ Peredikü: Edo prediküa. Pastoraletan, bukaera aldera, azken jelkaldiaren ondoren, pastoralaren mezua laburbiltzen duen eta irakaspen bat aditzera ematen duen kobla multzoa.

re boterea handitu nahi zuen, eta horretarako lapurtarren autogobernua kolpatu beharra zeukan. De Lancre Bordelera lan egitera joandako euskal familia baten ondorengoa zen. Familiaren deitura Rostegui (Arostegi) zen, eta Pierren aitatxiak aldatu zuen, orduz geroztik eraman zuten De Lancre deitura frantsesaz. Pierre de Lancrek euskara eta euskaldunak gorroto zituen, eta bereiziki euskal emakumeak, beraiek baitziren euskara eta euskal tradizioak belaunaldi berriei transmititu egiten zizkietenak. Krudela, paranoikoa eta misogenoa zen, eta ankerkeria handiz jokatu zuen Lapurdin.

Emakumeak jazarri, atxilotu eta gupidarik gabe torturatu egin zituen, eta horietako aunitz bizirik erre. Horixe izan zen Lapurdin egin zuen balentria. Ez dakigu zehazki zenbat pertsona erre zituen, batzuek 20 bat emakume eta bizpahiru euskal apaiz erre zituela diote, beste batzuek askoz gehiago erre zituela defendatzen dute. Jazarriak eta torturatuak zazpiehun bat izan zirela esaten da.

Azkenean, Baionako apezpikua zen Bertrand Etxauze baigorriarrak, bere eremuko apaiz zenbait erre zituela ikusirik, erregearengana jo zuen De Lancre Lapurditik eraman zezala eskatuz. Badirudi hori izan zela, ordurako Ternuatik itzulirik ziren bospasei mila gizon horien haserrealdiarekin batera, De Lancre Lapurdi uztera behartu zuen arrazoietakoa bat.

Gertaera lazgarri hauen 400. urteurrena dela eta, Tittika Rekaltek Lapurdiko Belagileak hartu ditu pastoral süjeta gisa. Pastoralean erabili duen hizkera gordina benetako tragedia haren oihartzuna bizi-bizi zabaltzeko tresna ezin hobea suertatu delarik. Gai honek, bestalde, badu gaurkotasun handia. Ikusi, besterik ez dugu egin behar, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean arrotz epaileek gaur euskaldunekin duten jokaera.

Pastoral hau uztailaren 26an jokatu zen lehen aldiz eta agorrilaren 2an bigarrenez. Ni lehenengora joan nintzen Iñaki lagun bizkaitarrarekin batera. Goizean ohiko meza eta ondoren-

go karrikaldia edo zintzarrada izan ziren. Arratsaldeko 3,30etan hasiera eman zioten pastoral saioari. Sargorio handia zen arren harmailak beterik zeuden, baita aurrez aurreko harmailaren gibelaldean bi haritz sendok eskaintzen zituzten gerizpe-gune goxoak ere. Esan dezadan harmaila hau mendi mazela baten inklinazioaz baliatuz zurez eginak zituztela, Aloze-Ziboze-Onizeko herritarrek, garai bateko pastoral zaharretan egiten omen zen bezala.

Oholtzako deabrüa⁴ ere, berezi samarra zen, ohiko gorribeltza izan beharrean, kolore anitzetakoa eta neurriz handiagoa baitzen. Kristal ezkatez egindako begi handi-handiak zituela zirudien. Polita zen oso.

Belagile edo sorgin nagusia Nernatenako Mariatxo izenekoa zen eta buruan garai hartan euskal emakumeek burua estaltzeko zerabilten kapela falikoa zeraman, baina kapelako buztanak zakil baten itxura ikaragarri handia zuen, garai hartako erotismo libreagoaren berri emateko nahita horrela diseinatua pastoralerako. De Lancrek Lapurdiko emakumeak sorginak zirela frogatzeko zerabiltzan argudioetako batzuk honako hauek ziren:

- 1.– Belarrak erabiltzen zituzten ukendu eta edari sendagariak egiteko.
- 2.– Euskaraz, hau da, deabruaren mintzairaz mintzo ziren.
- 3.– Adan eta Ebak paradisuan jan zuten sagar debekatuaren zukua, hau da, sagardoa edaten zuten.
- 4.– Dantza eta festetan sexu harreman libreak erakusten zituzten, edo horrela iruditzen zitzaion, bederen, De Lancre hertsu zoroari.

⁴ Deabrüa: Oholtzako ate gorriaren gainean dagoen deabru itxurako panpina. Süjetaren kontrako zerbait gertatzen denean, bizkarrean zintzilik duen sokatik tiratuz dantzatzen dutena.

- 5.– Gizonak Ternuan zirenean, Lapurdiko emakumeek gobernatzen zuten etxe eta lurretan, gizonaren rola harturik. Eta hori frantsesen ikuspegitik sinestezina zen.
- 6.– Deabruaren gurutzea, hau da, lauburua erabiltzen zuten.
- 7.– Euskal sinesmen zaharretako jainko-jainkosak eta naturako indarrak gurtzen zituzten, eta errito eta tradizio zahar ugari praktikatzen.
- 8.– Buruan bekatua zeramaten, inolako lotsarik gabe, hau da, lehen aipaturiko zakil itxurako kapela.

Eta azken hori da Ttittika Rekaltek Nernatenako Mariatxoren kapelaren bidez oroitarazi eta aldarrikatu nahi izan duena: sexuaren erabilera librea, hain zuzen ere.

Pastoral hau ez da Ttittikak egin duen lehena, 2005ean, Ahüski mendiko zulo batean, agertoki guztiz natural batean, eta zuzien argipean, Oiherkoren trajeria izenekoa jokatu baitzen. Oraingo hau, beraz, jokatzen den bere bigarren pastoral da, eta Oiherkoaren mundu magikoaren nolabaiteko jarraipena dela esanen nuke nik.

Pastoral honen errejenta Ttittikaren anaia den Jean Pierra Rekalte izan zen, eta ohikoa duen bezala, biziki lan ona egin zuen. Emakume jostunen buru den Erramun Gartzia-Zabalegik, urtero bezala, bere trebezia handia erakutsi zuen, janzkerak ederrak, kolore handikoak eta garaiarekin ongitxo uztartuak egin baitzituzten. Mixel Etxekoparrek, Niko Etxartek eta Oihan Oliarjek kantu moldatzaile eta irakasle ezin hobeak direla erakutsi zuten oholtzara igo ziren aldiro. Jokulariek ere, maisuki egin zuten lan. Ene irudikoz indar handiko pastoralak izan zen,, adierazkortasun eta iradokizun handikoa.

Berrikuntzen aldetik aipa ditzadan honako hauek:

- 1.– Hizkeraren gordintasuna. Hona hemen kobla zenbait adibide gisa:

47.– Kabale balde dira
 Urden erditan ohatzen
 Denbora gehiena xuritzen düe
 Bata besten tzikhokatzen.

48.– Urdaña ederrik ere bada
 Titiak beti tzilintzau
 Süsaltzen dira entzün baiko
 Gizonen ganik “txauri txao”!

50.– Koskollik batere gabe dira
 Gure gizon ükül horik
 Nago mündüan badenez
 Egiaz horik bezalakorik!

2.– Koblen gogortasuna, publikoaren erantzun eta haserrealdia
 bilatzen zutenak. Adibidez:

126.– Emazteak behar dü jakin üken
 Egoiten bere betiko leküan
 Sorginkeria horiek üko egin
 Ta jarri gizonaren zerbütüan!

3.– Oholtzan, ohiko deabrü gorri-beltzaren ordezt, koloreetako
 deabrüa. Lehen aipatu duguna.

4.– Aurrez aurreko harmaila, zurez eta mendi penditzaz balia-
 tuz egina zen.

5.– De Lancreren bakarraldia hizketan (136), inolako koblarik
 gabea. Bere mezuan biziki gogorra zena. “...bena debrüaren
 eskütik elki, kosta ahala kosta, süiaz bada süiaz...”

6.– Süjeta ez zen pertsonaia bakarra, ohikoa den bezala, kolekti-
 bo bat baizik: Lapurdiko belagileak edo sorginak. Patrick Kehei-
 llek Barkoxen, 1998. urtean, jokatu zen pastorealean honen au-
 rrekaria burutu zuen, lau süjeta eta lau aro erabili zituen.

7.– Koblen bukaerako errepikapena zinez fite egiten zuten,
 Mañukortak bertsogintzan darabilen moldeaz gogora zekarkiguna.

8.– Azkeneko urteetan izan dira neskak satan-dantzetan, baina oraingoan janzkera berezia zeramaten: gona beltza, txanbra eta txapel gorriak, eta borla beltza.

9.– 13. jelkaldian sarrera atabalez bideratu zen, lehen kobla izugarri gogorra izan zelarik:

148.– Herroka bite zale honarat
 Alü süsal urdaña horik
 Eta laster minta bite
 Balin badüe erraitekorik.

10.– Pastoral-libürüan tartekaturik azaltzen diren marrazkiak. Egilea Gonzalo Etxebarria izan da, eta maisukiro jorratu ditu sorginekin eta torturekin loturiko irudiak. Bada horietako bat, amerikarrek irakiarrekin egindako tortura basatiak gogora ekartzen dituenak. (123. or.)

Dena den, aipatutako berrikuntza hauek guztiak izugarri ongi integratuak ziren pastoralaren egituretan. Horixe izan da, Tittikak eta lan talde osoak izan duten lorpenik handiena.

Kantuak eta dantzak biziki ederrak izan ziren. Aipa ditzadan lehenengo kantorea, bale arrantzaz ziharduena. Bazuen indarra eta arras adierazgarria zen. Hauxe izanen da, nire ustez, euskal kantutegi herrikoian laster sartuko den abestia. Letra Tittikarena da eta doinua Mixel Etxekoparrena. Bigarren kantorea ere aipatzeko modukoa da. Bere bukaera oraindik dabilkit belarrietan: "...isilik egoitea zaükü galteginik" 8. jelkaldian⁵ izan zen artzain kantorea⁶ ederra izan zen zinez. Hori bai entzun-ikusleok ohiko artzanoraren⁷ eta taloen falta sumatu genuen. Artzainekin eta ardiekin batera oholtzara igo zen asto zuria eder bezain burugogorra suertatu zen, ez baitzuen oholtzatik jaitsi nahi. Azkenean bost gizonen artean, tiraka eta bultzaka jaitsi behar izan zutelarik.

⁵ Jelkaldi: Pastoralaren kapitulu modukoak.

⁶ Kantore: Kantua zubereraz.

⁷ Artzanor: Artzain-zakurra.

10. jelkaldian Telesforo Monzonen Haize hegoa izeneko kantu ederra sartu zuten, baina zubereraz. Hona hemen Alozen entzun genuen bertsioa:

Aize hegoa gaü epela
 Argizagian⁸ argi
 Mutxurdinak leihoetan
 Hegatzean⁹ gatü bi
 Bide ondoan zonbait kanta
 Gaüerdiz arduari
 Hargaineko sorgin zaharra
 Keinüka argizagiari.

Aipatzekoa da ere, De Lancreren ihesa kontatzeko Mixel Etxekoparrek egindako dantza ederra. Dantza hau gure plaza eta erromerietan dantzatzeko modukoa da. Ene ustez, erakutsi eta zabaldu beharko litzateke. Badu letra esanguratsua, Tittikak egina. (137. or.) Azken kantorea (155. or) ere, eder-ederra iruditu zitzaidan. Aloze, Ziboze eta Onize Gaine herrien izpiritua eta auzo-lana maisuki laburbiltzen baititu. Egilea Onize Gainen bizi den Niko Etxart kantari famatua da.

Hor axolbea dügü oroek
 Izan dadin arogaitz edo aize
 Azkarki bateginez hiruek
 Hona Aloze-Ziboze-Onize.

Azken perediküan, 195. koblan, Tittikak Euskal Herria bitan banatzen duten estatuak gogor kritikatu zituen:

Eüskal Herrian egün
 Ez da bestelakorik ikusten
 Estadoen beharri gorrek
 Süari sü beitätue emaiten.

⁸ Argizagi: Ilargia, iretargia.

⁹ Hegatz: Teilatua zubereraz.

Azkeneko bi koblak (197 eta 198) euskararen aldeko aldarri garbia izan ziren:

Azkenik ohar ttipi bat
 Heben zideen güzier
 Gure mintzajearen geroaz
 Interes zerbait düener.
 Aloze, Ziboze eta Onize
 Eüskarari gira etxekiak
 Dakian bakotxak mintza dezala
 Goza dezan bihar haurñiak¹⁰.

Alozeko pastoralak hiru oren iraun zuen, eta hiru orduetan zehar, publikoak adi jarraitu zuen, esku-zarta handiak eskainiz. Bukaeran ere, txalo zaparrada handia izan zen, pastoralaren mezua, edertasuna eta bertan parte hartutako guztien lan handia gogo onez sarituz. Gero izan ziren ohiko antxerak¹¹. 200 eurotan hasi ziren eta Ezpeizek irabazi 1900 euroekin. Horrela, joan den urteko Xiberoko Jauna pastoraletan parte hartu zutenak oholtzara igo ziren moñeñak eta aintzina-pika dantzatzera.

Buka dezadan artikulu hau Ttittikak Monzoni Haize hegoa kantuarien bidez egindako aipua gogoraziz. 2010eko pastoralak Barkoxen jokatu da. Keheillek egina izan da, Zahatüa izenekoa; eta 2011n Larrainen, Johaiñe Bordaxarrek idatzitako Telesforo Monzon izenekoa. Beraz, badugu etorkizun ederra pastoralendako hurrengo bi urteetan.

Urruñan, 2009ko agorrilaren 7an.
Joseba Aurkenerena Barandiaran

¹⁰ Haurñi: Haurtxoa.

¹¹ Antxerak: Pastoralak bukatzen denean egiten den enkante modukoa. Honen helburua pastoralak egin duen herria sose laguntzea da. Antxeretan irabazten duen herriak eskubidea du bere herritarrek oholtzara igo daitezen eta moñeñak eta aintzina-pika dantzatzu zein dantzari on diren erakuts dezaten.

**KARMELDARREN ORDENA.
JESU KRISTOREN GOGOKO IZANEZ BIZI
MARIA BIRJINAREN BABESPEAN**

Hasierako ohartxoak

“Karmel” aldizkariaren irakurleak gogoan izango du Israelgo Karmel Mendiaz jardun genuela aldizkariaren 2007ko 3. eta 4. zenbakietan. Karmeldarren Erregelaren 8. mendeurrena zela eta, Erregelaren beraren euskarazko itzulpena argitaratu genuen, baita efemeride hori zela-eta, bi Jeneralek –Karmeldar Oinetakodunenak eta Karmeldar Oinuts edo Teresiarrenak– elkarrekin egindako gutunaren itzulpena ere. Zenbaki berean (*Karmel* 2007-3) beste lan hau zetorren: “Karmel Mendia eta Karmeldarrak, Erregelaren 8. mendean”. Hurrengo zenbakian (*Karmel* 2007-4), “Lur Santuetara erromes”.

Oraingo honetan, aurreko lan haien osagarri, ikuspegi historikoa agertu nahi dugu: Israelgo Karmel Mendiko hasierak bate-tik eta Euskal Herrian Ordenak izan duen garapena bestetik.

1. JATORRIA ETA ESPIRITUA (XII-XIII. MENDEAK).

Karmeldarren Ordenak halako biziera erlijiosoa egiten zen lekuaren izena du: Karmel mendia da hori (Mediterraneo on-doko mendikatea, Haifa-ren hegoaldean hasita, ia 25 km luze



izanik, altuerarik handiena 552 m-koa duena); hainbat jainkori (Baal, Zeus, etab.), eta batez ere Israelgo Jainkoari, Jaunari, sagaraturiko mendia.

Erlijosio izateko berariazko erari hasiera eman ziona Elias profeta handia izan zen; Bibliak haren egintza ospetsua gogorazten digu (Karmel mendiko sakrifizioa), egiazko Jainkoaren, Jaunaren, ahalmena erakutsiz eta gezurrezko jainkoen ezina agerian utziz (1 Erg 18); horregatik mendi hari Elias jaunaren mendia ere deitu izan zaio. Profeta honek (IX. mendean K.a.), Jainko biziarenganako fedean garrez, galzorian zen egiazko Jainkoaren gurtzaren alde egin zuen... Jainkoaren presentzia biziaren lekuko bihurtu zen, jazarpen latzak eraman beharra izan bazuen ere. Haren bizitza berak esan zituen hitz hauetan bil daiteke: „Garrez gartua naiz armadetako Jainko

Jaunarentzat“ (1 Erg 19, 10. 14); esaldi hau karmeldar ikurrean ere ageri da, erlijioso izateko era horren ideia nagusi bezala: Jaunaren („Neuk erakutsiko dizut nor naizen“ esan nahi du) aurrean bizi, hau da, Jainko pertsonal, bizi eta maitatzailearen aurrean, bakoitza pertsonalki berari eskaintzea nahi duen haren aurrean.

Kristau aroan, Karmel Mendia leku santutzat zuten; Eliz Gu-rasoen tradizioan Elias profeta monje-bizitzaren eredutzat har-tzen zen, eta Karmel Mendia leku santutzat¹. Beraz, ez da ha-ritzekoa menderen mendetan imitatzaileak izatea.

Jadanik IV-VII. mendeen artean, Palestinako mugimendu monastikoan, monje bizantziarrak Palestinan kokatu ziren. Bai-na Kosroe II.a pertsiarra han indarrez sartzean, 614. urtean, monasterioak arpilatuak izan ziren. Karmel Mendian monaste-rioak izan zirelako testigantzak badira. Indusketek Eliseoren monasterioa zegoela egiaztatzen dute eta VI. mendeko erro-mes batek ere ematen du haren lekukotasuna. Eremitarrak bi-zi ziren beste ingurune bat ere bazen... Karmel Lurmuturrean Eliasen omenez eraikitako monasterioa zegoen; aurkikuntza arkeologikoek inperioaren azkenaldian kokatzen dute, Justinia-noren agintaldia baino geroago. XII. mendean erromesek be-ren kontaketatik “Eliassen Haitzuloaz” hitz egiten digute, haren inguruan komunitate txiki bat bizi zela adieraziz. XIII. mendea-ren hasieran monje greziar eta siriarrak bizi ziren santa Marga-ritaren abadian.

Lehen gurutzadan Jerusalem hartu zuten, 1099an, eta Jeru-salemgo erreinu latindarra sortu. Palestinan mendebaldeko er-lijio-bizitzaren formak ezarri zituzten. 1187an Saladino musul-manak garaipen handia lortu zuen Hattin-en eta kendu egin zien latindarrei Palestinako lurraldea. Horrek inguru hartako

¹ Ik. Gregorio Nazianzeno santua, PG 21, 599; Jeronimo santua, PL 22, 583, 1076; Agustin santua, PL 40, 1306; Basilio santua, PG 32, 358.



lekaide eta eremutar bizitza ia guztiz galtzea eragin zuen; haie-tako asko ipar aldean, Karmel mendikate inguruan gorde ahal izan ziren. Hirugarren gurutzadan (1189-1192) latindarrek Akre (Akko) eta kostaldeko hegala hartu zuten, baina ezin izan zu-ten Jerusalem mende hartu. Saladinok eta Rikardo Lehoibiho-tzak hitzarmena sinatu zuten, hirirako sarrera libre uzten zue-na. Jerusalemgo patriarkak Akre-n ezarri zuen bere egoitza...

Lehen gurutzadaz gero bi fenomeno izan ziren, geroko Kar-meldarren Ordenarentzat interesgarri izango zirenak: eremutar bizitzaren berpiztea Europako hainbat aldetan eta Palestinan, eta erromesaldiak egiteko joera, batez ere Lur Santuetara.

Gurutzaden garai honetan mendealdeko asko, Elias profetaren ospeak erakarririk, eremutar bihurtu ziren Karmel Mendian.

Benjamin Tuterakoak, 1163an, Eliasen haitzuloaren ondoan Profetari eskainitako kristau-eliza batez hitz egiten digu. 1174an, Juan Focas izeneko monje greziarrak monje talde bat aurkitu zuen haitzulo horren ondoan. Geroago, Jacques de Vitry Akre-ko gotzainak (1216-1228) bere *Historia Orientalis* liburuan Karmel Mendiko erlijioso-bizitzaz testu garrantzitsua utzi zigun: “Unos, movidos por el ejemplo del Señor elegían el Monte de la Cuarentena, donde Él ayunó, reclusos en unas celdillas. Otros ocuparon el Monte Carmelo, especialmente la ladera que domina la ciudad de Porfiria, hoy Haifa, junto a la llamada Fuente de Elías, no lejos del monasterio de Santa Margarita y se ocultaron, como abejas del Señor, en el alvéolo de unas celdillas elaborando en su colmena mieles de dulzura espiritual”². XII. mendearen azken hamarkadan eta XIII.aren lehen hamarkadan zen hori.

Karmel Mendiko eremutar laikoek batu beharra eta bizitza arautu beharra sumatzen zuten; hortik sortu zen Karmeldarren lehenengo dokumentu idatzia: S. Albertoren Erregela. Alberto 1206-1214 urteetan Jerusalemgo patriarka izan zen. Eremutarrek bizitza-araudia eskatu zioten Patriarkari, beren biziera finkatu nahi zuten-eta, baina elkarte gisa antolaturik finkatu nahi zuten. Eta horrela Patriarkak Karmeldarren Erregela idatzi zien³.

² Gaztelaniazko itzulpena Balbino VELASCO BAYON, *Historia del Carmelo español, Vol. I. Desde los orígenes hasta finalizar el concilio de Trento, c. 1265-1563*. Roma, 1990, 56. or.

³ Ik. ASV, Reg. Vat. 21, 465v-466r. Aita Santuaren kantzelaritzarako erregistro bat da. Ez da kontserbatzen originala. Erregelari dagokionez, ikus: Carlo CICONETTI, *La regola del Carmelo. Origine, natura, significato*. Roma, 1973. *Un proyecto de vida, la Regla del Carmelo*. Madrid, 1985. Silvano GIODANO (Dir.), *El Carmelo en Tierra Santa desde los orígenes hasta nuestros días*. Arenzano, 1994. Elias FRIEDMAN, *El Monte Carmelo y los primeros carmelitas*. Burgos, 1989. Bede EDWARDS, *The Rule of Saint Albert*. Aylesford – Kensington, 1973. Nilo



Erregelak garrantzi handia ematen dio Jainkoaren hitzari, Karmeldarren bizitzaren ardatz izateraino. Testu laburrean Bibliaren aipamen ugari dira: testuak Jainkoaren hitza du argi, Jainkoaren hitza du oinarri eta Jainkoaren hitza ageri du gainez egiten diola.

Dokumentua „Karmel Mendian, Eliasen iturri ondoan, Kristogan seme maite dituen Brokardori eta honen mendean bizi diren ermitau edo padarrei“ zuzendua da:

– Helburua „Jesu Kristoren gogoko izanez bizi izatea zen, bihotz garbiz eta kontzientzia zintzoz haren zerbitzari izanez“.

– Etengabeko otoitza „gau eta egun Jaunaren legea hausnartzen eta otoitzean erne, baldin beste legezko egitekoren batean egon behar ez badu“.

– Nagusiaren agindura, *pobretasuna* bizi izanez.

– Eguneroko lana, zer jana lortzeko.

– Isiltasuna, justiziarako, maitasunerako eta Jainkoaren pre-sentziazarako bitarteko gisa.

– Gudu espiritualerako armak: kastitatea, fedea eta Jainkoaren hitza.

– Orduen Liturgia elkarrekin (eta goizero eukaristiako ospakizunean esku hartzea).

– Penitentzia motak, esaterako, baraua eta haragi-uztea.

San Albertoren gutun honek Karmeldarrak legez onartuak zirela esan nahi zuen. Baina hainbat prelatuk eragozpenak jarri zizkieten, eta Karmeldarrek Aita Santuarengana jo zuten. Honorio III.ak (1226-I-30) beren bizitza-araudi edo erregelarekin aurrera egiteko baimena eman zien; honek, argi eta garbi adierazten ez bazen ere, onarpena esan nahi zuen⁴.

GEAGEA, *María Madre y Decoro del Carmelo. La devoción a la Virgen en el Carmelo durante los tres primeros siglos de su historia*. Burgos, 1989.

⁴ *Bullarium Carmelitanum* I, 1-2: “Ut vivendi normam”.

Gerrak izan ziren eta 1239an Gazan gurutzatuak mende hartuak izan ondoren, ermitauak atzerirantz irten behar izan zuten⁵. Fundazioak egin zituzten Txipren, Mesinan (Sizilia), Valenciennes-en, Aylesford-en eta Hulne-n (Ingalaterra), Les Aygalades-en (Proventza)...

Europako giro berrira egokitzeko, Karmeldarrek aldatu beharra izan zuten eta eskeko fraideen mugimenduari bat egin beharra. 1247an Inozentzio IV.a aita santuarengana bidaliak izan ziren Reginaldo eta Pedro fraideak, Erregela egoera berrira egokitzeko eta bertan agindurik zeuden hainbat agindu latz arintzeko eskaera egin ziezaioten. Erantzuna 1247ko urriaren 1ean iritsi zen *Quae honorem Conditoris* gutunarekin, eta Karmeldarren Erregela argitaratu zen aldaketa berriak sartuta⁶.

Karmel Mendiko ermitau haiek Andre Mariarekin guztiz bat eginik ikusten zuten beren burua. Laster Karmel Mendiko Andre Mariaren Fraideak izenez deituko zitzaien⁷. Ermitauak, apurka-apurka, Andre Maria zerbitzatu eta gorestekoko sortuak zirela sinestera heldu ziren⁸. Klemente V.aren buldan ere pentsamendu hori azpimarratzen da⁹. Mariaganako debozioak ha-

⁵ Honela aitortzen da Inozentzio IV.aren dokumentu batean: "Paganoen sarraldiek gure seme maite Karmelgo Eremitarrak, ez bihotza hautsi gabe, toki hura utzi eta itsasoz hemendiko aldean kokatzera behartu ditu": *Bullarium Carmelitanum* I, 8: 26-VII-1246: "Pagano-rum incursus".

⁶ Ik. 5. oharra; ASV, Reg. Vat. 21, f. 465-466; *Bullarium Carmelitanum* I, 8-11.

⁷ Ludovico SAGGI, *Santos del Carmelo*. Madrid, 1982, 56-160. or.

⁸ Honela berretsi zen Montpellierko Kapitulu Jeneralean 1287an. Ik. Joaquin SMET, *Los Carmelitas. Historia de la Orden del Carmen. I. Los orígenes. En busca de la identidad*. Madrid (BAC), 1986, 34. or.; (WESSELS), *Acta Capitulorum generalium*, I, 7.; Adrianus STARING, *Medieval Carmelite heritage*, Roma, 1989, 161. or.; sei urte lehenago Pedro de Millau Jeneralak adierazi zuen ideia (STARING, *Medieval Carmelite heritage*, 46. or.).

⁹ *Bullarium Carmelitanum* I, 55: 5-III-1311

ren Eskapularioaren tradizioan lortu zuen gailurra¹⁰, eta Elizak ofizialki berretsi zuen debozio hau.

2. KARMELDARREN ORDENA EUSKAL HERRIAN (XIII-XIX. MENDEAK).

XIII. mendearen bigarren erdian Karmeldarren Eskeko Ordenak bere historia guztian izan duen hazkunderik handiena izan zuen. Mende horren amaieran 12 probintzia zituen eta 150 etxe¹¹; haien artean Akitania eta Espainiako probintziak zeuden.

a. Baionan (c. 1250-1791)

V. Dubarat historialariak honako hau dio Baionako antzinarik komentuz: „Otoitz eta ikasketa gune honetatik honezkero ez da ezer geratzen, ezta hondakinik ere“, kalearen izena bakarrik: „Rue des Carmes“¹². Hala ere, historiako materialak gerratu dira hainbat eskuizkributan¹³.

Karmeldarrak XIII. mendearen erdi aldera jarri ziren Baionan bizitzen (garai horretan Baiona hiri „ingelesa“ zen, hau da, Ingalaterrako erregearen agindupean zegoen). Izan ere, 1264ko dokumentu batean „in quo nunc sunt“ dio. Dirudienez, Raimund de Donzac (D’Onzac)¹⁴ gotzain zela joan ziren hara. Eta geroago, 1264an¹⁵, Tarride auzoan, harresiz kanpo, beren eliza eraiki zutenean, izan zen Karmeldarren hitzarmena gotzain eta

¹⁰ Bartolomé XIBERTA, *De visione Sancti Simonis Stock*. Roma, 1950.

¹¹ Ik. *Constitutiones* 1294, 183-184.

¹² V. DUBARAT, *L'ancien couvent des Carmes de Bayonne. Notes et documents*, Bulletin de la Société des Sciences et Artes de Bayonne (1887) 1-55. Dubaratek Karmeldarrei buruz idatzi zuen geroago *Le Missel de Bayonne de 1543*, Pau, 1901, CCCLIV-CCCLXIV. or.

¹³ Ikus dokumentazioa Archives Départementales des Pyrénées-Atlantiques, H.23 – H.53.

¹⁴ Cf.. Jules BALASQUE – (E. DULAURENS), *Études historiques sur la ville de Bayonne*, t. 2., Bayonne, 176. or. (hiru liburukitan dagoen obra hau 1862-1875eko urteetan agertu zen.

¹⁵ Cf. ADPA, H. 49.

kapituluarekin. Sans de Haxe (Sancho de Ahaxe) zen gotzain eta Jean Auger¹⁶ Karmeldarren nagusi.

Komentu hau bazen 1510 ezkeror. Baina Frantziaren eta Espainiaren arteko gerra zela eta (Aragoi eta Gaztelako erregearen eta Ingalaterrako erregearen artekoa), eta hiria setio egoez arriko zuten beldurrez, mehatxuak izan baitzituen, Karmeldarren eraikina suntsitua izan zen Frantzisko Longeuville-ko duke eta Guyenne-ko gobernariaren aginduz. Eta Gobernari berak, komentuko Nagusiak eta Karmengo Amaren kofradiako lau arduradunek eskatuta, Baionako Port-Neuf auzoan bizilekua ezartzen eta behar ziren etxeak erosten utzi zien Karmeldarrei 1511ko abenduaren 23an. Bizilagunek ez zuten nahi eta aurre egin zioten asmoari. Baina 1512ko martxoaren 8rako Karmeldarrek bazuten komentua eta eliza eraikitzeko lur saila. Berehala ekin zioten komentua eraikitzeari; Bonifacio d'Albais ongileak ezarri zuen lehen harria, 1513ko urtarrilaren 30ean dohaintza bat egin zuenak.

1513 inguruan komunitateak 14 edo 15 erlijioso apaiz zituen, lau edo bost diakono eta korukoak ez ziren hiru anaia¹⁷.

Karmengo Amaren kofradia ageri da, Bonifacio d'Albais jaunarekin batera, Baionako komentu eta elizaren fundatzaile. Haren egitekoa funtsezkoa izan zen eraiketak eta konponketak egiterakoan. Kofradia honen helburua lagun hurkoari laguntza espiritual eta materiala ematea zen. Erlijiosoak nahiz laikoak, gizonak nahiz emakumeak ziren partaide. Elkarrekin esku hartzen zuten eukaristia-ospakizunetan eta baita kofradeen hileta-elizkizunetan ere. Dena dela, garai honetan ez zen oraindik eskapularioa aipatzen, eta hau nahiko harrigarria da. 1352. ur-

¹⁶ Cf. ADPA, H. 24; V. DUBARATEk argitaratu zuen *L'ancien couvent des Carmes de Bayonne. Notes et documents*, Bulletin de la Société des Sciences et Artes de Bayonne (1887) 3-5, eta *Le Missel de Bayonne de 1543*, Pau, 1901, CCCLIV-CCCLVI. Or.

¹⁷ Cf. ADPA, H. 49.

teko estatutuak zituzten¹⁸; 1454ko apirilaren 24an kofradiako kideek araudi berria ezarri zuten, beren arteko otorduetan nor non eseri zehazten zuena.

1661ean *Andre Mariaren Kofradia Nagusia* edota *Eskapularioaren Kofradia* deitzen zitzaion.

Hala ere Baionako Karmeldarretan bazen beste kofradiarik ere, esaterako: Garbikundeko Kofradia (XVII. mendekoa)¹⁹; Eskapularioaren Kofradia, 1637ko abuztuaren 3an meza bat ezarri zen hilero bigarren igandean emateko²⁰; Santa Barbararen Kofradia, 1512an bai, baina 1660an ez zena²¹; San Mauroren Kofradia, 1512an bazena eta XVIII. mendearen erdi aldean ere jarraitzen zuena²²; Sakramentu Santuaren Elkarte (XVII. mendea)²³.

Baionako Karmelek bazuen nolabaiteko indarra eta hauxe da hori egiaztatzen duena: Aturri ibaiaren bokalean, Angelun, komentua eraikitzeko asmotan zebiltzala 1683tik 1698ra bitartean²⁴.

Frantziako iraultzak Karmeldarren komentuko komunitate-bizitzaren amaiera ekarri zuenean, 11 erlijioso apaiz zeuden eta 3 anaia; batek izan ezik, guztiek hartu zuten bizitza sekularra. Eliza herriko elkarte batzarleku eta nazio-jaiak egiteko toki bihurtu zen²⁵.

¹⁸ Cf. ADPA, H. 27. V. Dubaratek estatuak argitaratu zituen *Le Missel de Bayonne de 1543*, Pau, 1901, CCCLIX-CCCLX. or.

¹⁹ Cf. ADPA, H. 37, 47.

²⁰ Cf. ADPA, H. 43.

²¹ Cf. ADPA, H. 27, 43, 49.

²² Cf. ADPA, H. 42, 49.

²³ Cf. ADPA, H. 36, 38, 47. Kofradia hauetaz eta han zeuden hainbat kaperaz (Andre Mariarena..., Erroke santuarena, Loretoko Amarena, Barbara santuarena, Mauro santuarena, Maria Magdalena Pazzikoarena, Joan santuarena, Jose santuarena, Aingeru Guardakoarena, Lanberto santuarena...) irakur bedi *Le Missel de Bayonne de 1543*, Pau, 1901, CCCLIX-CCCLXIV. or.

²⁴ Cf. ADPA, H. 42. Ik. *Le Missel de Bayonne de 1543*, Pau, 1901, CCCLXIV. or.

²⁵ Ik. *Le Missel de Bayonne de 1543*, Pau, 1901, CCCLXIV. or.

b. Nafarroa (XIV-XIX. mendeak)*aa. Zangoza*

Oraingo Penintsulako lurralde barruan Zangoza izan zela dirudi, Huescarekin batera, Karmeldarren lehen fundazioa, 1277 aurretik; izan ere, urte horretako apirilaren 1ean Felipe III.a Frantziako erregeak, honen semea Felipe I.a, Ederra, Nafarroako errege izango baitzen, agindu zion Nafarroako gobernariari Karmeldarrei Zangozan bizitzeko eta komentua eraikitzeko baimena eman diezaiela²⁶; horrek ordurako ziur asko han zeudela esan nahi du. Eta bestalde, erlijiosoak klaustrotik egotziak izan zirenean, komunitate hau izan zen azkena amatzatzen, 1837an, Iruñeko eta Tuterako komentuekin batera.

Hainbat albistetan adierazten denez, XIII. eta XIV. mendetan, Zangozako komentua eta Iruñekoa Akitaniako Karmeldarren probintziakoak ziren. Esaterako, 1354ko Kapitululu Jenerallak agintzen du, Iruñeko eta Zangozako komentuak Akitaniako Probintziakoak izan daitezela, Santxo de Ull Segorbeko gotzainaren oniritzia jaso ondoren²⁷.

1375ean Zangozako eta Iruñeko komentuek, Nafarroako erregearen eskariz, bikaritzat bat osatzen zuten²⁸. Egoera nahiko txarra zen. Martín Zalba (1377-1403) iruinsemea, kononista ospetsua eta Iruñeko gotzain berria, 1379ko urriaren 1ean sartu zen bere elizbarrutian; haren lehenengoetako egintza Erregearekin Zangozan biltzea izan zen; eta hemen Nafarroaren eta Gaztelaren arteko gerrak eragindako hondamendiak ikusteko aukera izan zuen: gaztelutik hurbil zen Karmeldarren komentuen alde bat suntsitua eta erreka zegoen, eta zutik gelditu zen aldea ere laster botako zutela uste zen. Pixka bat lehenago, ekainaren 6an, Karmeldarrek eta Santiago eta San Salvador

²⁶ Ik. Mariano ARIGITA Y LASA, *Cartulario de Felipe III, rey de Francia*. Madrid, 1913, 59. or.

²⁷ Ik. Juan Bautista LEZANA, *Annales...*, IV, 607.

²⁸ Ik. (WESSELS), *Acta capitulorum generalium*, I, 75.

bikarioek akordioa egin zuten komentua lekuz aldatzeari bu-
ruz, herrian bertan komentu berria eraikitzeaz eta horretarako
baldintzez hitz eginik²⁹.

1380ko azaroaren 20an, Klemente VII.ak, aitasantutzakoak,
Zangozako harresi barruan komentu eraikitzeke baimena
eman zien Karmeldarrei³⁰. Hurrengo urteko martxoaren 25ean
Karmeldarrek eta udalak komentu lekuz aldatzeko hitzarme-
na sinatu zuten. Amigot Garro Zangozako kapitainak Karmel-
darren komentu zaharra botatzeko agindu zuen; izan ere, ge-
rraren ondorioz egoera txarrean zen eta, gainera, beldur zen
Gaztelako erregeak hiriaren kontra erabiliko ote zuen³¹. Tokiz
aldatzea 1388ko martxoaren 5ean egin zen.

Espainiako probintzia erlijiosoen banaketan, 1416an, Zan-
gozako eta Iruñeko komentuek, Huesca, Valentzia, Zaragoza
eta Calatayud-ko komentuekin batera, Aragoi eta Valentziako
probintzia osatzen zuten³². Bai 1498an, bai XVI. mendearen
hasieran lau probintzia zeuden, eta Nafarroako bi komentuek
Aragoi eta Valentziako probintziakoak izanez jarraitzen zuten³³.
1561eko ekainean Zangozako komentuan izan zen Probintzia-
ko Kapitulua³⁴.

1700 inguruan, probintzia erlijioso berekoak ziren Nafarroa-
ko eta Aragoiko Karmeldar Oinetakodunen artean nolabaiteko
tirabirak ziren. A. Jeneralak, Karlos Filiberto Barberi-k, haien
arteko bakeari eutsi nahirik, Iruñean, Zangozan eta Tuteran

²⁹ Ik. José GOÑI GAZTAMBIDE, *Historia de los obispos de Pamplona, II, siglos XIV-XV*. Pamplona, 1979, 282-283. or.

³⁰ Ikus dokumentua: Vicente VILLABRIGA, *Sangüesa, ruta compostelana. Apuntes medievales*. Sangüesa, 1963, 39. zb.

³¹ Ikus dokumentua: Vicente VILLABRIGA, *Sangüesa, ruta compostelana. Apuntes medievales*. Sangüesa, 1963, 40. zb. Ikus baita BNM, eskuizkribu 2711, f. 338-339.

³² Ik. *Acta capitulorum generalium Ordinis*....., I, 149.

³³ Ik. *Bullarium Carmelitatum*, I, 420-422.

³⁴ Ik. Balbino VELASCO, *Los Carmelitas. Historia de la Orden del Carmen. IV. El Carmelo español*, Madrid, 1993, 153.

irauten zutenei abitua emateko baimena ematen zuen. Dirudie-nez, aragoitarrek ez zuten batere gogoko nafarrei abitua har-tzen uztea. Ez zuten bete nahi Jeneralaren agindua, eta beren asmoak aurrera eramaten saiatu ziren Diputazioaren eta Erro-man Espainiako enbaxadore zenaren laguntzaz³⁵.

XVI. mendean erlijioso gutxi ziren, 4tik 7ra; baina 1730ean 25 ziren³⁶.

1773 inguruan A. Jeneralak, José Alberto Jiménez-ek, ko-mentuetako pertsoneri zegokienez, zenbait aldaketa egin zi-tuen, hau da, komentuetan fraide gehiegi zeudelakoan, kopu-rua gutxitzea erabaki zuen. Honela, adibidez, Zangozan 19 er-lijioso zeuden eta 13ra gutxitu zituen; Iruñean 55etik 35era; eta Tuteran 30etik eta 16ra gutxitu zituen³⁷.

1837ko erlijiosoen kanporatzearen ondoren, Zangozako Karmeldarren eliza udal ospitale bihurtu zen 1886an. Eta azke-naldian musikako kontserbatorio. Orain dela hamahiru bat urte ikerketa bat egin zen, eliza arte aldetik aztertuz³⁸.

bb. Iruñea.

Iruñeko Karmeldar Oinetakodunen komentua guztiz desager-tu direnetakoa dugu³⁹. Fundazio hau 1330 ingurukoa da, Felipe

³⁵ Ik. José GOÑI GAZTAMBIDE, *Historia de los obispos de Pamplona, VII, siglos XIV-XV*. Pamplona, 1979, 208-209. or.

³⁶ Ik. Balbino VELASCO, *Historia del Carmelo español*, 2 t. Roma 1992, 472-473. or.

³⁷ Ik. Balbino VELASCO, *Los Carmelitas. Historia de la Orden del Car-men. IV. El Carmelo español*, Madrid, 1993, 274.

³⁸ Ik. María Concepción GARCÍA GAINZA, Mercedes ORBE SIVATTE, Asunción DOMEÑO MARTÍNEZ DE MORENTIN, *Catálogo monumental de Navarra. IV** Merindad de Sangüesa. Jaurrieta-Yesa*. Pamplona 1992, 399-404.

³⁹ Ik. Archivo General de Navarra, fondos medievales de la Sección de monasterios, Pamplona. Carmelitas Calzados (1330-1331); ikus leg. 3, docs. de 1416, 1445. BNM: eskuizkribu 2711: *Mercedes, dona-ciones y favores que los Serenísimos Reyes de Navarra hicieron a su convento del Carmen de de la observancia de la ciudad de Pamplona y a los hijos dél*, f. 329-334.

Evreux-koak eta Joana errege-erregina nafarrek sorturikoa⁴⁰. Inozentzio VI.a Aita Santuak hirigunetik nahiko urrun zen komentua utzi eta harresi barruan berria eraikitzeko baimena eman zien Karmeldarrei; bazen beste arrazoi bat ere horretarako: gerra sortuko zen eta eraikina suntsitua izango zen beldurra⁴¹.

Don Karlos Nafarroako erregeak 1374ko ekainaren 1ean eman zuen eliza eta komentua hiri barruan eraikitzeko baimena; Teologian doktore zen Pedro San Martin⁴² priorearen eskariz eman zitzaien baimen hori. Errege berak eman zuen, 1375eko otsailaren 10eko dataz, „Jon Cruzat⁴³ Erreinuko zaldun nagusiaren bitartez“ kendu zizkieten ondasunak Karmeldarren komentuari itzultzeko agindua.

Hurrengo mendean, 1495eko maiatzaren 8an, Nafarroako beste errege bat ere agertzen da „juros reales“ deitzen direnak ematen, eta komentuari „casa real“⁴⁴ titulua ematen. Ondorengo mendean Maria, Aragoiko erregina, izango da komentuari hainbat erlikia opari egin zizkiona⁴⁵.

Toribio de Mier Iruñeko gotzaina hil zenean, 1698ko abenduaren 8an, Karmengo Prioreari eskatu zitzaion hileta-elizkizunean hitzaldia egitea⁴⁶.

GARCÍA GAINZA, María Concepción – ORBE SIVATTE, Mercedes – DOMENO MARTÍNEZ DE MORENTIN, Asunción – AZANZA LÓPEZ, José Javier, *Catálogo monumental de Navarra. V** Merindad de Pamplona. Imoz-Zugarramurdi*. Pamplona, 1996, 377-378. or.

⁴⁰ Ik. BNM, eskuizkribu 2711, f. 329^r, 332^r. Ik. Balbino VELASCO, *Historia del Carmelo español*, t. 1 Roma 1990, 445. or.

⁴¹ Ik. José GOÑI GAZTAMBIDE, *Historia de los obispos de Pamplona, II, siglo XIV-XV*. Pamplona, 1979, 208-209. or.

⁴² Ik. BNM, eskuizkribu 2711, f. 329^r, 332^v. Ik. Balbino VELASCO, *Historia del Carmelo español*, t. 1 Roma 1990, 448. or.

⁴³ Ik. BNM, eskuizkribu 2711, f. 332^v-333^r. *Catálogo del Archivo General de Navarra...*, vol. IX, 700. zb.

⁴⁴ Ik. BNM, eskuizkribu 2711, f. 329^v, 333^v.

⁴⁵ Ik. BNM, eskuizkribu 2711, f. 330^r.

⁴⁶ Ik. José GOÑI GAZTAMBIDE, *Historia de los obispos de Pamplona, VI, siglos XVII*. Pamplona, 1987, 482-483. or.

1728an Iruñeko Karmel oinetakodunean gertaera nahiko garrantzitsua izan zuten: Hirugarren Ordenaren eraiketa kano-nikoa⁴⁷.

Eta urte gutxi geroago, 1733ko martxoaren 17an, sute handi samarra izan zen Iruñean eta Karmeldar Oinetakodunen ko-menturi ere eragin zion, baita Ospitale Santuari, Domingota-rron komentuari eta Jauregiari ere⁴⁸.

XVI. mendean 11-17 erlijioso izan ohi ziren; XVIII. ean 54 izate-raino iritsi ziren⁴⁹. Iruñeko gotzainak, Agustin Lezo eta Palomique-k (1779-1783), artzain-bisita egin zuenean 1781eko maiatzean eta ekainean, 36 fraide aurkitu zituen Karmengo komentuan⁵⁰.

Frantsestean, 1809an, erlijiosoak kanporatuak izan zirenean, komentua tropa frantsesen gerrako ospitaletzat erabili zuten, baina elizan betiko antzera kultua egiten jarraitu zuten. 1814an itzuli zen komunitatea. Baina urteak geroago, Espainian erlijio-soen kanporatze nagusia gertatu zenean, 1837an, gobernu komentuaz jabetu zen; hasieran ospitale militar bihurtu zuten eta geroago kuartel. 1898an bota zuten komentua. Elizaren ar-te-balioari buruzko txosten labur bat gordetzen da⁵¹.

Iruñeko komentuko pertsona goresgarrien artean hauek ai-patzen dira: A. Pedro San Martinena, Nafarroako Karlos erre-gearen aitor-entzulea; A. Joan Vertiz, Erreinuko bikario probin-tziala eta komentuko priorea; A. Santxo Anbiz, komentuko

⁴⁷ Ik. Higinio GANDARIAS, *Historia de la Venerable Orden Tercera del Carmen Descalzo de Pamplona*. Vitoria, 1958, 12-15. or.

⁴⁸ Ik. José GOÑI GAZTAMBIDE, *Historia de los obispos de Pamplona, VII, siglo XVIII*. Pamplona, 1989, 286-290. or.

⁴⁹ Ik. Balbino VELASCO, *Historia del Carmelo español*, 2 t. Roma 1992, 473. or.

⁵⁰ José GOÑI GAZTAMBIDE, *Historia de los obispos de Pamplona, VIII, si-glo XVIII*. Pamplona, 1989, 165-166. or.

⁵¹ Ik. María Concepción GARCÍA GAINZA, Mercedes ORBE SIVATTE, Asun-ción DOMENO MARTÍNEZ DE MORENTIN, José Javier AZANZA LÓPEZ, *Catá-logo monumental de Navarra. V*** Merindad de Pamplona. Pamplona. Indices generales de la obra*. Pamplona 1997, 377-378.

priorea; eta A. Pedro Usetxi; honi buruz geroago ere hitz egingo dugu⁵².

Urteen buruan komentu hau filosofiako eta teologiako ikasketak egiteko etxea zen. Horrez gainera, azpimarratzekoa da XVIII. mendean inprimategia zuela komentu honek, bertan argitaraturiko zenbait liburuk frogatzen dutenez.

cc. Tuter.

Tuterako komentuaren fundazioaz ere ez dugu agiri askorik⁵³. 1591n egin zen hau, Cortés⁵⁴ familiaren etxaldean. Ondo-rengo lau urteetan eliza eraiki zen. Kristoren eta Karmengo Amaren irudia gurtzen ziren; Karmengo Amaren jaia Frantziska Magallon S. Adriango markesak⁵⁵ ezarri zuen 1717an.

Komunitatea 16 fraidez osatzen zen (9 apaiz, 2 koruko eta 5 anaia). Erlijosoen ekintzaz eta komentu barruko bizitzaz pasarte hau aipatuko dugu hitzez hitz: “Los religiosos asisten con puntualidad al confesonario y a los enfermos, tanto en la ciudad como del hospital y predicán la divina palabra: dan de comer algunos días a los encarcelados; y entierran a algunos pobres de limosna, después de haberles asistido en sus enfermedades. Oración mental mañana y tarde, asistencia al coro, desempeño de las obligaciones de la regla y constituciones con sus ejercicios ordinarios”⁵⁶. XVII. mendeko azken hamar-

⁵² Ik. BNM, eskuizkribu 2711, f. 331^r.

⁵³ Ik. Fray José Vicente Díaz BRAVO, *Memorias históricas de Tudela*, Príncipe de Viana 16 (1955) 332-336; M.C. GARCÍA GAINZA – M.C. HEREDIA MORENO – J. RIVAS CARMONA – M. ORBE SIVATTE, *Catálogo monumental de Navarra. I. Merindad de Tudela*. Pamplona, 1980, 323-329. or. Archivo General de Navarra, Sección 2^a, Clero regular – Ordenes religiosas; Tudela: 31-32: s. XVI-XIX. cuentas, censos, aniversarios...

⁵⁴ Ik. José Vicente Díaz BRAVO, *Memorias históricas de Tudela*.

⁵⁵ Ik. Julio SEGURA MIRANDA, *Tudela. Historia, leyenda, arte*. Tudela, 1964, 146-147. or. (Fundazioa 1592an jartzen du).

⁵⁶ Balbino VELASCO, *Los Carmelitas. Historia de la Orden del Carmen. IV. El Carmelo español*, Madrid, 1993, 345.

kadan ikasketak egiteko etxea zen. 1730ean 37 erlijioso⁵⁷ izatera iritsi ziren.

Gobernuak agindutako erlijiosoen kanporatzearen (1837) ondoren, komentua saldu egin zuten enkantera aterata, 1842an. Eliza gerrako biltegi bihurtu zuten 1874an. Kontuan hartzekoa da elizaren arte aldetiko balioaz dagoen ikerketa laburra⁵⁸.

dd. Erlijioso goresgarriak.

Karmeldarren Ordenak Euskal Herrian izan duen ibilbidea labor-labor kontatu ondoren, erlijio- eta kultura-bizitzan, batez ere Nafarroan, gailendu ziren hainbat erlijioso aipatuko ditugu.

Karmengo Komentuak ikasketa eta kultura gune bihurtu ohi ziren maiz, eta gainera unibertsitateko bizitzan zuten eragina ere ageri-agerikoa zen, haien maisutzagatik eta haiek argitaratutako obrenengatik. Aipatu baino ez ditugu egingo kultura eta erlijiotasun adierazgarri ziren haiek:

Santxo Ull (+1356), Pedro Usetxi (+1568), Martin Rekarte Bengoetxea (1580-1644), Raimundo Lunbier (1616-1684), Joan Anastasio Arana (+1684), Jazinto Aranaz (1650-1724), Felipe Iturbe (1686-1741), Jose Bizente Diaz-Bravo (1708-1772). XVIII. mendeko beste karmeldar oinetakodun batzuk ere aipatu behar ditugu, esaterako, Jose Urdaniz, Buenaventura Arévalo, Jose Urtesabel, Jeronimo Elias Izuzkiza, Jose Urtasun eta Narbete, Jose Maria Larunbe, Migel Hualde, etab.

Julen Urkiza – Luis Baraiazarra.

⁵⁷ Ik. Ballbino VELASCO, *Historia del Carmelo español*, 2 t. Roma 1992, 475. or.

⁵⁸ Ik. María Concepción GARCÍA GAINZA, María Carmen HEREDIA MORENO, Jesús RIVAS, Mercedes ORBE SIVATTE, *Catálogo monumental de Navarra. I. Merindad de Tudela*. Pamplona 1980, 323-329.

KRISTAUFILIA

Artikulu hau, nolabait, A.Oleak “Kristaufobia” titulupean (Karmel 2009-2) eskaini zigun hausnarketaren oihartzuna da.

Gaurko giroa gure Elizaren eta kristautasunaren aurkakoa dela, oso garbia eta jakina da. Kanpotik gogor erasotzen digute, baina Eliza barruan ere, zoritxarrez, kritiken epidemiak jota bizi gara. Ados A.Olearekin.

Baina ezin dut gordeta eduki nire barren barrenko ikuspegi eskaini gabe: gaurko kristaufobiaren ondoren kristaufilia pozgarria erretzen dagoela gure garai honetan. Beraz, itxaropen horren zergatia ematera nator.

Zera nahiko nuke beti: gure kritikoak errespetatuz jokatzea, ez erortzea kritikoen kritika arinera.

Nire hausnarketen arabera, kristautasunaren aurkako gaurko giroa, batez ere bi pentsamolde taldekoi hauei zor zaie: 1) Zientziari; 2) Ilustrazioari.

1) *Zientziaren* aldetik, zientziak frogatzen/erakusten duena dela egia bakarra; zientziak frogatu gabea, ez dela aintzakotzat hartu beharra.

2) *Ilustrazioaren* aldetik, gizaki orok askatasun osoa daukela nahi duen guztia dudapean ipini eta berak, bere adimenez aurkitzen duena, bere jardunaren eta bizitzaren bide eta helburutzat onartzeko.

1.– HONDAR GAINEAN eraikitzen dihardute

a) Zientzia aldetik

Zientzia behaketen gainean eraikitzen denez, eta behaketen balioa zientzia hutsez oinarri ezina denez, zientziak ez dauka, zehatz hitz egitekotan, balio autonomorik. Hau da, ez dauka fundamentu objektiborik, baldin ez bada *gizakiaren* argi eta babespean ari.

Zientziaren tenplura sartzea nahi duen gizakiak hau esan behar dio atezain dagoen *gizaki* zientzialariari:

“Sinisten dut gizaki naizenez ikusi egiten dudala, eta sinismen horretan oinarritzen dut behaketen frogaren balioa”.

Eta zientzialari atezainak hau erantzun behar dio tenpluaren atean:

“Horrela bada, zatoz barrura zientziagintza den lan zoragarrian saiatzera.”

Sinismen horren gainean eraikitako zientzia gizaki guztion lorpen, onura eta gorespena da.

Darwinismoak, aldiz, ez dauka inongo babes zientifikorik. Eboluzioaren teoria bete betean da zientifikoa, behaketez jasotako datuetan oinarritze baita, beti datu eta hausnarketa gehiagorekin osatu beharrean egongo bada ere. Baina selekzio naturalaren baiespena ideologia merkea da. Ez dauka behaketa bakar baten oinarri izpirik. Eta absurdo zientifiko matematiko itzela da zera esatea: *‘kosmosaren hasieran azaldu/sortu zen hura inongo kode, programa, norabiderik gabe, selekzio naturalaren eragin hutsez arrautza oskolaren programa eta egin abalmen biburtu zela’*; areago, *‘giza zigoto bilakatu dela’* baiestea.

Gizakiaren babespeko zientzia hutsez gizakia bera (soinezko maitagogo) zer den argitu nahiari buruz, beldur izpirik ga-

be esan behar dugu: burugabekeria itzela dela, ez duela askorik iraungo baiespen ustel horrek.

Beraz, zientzia autonomia dela aldarrikatzea, hondar gainean eraikitzea da.

b) Ilustrazioaren aldetik

Ilustrazioa, berriz, gizakia adimenaren menpeko egitea da. Ez du onartzen gizakiaren funtsa maitari izatea dela. Musika entzutean, margo eder bat ikustean, ekintza altruista baten lekuko izatean, adimena erabili gabe maitagogoan bertan bizipen sakonak nabari dituela beragan. Eta edozein gertaeran, edozein eginkizunen aurrean, maitagogoak bere esaneko adimena bideratu egiten duela helbide, alderdi, argitasun hau edo bestearen bila saia dadin.

Bakoitzaren adimenaren iritziak bere bizitzaren gidari eginez, aberrazio guztien sorrerari bidea irekitzea da.

Ilustrazioaren gainean eraikitzea, hondar gainean eraikitzea da.

2.– HARKAITZ GAINEAN eraikitzen, GU

a) Gizaki maitariaren aldetik

Jakin jakineko egia da, guk gure adimena gidatzen dugula gure maitakizunen aldeko jardunera. Horrela dagi, adibidez, zientifiko ezagutariak, egiaren maitari jardunez bere gaiaren inkognita guztien artean hautatzen ari denean zeren azterketa-
ra, zein alderditik eta nolako tresnez begiratzera gidatuko duen bere adimena.

Gizaki guztiok gure eguneroko ibileran gure maita senak burututa erabiltzen dugu adimena. Gizakia maitari dela esaten/egiten ari gara, bere potentzia guztien jaun, gidari, nagusi, erantzule. Hau da, zer/noren gainean eraiki behar dugun gure

eta gizartearen bizitza galderari, erantzun zehatza eta garbia ematen diogu: maitariaren, gizakiaren gainean. Egia gizakia baita. Ez zientziaren gainean eta ez bakoitzaren adimenaren iritzien gainean.

b) Fedearen aldetik

Gizakia maitari dela eta potentzia guztien jaun, giza ahal-menez hautematen dugu. Gure fedeak horren zergatia argitzen digu zoragarri: maitariak gara, Jesus gizakiaren Aita den Maitasunak Espiritu Santuaren arnasaz bere antzeko egin gaitualako, betiko bizitzan zorioneko maitasun-sume heldu gaitezen

3.– POZEZKO ONDORIOA

Ez gaitezen beldurtu. Hondar gainean eraikia berez eroriko da. Kristauok harkaitz gainean eraikitzen ari garenak gora egingo du ekaitz guztiak gaindituz.

Argia zabaltzen dator gizadian. Gure jakintzen aurrerapenak gero eta argiago uzten dute zientzia hutsaren gainean eta adimenezko berekoitasunaren gainean eraikia hondarrera erortzen doala.

Etorkizuna fedean dago, gure kristau giza fedean. Ari da Espiritu Santua. Maitaroa, kristaufilia dator. Gora bihotzak.

Jenaro Garate

HISTORIAREN FILOSOFIA 4

Materia zer da?. Horretaz gaur bertan eduki dut eztabaida bat filosofiako estudiante lagun batekin. Eta esan diot ezen Newton-en gravitazio universalaren teoria gaizki formulatua dagoela (ez dator, Kantek zioen moduan, ezagutza a prioristiko batetik, eta bai empirismotik). Esan diot ezen ez dela gravitazioa universal, ezinezkoa dela lege hura universal dela demostratzea, materia ezin definitu daitekeela gravitazioa bezala eta hola. Eta ez zegoen nire laguna konforme horrekin. Baina analisis logiko bat egiten badugu ikasten dugu ezen, hasteko, ikerketa zientifikoa beti duela bere hastera fenomeno partikularretatik, beraz metodoa induktiboa da haste hastetik. Eta hori badaiteke formalizatu kuantifikatzaileen logikan. Eta afirmatu ezen badagoela kasu bat, edo batzuk, edo asko, kontu ezin ahala kasu ere, non ikasi den gravitazioaren fenomeno. Eta hipotesiak egin daitezke, teoriak, direnak derivazioak irekitzea bezala predikatuen logikan, baina hor ez gaude kuantifikatzaile unibersalean, eta ezin egon gaitezke kuantifikatzaile unibersalean derivazioak ixten ez badira, eta itxita ere (konsideratzean inmutablea dela materia), problema oso konplikatu dena, zer aurkitzen dugu?, materia mutablea dela (konsiderazio hori hipotesia besterik ez delako), eta horrek ezinezko egiten du derivazioan unibersaltzat hartua, hipotesis bezala, egiazki unibersal bihurtzea gure operatzean hasieran behaketa partiku-

lar existenciala dena. Esan daiteke, bai, materiaren partikularitate bat ezagutzen dugula, zeren gravitatea materiaren partikularitatea baita, baina ez materiaren izaera universal, ez materiaren definizio universal. Eta hola gertatzen da materiaren estudio orotan, non materiaren partikularitateen ezagutza asko aurreratzen ahal den (beti gaude egiazko universalatasunaren azpian). Baina ezinezkoa zaigu, demostratua geratu den lege, materiaren ezagutza universalik iristea, eta hor geratzen gara afirmatu beharrean ezen materia misterio zaigula. Zer da materia?, misterioa zeinaz partikularitateetan asko ikasten ahal den. Baina misterioa. Eta misterio zaigu zeren ez baitugu materiaren definizio universalik (definizio operativoak badaude fisikarien artean, gravitatearena da bat, baina ez definizio universalik), materiaren ezagutza universalik. Eta materiaren ezagutza universal, definizioz, privaziogabea da, ezagutza privaziogabea da, eta beraz, privazioa baldin bada gaizkiaren kausa orokorra (materia berez ona baita), orduan ondorioztatu beharra dago ezen materiaren ezagutza unibersalean ongia, santutasuna, dela ageri bere barrenean, eta hortik afirmatzen ahal dela ezen materiaren ezagutzea dela guretzat misterio bat, bai, baina misterio santua. Eta cosmos honetakook dugula privazio bat ageri agerikoa, beraz gaiztoak garela, mailak eta mailak dauden arren, eta horregatik hobetzeko posibilitatea beti izan.

Esan dut materiaren partikularitateetan asko aurreratzen ahal dugula, eta piska bat nahasia dirudi hizketa hori. Baina hizketa aristotelikoa hartzen badugu, oso egokia dena, beti ere esango nuke nik, orduan ikasten ahal dugu ezen materia potentzialitatea dela, eta guk, materiaz ikastea, potentzialitate infinitu horren aktualizatzeak egin ditugu gure ezagutza, baina ez gara sekula aktualizatze definitibora iristen, zeina izango bailitzateke kosmos materialaren ezagutza universal lortzea. Horretarako baina discernimendua behar dugu, ona eta gaiztoa bereizteko, eta gaiztokeriak ere aktualizatu egiten ditugu, egiten ditugunean, eta etorkizunean egiten ahal ditugula badaki-

gu, hala nola erreoretatik ere dakarzkigukeenak, eta horiek evitatzea, jakinean gaudenean, eta ongiaren bidetik joatea da ezagutza universalerako bidea.

Mundu honetan, kosmos honetan, ezinezkoa da materia ezagutzea bere osotasunean, eta horrek esan nahi du ezen gure ezagutzan privazioak daudela, mota askotakoak, eta hor dago, gure ezagutza pobrean, gure privazio intelektualean oraingoan, gaizkiaren kausa jatorrizkoa (gu, materialazkoak izanik, jatorriz onak gara, kosmos material honen moduan onak gara berez). Privazioa da gaizto egiten gaituen faktorea, bere orokortasunean definitua, intelektualki.

Eta teorizatu dugun ezagutza privaziogabe hori ezin egon daiteke kosmos honetan, nahiz eta badagoen errevelazioaren historia bat historia orokorraren baitan gertatua (kultura orientalean gainera gertatua, gehien behar zutenen artean, esaten dut nik Jesusi jarraituz, zeren etorria zen kulturarik gaixoenak artatzera eta ez hobeto zeuden beste kulturetara) eta errevelazioaren historia horretan aditzera ematen zaigu, seinaleen bitartez, badagoela halako ezagutza bat a prioristikoa dena, hau da, privaziogabea, beraz badago zertan sinesterik misterio santu horretaz. Jesusek dio ezen Bere Erresuma ez dagoela kosmos honetan, eta hori nik deduzitu egiten dut analisis logikoaren bitartez, ez Haren Erresumaren esistentzia, ez, nik deduzitzen dudana da ezen ezagutza universalak lortu ezinezkoa dela kosmos honetan, izatekotan beste kosmos batean izan behar dela, goragokoa dena gainera, bistan dagoena. Eta halako kosmos hartan Sokrates-ek teorizatzen zuen intelektualismo moralak erabat gauzaturik dago, ezagutza universalak da, ezagutza privaziogabea dena definizioz, han aurkitzen duguna intelektuaren begiekin. Zer esanik ez, kosmos material honen ezagutza universalak batez ere (hortik gora Jainkotasunaren misterio santuak dugu aurrean, distantzia infinitua beti duena gure kosmos hartako, hildakoan eta bertara bagoaz jakina, ezagutza perfektuaren aldean; zeren eman baitiezaguke halako ezagutza uni-

versalik, baina konparazio bat egiten badugu, Jainkoa da eternoa, ez du hasierarik, baina guk denok dugu hasiera bat, eta horrek esan nahi du distantzia Jainkoaren baitatik infinitua dela beti, eta horregatik hasiera bat dugun guztiok esaten dugu ezen Jainkoa dela, azken batean, santu den bakarra, guri partizipazioa, grazia bat dena, ematen ahal digun arren). Eta argumentazio horrek ekartzen gaitu ondorioztatzera ezen halako ezagutzatik (Zeruetako Erresuman soilik, jakina) erabateko gobernua dagokeela kosmos materialaren, eta baita gure izaera materialaren ere. Ez da heriotza, beraz, gure azkena.

Gero beste lagun bat etorri da eta esan du nola bati entzun dion Jainkoa dela bere laguna, irribarre ironiko bat atereaz. Ni ez naiz harritu horregatik. Nik gehiago oraindik esaten baitut. Jesusek erakutsi zigun Jainkoari Aita esaten, eta Jesusek Jainkoari Berak ere Aita esaten zion, beraz Jesus nire Anaia da (Anaia, bai, baina baita laguna ere, hola esan zien apostoluei behin), eta meza santuan bada esaten nola bizi izan diren asko Jainkoaren adiskidetasunean, baina Aitarekin egoten den harremana ez da adiskideekin edukitzen dena, ezta ere Anaia batekin edukitzen dena parekatzen ahal da lagun batekin edukitzen denarekin, zer da orduan Jainkoaren lagun izatea?, zein da lagun den Jainko hori?, hain zuzen ere, Espiritu Santua, eta hortik nik afirmatzen dut ezen Jainkoa dela nira Aita, nire Anaia eta nire Laguna. Ez da visiblea nire Jainkoa, baina bada inteliggiblea egiten errevelazioaren historian, seinaleen bitartez, zeintzuen analisis logikotik ondorioztatzen ahal den Haren esistentzia egiazkoa. Baina ez da visiblea, eta nik konprenitzen dut munduko jendeak Jainkoari bizkarra ematen dioenean, seinalerik ez baita ikusten (Jainkoa ez da prodigioa seinaleak egiten), eta Zeruetako Erresuma ez dago kosmos honetan, eta abandonatze sentimendutik, baita fededunen aldetik ere, pasatzen da ez sinestera. Galtzera ere, kosmos material honetan, azken finean, galduak gaudelako errevelazioaren historiari gabe, eta hori demostratu daiteke. Horretan ari naiz jo eta ke.

Intelektuok deduzitzen duena zoragarria da, ikaragarri jasoak gara Haren mailara, baina ez gehiago, zeren adankeria bailitzateke, adankeria bat absurdura erreduzitzen ahal dena kontuan hartzen bada ezen egiazki ondo dagoena, eta Jainkoa egiazki ondo dago definizioz, superatzea absurdora erreduzitzen dela, bere falaziazkotasuna agerian jarritz. Beraz, jasoak gara baina ordenakin. Nonbait itxaropena dugu beste kosmosean jasoak izango garela, baina kosmos honetan privazioak bizi ditugu, ez da intelektualismo morala garatzen bere bururaino sekula...eta Aristotelesekin arrazoiakin kritikatu zuen Sokrates puntu horretan, praktikoagoa baitzen haren etika, eta ez hain ideala eta iritsgaitza.

Nire lagun filosofiako estudiantea oso zaletua da antropologian eta Malinoski aipatu dit eta pazifikoko argonauten bidaiez hitz egin dugu. Funtsean bidaia haiek kanoaz opariak egitekoak ziren, eta erremarkatu diot nire lagunari ezen herri indigenetan joera birbanatzailea oso usua dela (niretzat ingurumari oparoan garatu direlako), eta horrek kontraste egiten duela gure kultura okzidentalarekin (oriental grekolatino okzidentala) non joera justu kontrakoa den, hau da, akumulatzekoa (niretzat kultura orientala ingurumari basamortukozkoan garatu delako). Baina nire lagunak esan dit badirela gure kulturen erregaluak ere egiten, gabonetan eta holako data esanguratsuetan. Baina nik esan diot gure kulturen batez ere gerra dela ezaugarria, erregalua beste garai batzuetako halako oroimen urruna delarik, sinbolo hutsa ere bihurtua hipokresia azaltzen ez duenean, eta gerra da hain ezaugarri ezaguna gure kulturen, hain nabaria, ezen sarriegitan universal ere bihurtzen den, eta gerra ez dela egiten egite aldera (tragedia ez zaio inori gustatzen) eta bai ekonomiagatik, akumulatzearen (basamortuez inguratutako kultura orientalean desarrolatua da gerraren tradizioa). Eta nik hor ikasten dut privazio ekonomikoaren (privazio mota oso inportante bat) eragin terrorifikoa ere historian (Iliada asko irakurritz gero, nahiz eta tragediak ugari izan bertan, hain da ondo moldatua liburu hori ezen asko irakurritz gero gerrarako zaletasuna, pasioa ere, esna-

tzen baita lektorearen baitan). Zeren, esan diot, antropologia termino hori niri ez zait gustatzen, antropologiak estudiantzen duen hori historiaren barnean baitago ordenatuago, bistan dena, eta oriental izan ez diren kulturetatik badaiteke, eta nik hori egiten dut, kultura orientala (gure kulturaren oinarria greko latinoek ondoen pintatua) kultura orientala beste bazter utzitako kulturetatik ikertzea, eta da kultura partikular bat, gehien hazi dena eta gehien garatu dena, hainbestearaino ezen ahaztu ere zaio beste kultura bat dela kultur arragoaren barruan, eta bere burua ere universalizat ere hartu izan du (bai poeten artean, bai filosofo oso ospatuen artean, eta baita, jakin gabe, erlijioso monoteisten artean ere, beraz, gure artean ere). Eta nik sentitzen dut obligazioa dudala konfirmatzeko hori horrela izan dela historikoki. Eta modu esplizituan esan ez baldin bada beti inplizituki bada hori onartu egia bezala, nahiz eta ez den egia.

Nik orain gogoratzen dut nire osaba bat amaren partetik zeina frantziskotarra zen, Muruamendiaraztar bat, eta bizitzaren gehiena Paraguay, Argentina eta holako herrialdeetan eman zuena, hilda dago, baina nire amak kontatzen dit nola harek esaten zuen Concilio Vaticano bigarrenak aldaketak ekarri zituela (niretzat hobeto dago esanda aktualizazio bat dela garai modernoetara), eta nire osaba harek zioen ezen oraindik ere ekarriko zituenak... eta nik daukat inpresioa ezen nire teorizazioak hortik doazela, eta berebiziko inportantzia du nire baitan ondorio erlazio egiazkoak egiteak, hain zuzen ere horregatik.

Amaitu dugu esaten gu estudiante soilak garela eta ez filosofiako katedratikoak, zeintzuek publikatzeko bide guztiak dituzten zabalik, bitartean gu... ez dakit nik zein ertzetatik gabil-tzan, bazterren barregarri ere deskuidatzen bagara batzuetan. Eta hurrengo egunerako geratu gara eztabaidatzen jarraitzeko.

Gaizkiaren problema?, nik uste dut badudala piska bat tratatu (materia ona da berez, gaizkiaren kausa privazioa da oro har), eta ilunpea baldin bada ere guztia Jainkorik gabe (asetu

gabe beti, gaizkiaren morroi ia ia), Harekin gauzek beste kolore bat hartzen dute (Harek asetu egiten gaituen ura dauka, metaforikoki esanez), eta egiari hur emanez gero bada ikasten ahal hobekuntzetarako biderik baita kosmos honetan ere, nahiz eta atzeratze etiko politikoak ere badiren posible, etorkizun dena indeterminatua delako, baina ongiari buruz determinazioa hartzea da askogatik hoberena, eta posible denean, Juan XXIII.ak zioen moduan, obligazioa da, eta nik, errepikatzen dut, baditut bide posibleak ikuskatzen. Nik behintzat baditut trazatzen, eta insinuatzen, nire teorietan. Utopiarik ezinezko ikasten badut ere, hain zuzen ere privazioa beti ageri delako kosmos honetan (ez gara iristen universalki ezagutze-ra), eta hortik gaizkiak badu zirrikitu bat beti kosmos honetan.

Baina erran behar da ere ezen oso ona dela gaixotasun hori ondo ezagutzea, zeren horrela gaixoak, humanitatea, hobeto konbatitzen ahal baitu duen gaixotasun hori, tara hori. Ezjakintasuna, edozein zientifikoa ganorazkoak onartzen duena. Eta hortik, nahiz eta faroa badugun teorizatu, gaizkirako joera bat, ilunpeetarakoa... beti ageri dena kosmos honetan.

Ezjakintasun esentziala, esentziala denaren ezjakintasuna. Misterio santua, ateoentzat teorizazio huts bat besterik ez dena. Kosmos honetako miseriak agerian uzten dituen, gainera.

Ohartxo bat ipiniko dut lektorea ikas dezan nondik ateratzen dudana nik gaizkiaren inguruko teorizazio hori. Piska bat aditua dena segituan ohartuko da san Agustinek jorratutako gaia dela, eta niri iruditzen zait ezin hobeto jorratu zuela gai hori. Eta ez zen izan egun batetik bestera ateratako ondorioa, urteetako lana baizik, gaizki informatua ez banago. Beraz, san Agustin da nire etorriaren iturburu nagusia gaizkiaz teorizatzen dudanean. Eta akordatzen naiz nola ongia privaziogabeko egoera baldin bada, orduan meza santuan eskatzen den hori, “atrevitzen ez garena ere esaten”, dela egiazki paradisiakoa.

Roman Garmendia

KONTU KONTARI

ZENONEN LARRAIN DANTZA

SARRERA

Ez zen bortxatzen ninduten lehenbiziko aldia, baina bai oroitzen txarra eman ez zidan lehenbizikoa. Lehenengo aldia auzoan izan zen, bederatzi urte edo nituen, eta katekesian geunden. Lehenbiziko jaunartzea hurran zela, erretorearen apaizkide bat etorri zitzaigun laguntzaile lanak egitera. Arropa beltz azpiko gutia frogatzera eman zidan, jan behar ere, behin hasita. Minik ez nuen sentitu, bada zer bait, eta eskerrak. Baina nazka, hura amai gabekoa. Hain zen handia sentitu nuen nazka! Enpo nintzen, eta hain zen txarra... Bigarren bortxaketa urte batzuk beranduxeago izan zen, behar baino lehenago heldu egin nahi izan nindutenean. Larunbat arratsa zen, partida bukatu ostean, eta koadrilako mutikotek putetxera eraman ninduten. Pattar urrin pairaezineko ematzar erdi biluzi baten aurrean gizentasuna ezin probatuz, behartu eta guzti egin ninduten hartara. Horrek bai egin zidala mina, fisikoa ez ezik bestea ere bai. Bestea bereziki. Auzoan ez tupan suak bezala hartu zuen berriak zalui lasterrean. Oraino senti dezaket orduko min hura, auzoan jada bizi ez banaiz ere, ipurtzuloan bezala ariman ere ongi sustraiuturik baitaukat. Baina hirugarrenean ez nuen halako minik sentitu, halako lotsarik, eta ez gu-

txitan gomutatzen naiz orduko epelaz. Lehenbiziko amodioarena bezalakoa izan zen niretzat, garrantzitsu.

Karrika dantza

Hamahiru urte izanen nituen, eta Mañuetako dendan nenbilen maka azken urtean. Lankide berria iritsi zitzaidan, Sakanako herri koxkor batetik, euskaldun peto-petoa. Dendara aunitz euskaldun etortzen ziren larunbatero; ekartzen zuten umerria edo barazkiak Santo Domingo azokako patioan saltzen zituzten eta erdietsiriko sosak gurean uzten zituzten arroza, pimentoia, odolkitarako espezieak, txokoltea, fruitu lehorrak eta hamaika gehiagoren truke. Askok uzten zituzten erosketak dendan bertan, eta San Nikolas aldera jotzen zuten hamaiketako legea egitera. Eguerdi aldera niri egokitzen zitzaidan zama hori guztia gurditzar batean autobus geltokira eramatea. Ni dendan sartu aitzin itxi zituzten Irati eta Plazaolako tren geltokiak, eta eskerrak, baina toki bakarrera joan behar banuen ere, gorriak ikusten nituen larunbateroko txango haietan. Halako batean nire jabea konturatu zen hamaika-hamabi urteko mukizu hau ez zela gauza gurditzar hura berak bakarrik bultzatzeko, areago Mañueta karrikako zuloatik ateratzeko, edozein bidetik joanda ere malda piko zuena, eta bigarren maka bilatu zuen. Egia esateko, kalean ez nuen sekularenean ere arazo handirik izan gurdia mugiarazteko, eta nire nekeak ikusi orduko ondokoren batek edo bestek laguntzen ninduten bulkatzen Gaztelu plazaraino Mañueta eta Txapitelan goiti, baina hasiera batean maka berriarena zinez eskertu nuen, lagun berriak konpainia eginen zidalakoan dendako lan gogorrean. Konpainia baino zer bait gehiago izanen zen.

Katea

Nire gurasoak Iruñerrikoak ziren, kokuak, Zendeakoak, eta pobreak. Hantxe itxoitean zetzan sekretua, hau da, hirira joan zirenek pobre jarraitu dute, eta herrian geratu zirenak aberats berri bilakatu ziren gero porlanari esker. Edo hala iduri zait niri

orain, nire familiaren etxea izan zena herrian geratu zirenen eskutan ikusten dudanean. Aita erreketek sartu zitzaigun gerratean 17 urterekin, baina ez zuen borrokarik nozitu, edo gutxi bederen, adiestramenduko maniobratan ez bazen. Halako batean zauritu, eta ospitalean eman zituen ia hiru urteak. Ez zen zauri larria, baina bere herritik hurbilekoa zen sargentu batek estimuan hartu eta berekin eraman zuen ospitaleko zuzkidura arduradun. Hura merkatua, aita gogoratzen zuenaren arabera. Aita ez zen aberastu baina, nahikoa izan zuen ongi bizirik eta ospitale psikiatrikoan bertan funtzionario postuarekin, alabaina sargentu hark dirutza egin zuen, herriz herri zebilela, hamaika herrixkatan sukaldatzeko behar zen gantza utziz eta magroa eramanez, graduazio altuko militarrentzako kario saltzen zena. Gerra bukatu zenetik gose garaiek luze jo zuten, eta gurea ez zen salbuespena izan. Ongi dut buruan hamaika urte nituela dendan maka sartzeko aita esan zidanean. Poztu nintzen. Baneramatzan hainbat urte etxeko txerri bien gorotzak baratzetaz baratz saltzen eta ateratako diru pixarrekin familia osoarentzako axuri odola erosten. Huraxe zen eguneroko afaria oraino Txantrean bizi ez ginen ama eta bost anaiendako. Aita ospitalean afaltzen zuen komunzki, ingresatutakoei familiek ematen zienetik puxka bilduz. Behar zen azala horretarako, baina aita soberan omen zeukan. Dendan hasi nintzenetik, asteke saria amari ematen nion, eta gauero dendan bertan erdi afaldurik iristen nintzaion.

Dendako lana gogorra zen, luzeagatik batik-bat, baina entrenigarria ere, eta eskolara joatetik libratu ninduen; hura pagotxa! Orain damu naiz nire garaian gehiago ikasi ez izanaz, baina garai hartan bazen zerbait maisu erretxinaren ostikoak ez jasotzea, zumeaz gehiago ez gozatzea. Guztiarekin ere inozo xamarra izan naiz beti, eta dendak irekitzen zizkidan aukerez ez nintzen sobera konturatzen, Dani iritsi bitartean bederen. Izan ere, Dani etorri zenean, gauza asko aldatu baitziren niretzat, gehiegi agian, eta neurri batean orain naizena berari esker izan zen.

Fandangoa

Danielen aita gerran hil zen. Herriko batzuek partida famatu bat osatu zuten, krudel eta basatienetakoa. Halako batean nahiko famatu ziren Sanferminetara etortzeko tren bat bahitu omen zutelako, eta asteburua Iruñean eman ostean, tren bere-tsuan frontera itzuli zirelako. Ez zituzten zigortu, eta borroka latzenak zeuden tokian paratuz ordainarazi zieten egindakoa. Orduan hil zen Danielen aita. Ez dakit zein nolako lotura zeukan Danielen familiak dendako jabearekin, baina gurekin hasi zenetik osaba-iloba bailiran agertu ziren beste guztion aurrean, nahiz benetako osaba batek iloba zainduko lukeen modu berean ez egin, izan ere, zein benetako osabak utziko luke bere iloba denda zahar baten soto ilunean gauero lo egiten? Gure jabeak bakarrik egin zezakeen hori, Serapio Donezar, ez gaiztoagatik zekenagatik baizik. Alabaina, eta bere deskarguan, beste garaiak ziren horiek, ez horren urrutikoak denboran, baina bai ahanztorraxeak; adimeneko distantzia edo.

Danielekin zortzi ginen dendan geundenok: dendako jabeak ziren senar-emazte Donezar-Garziraiain, mostradorearen atzean despatxatzen aritzen ziren Juan, Joxe eta Jabier enpleguak, eta hiru makok. Hirugarren maka Pedro Fermin jauna zen, Erraondoko indiano erdiitsu bat, erdaraz ia ez zekiena, eta neure ustean ia ezer egiten ez zuena, baina nonbait lan garrantzizkoren bat egiten zuen, neronek ikusten ez banuen ere. Izan ere, ni ez nintzen gauza halako lanik ikusteko, nekien bakarra zen maka deitzen ziotela baina inoiz ez zuela pakete bakar bat ere lurretik jaso. Nik zer gerta ere, eta aitzak agindu bezala, nik ikusi eta ixildu. Horixe baitzen ene leloa, ikusi eta ixildu.

Ez zen hura Danielen leloa baina. Harexen leloa zen, orain josta eta gero gerokoak. Bizitzaz jostatu nahi zuen pertsona zen, inondik inora. Gogoan dut sotoan geunden batean nola azaldu zidan koñaka botila bat lapurtzeko plana. Nik pasako nion trastiendako leihotik bera kalean zegoela probestuz. Izku-

tatuko zuen nonbait, eta bion artean edanen genuen gustora geroxeago. Botila eman nion, baina ez nuen probatu ere egin, dendatik ni atera orduko berak salduta zeukalako. Ateratako diru horiek bien artean partitu genituen. Amari ez nizkion eman, eta bizitza osoan jostatu nuen lehenbiziko soldata izan zen hura. Ez zen azkena ere izanen.

Baltsa

Astea dendan bertan ematen zuen Danielek, Pedro Fermin jaunarekin batera. Lo sotoan egiten zuten, gutti-goitti beheittiko gorputz garbiketa azokako komunetan behar zuen, eta zerabilten arropa gutxiaz jabearen emaztea arduratzen zen, Maria sorgina. Alabaina, gutxi zen dendan behar zen arropa: bata urdin luzea, bonbatxoak eta oihal nabarreko txiruka hotzak; barneko arropoz inoiz ez dut gauza handirik jakin. Larunbat arratsaldeetan herrira joaten zen osaba Rafaelenera, hasieran behinik-behin, izan ere, hilabeteak aitzina joan ahala etxerako bisitak bakan-tzen hasi baitziren nabarmen, bereziki sanferminetakoa gertatu zenetik. Zortzi edo bederatziko goiza zen, guretzat festarik gabeko eguna bederen, eta konpartsa zakatinetik behera zetorkigun. Gaita asotsez besteok baino lehenago konturatu zen Daniel. Dendako lana utzi, eta bikote europarraren bila abiatu zen lasterrean. Iruñeko erraldoiekin hantxe zebiltzan Lizarrako gaitari jaun eta jabe, Montero, Lazarraga eta Romanoren ondorengo beste guztiak, harroxko, txuri-gorritz jantzirik oraino beste inork egiten ez zuenean. Atsedenalbian zeudela probestuz, poltsikotik atera zuen gaita behar zuen zerbait, dendako sotoan gorderik bide zeukana, eta zezen plazan espontaneo batek eginen lukeen modura, jotzen hasi zen. Konpartsari laguntzen zebilen jendeari gustatu zitzaion antza, musikari kasu egin ziotenei bederik ere, baina gaiteroei ez zitzaion grazia zipitzik egin, eta modu zatarrez moztu zioten halako batean, nor zen ongi ezagututa nonbait. –Hi, barrankes, hoa hire zortziko matrakosoarekin Lezipapunttako urdeak zaintzera! Alu zorritsua!

Danielena gaitarien familia zen. Bera hartu zuen osaba Rafael 13 urterekin suertatu omen zen saritua gerra aurretik eginiko gaita leihaketa batean; ohorezko aipamena eta 50 pezeta! Daniel ere sartua zuten ofizioan, eta aparteko trebezia zeukan atabalatzen Mañuetako dendara arribatu zitzaigunean. Hala erakusten zigun, Serapiok ikusten ez zuenean, botila, kutxa zein apaletan eztiaren egurrezko bi kutxetekin joaz. Arratsalde-ro, eguna bukatzera zihoanean, dendako zakuak bete behar ziren. Babarrunetan saila luzea zen oso: txuri borobilak, luzeak, Barkokoak, gibeleskoak, Granjakoak, kanelak, horiak, frijoleak edo indabak, beltzak, gorriak, ñabarrak, palmeñak, kalboteak, pilarikak, txiroarenak...; txitxirioetan edota dilistetan ere baziren ale batzuk: Mexikokoa, pedrosillano, Kordobakoa, Mirafuenteskoa..., Salamankakoak, pardinak, purerako; purea egiteko ere babak eta ilarrak, eta alean berriz baba txikiak eta ur gozoko baba zabalak, alpiste nahasia, alpiste soila, kañamona, artatxikia, arroz txuria, arroz beltz osoa, arroz luzea, artoa, koko xehetua, irinak, semola, patata purea egiteko fekula... Jakiak tamaina ezberdineko zakuetan ekartzen zizkiguten, 25, 40, 50, 60 kiloko zakutan alegia. Dendako zakuak, berriz, guztiak berdinak ziren: berde ilunez tindaturiko arpillerazkoak, luzeak eta meharrek, ahalik eta gehien sartzeko dendako hormaren kontra lerro bakarrean. Hortxe aritzen ginen egunero, itxi aurreko orduetan, zakuak berdintzen, olibak gordetako metallezko lata zahar batez lagundurik. Nagusia gure gainean zegoenean dena zaluiago izaten zen, ez zuen inortxok ere ahoa zabaltzen, eta zintzo-zintzo betetzen ziren zakuak bihirik alferrikan galdu gabe. Hura falta zenean, oster, Daniel hasten zen bere kontzertuekin, eta lata ezean zakuak ezin berdindu; hura errieta Serapiok egiten ziguna arratsaldeko zortzietarako zakuak bete gabe uzten bagenituen. Behin baino gehiagotan geratu behar izan nintzen Danielekin zaku betetze lanetan denda itxita zegoela. Horrelakoetan ere ez zitzaidan sobera ardura, baina hurrengo egunean epelak entzun behar nituen nagusiarengandik faltan botatzen bazuen bezperan ohosturiko afaria.

Jota zaharra

Sanferminetakoa Danielen osabarengana iritsi zen. Tontakeria bat izan zen, eta nagusiak ez zuen sobera gaizki hartu makak baimena eskatu gabe dendatik irtetea, areago halako egun batean eta musika konpas dozena pare bat gaitaz jotzeko, areago bezero gehiago erakartzeko baliagarria izan zitekeen neurrian, baina Rafaelek ezin okerrago hartu zuen. Garai horretan Lizarrako familiek kontrolpean zuten Nafarroako gaitaren mundua, eta bokilak zein bestelakoak lortzeko ez omen zegoen beste biderik. Danielekin gertaturikoak arazoak ekar lekizkioke Rafaeli, eta gainera ez zegoen zalantzarik Danielen nortasunaz, nork joko zukeen bestenaz Arbazuko zortzikoaren hasiera ondoko herriko gaitari batek ez bazuen? Danielen etorkizun hurbila garbi zegoen: ez zen familiarekin gaita zein danbor jole denbora luzexka batez aterako. Gainera dendan egonda, etorkizun hori are zalantzarriago gertatzen zen. Eta etxekoendako ez zen gauza filuse sabel bat gutxiago izatea egunero bi aldiz berdintzeko. Gaitari faltarengatik ez zen behinik-behin. Daniel hobe hirian.

Baina Danielek ez zuen horren errazki onartu. Bere familiarekin ez zen berriz ere gaitari aterako, baina horrek ez zuen esan nahi gaita jotzeko bidea guztiz itxita zeukanik. Bilatu behar zuen beste inor gaitaren arrastoan sartuko zuena, baina nor? Iruñean zail zegoen gaia, bertako azken gaitariek utzia zutenetik bereziki. Eta Lizarrakoeekin jai zeukan edozein modutan ere, batzuekin zein bestetzuekin. Konponbidea dendan bertan agertu zitzaion baina, Pedro Fermin Izko, Erraondoko indianoaren eskutik.

Pedro Fermin ez zen gaitaria, baina bai ordea ttunttuneroa. Kaliforniara joan aitzin ttunttuna jotzen ibilia zen Erraondon, bere herrian, Zangotza bideko herrixkan hain zuzen. Asko ziren Pedro Ferminen ezagutzen zituen jotzeak, etxean aitarengandik ikasiak, Ttunttunoineko sukaldean. Aita luze ibilia zitzaien Izaga eta Taxoarez bi aldeetako herrietan mezeten eta

bestelakoen animatzaile. Pedro Ferminen ongi zuen gogoan bere aitak kontaturikoak oro, nola Liberriko jauretxean bertakoen afarian ibilia zen musikari, edota nola Elkanon izan zen jotzen hango ingurutxo eta joku dantzak idazlea omen zen herriko apaizaren oniritziz, on Joatxin Lizarragaren abegionez alegia. Pedro Fermini, baina, ez zitzaion halako egoerarik suertatu, eta Ameriketara aitak irakatsitako jotze guztiak ongi errepasatuak bazituen ere, itzulitakoan inork ez zion interes zipitzik agertu. Guztiarekin ere, Pedro Fermini min handien egin ziona euskararen galtzea izan zen, Ameriketara baino lehen lur euskalduna utzi, eta bueltan topaturikoa beste zerbaite baitzen; hain denbora laburrean nola alda zitekeen horrenbeste, paisaia eta guzti, sinistezina zitzaion. Baina orain izanen zuen aukera gaitari nahi zuen horri zerbaite erakusteko, azken buruan, ttun-ttun edo gaita berdina zen, kontua zen betiko jotzeak gorde-tzea, betiko jotzeak berrerrabiltzea, betiko jotzeekin jendeak dantza egitea eta ongi pasatzea. Zekizkien guztiak Sakanako mutikoari behin erakutsita, lasai har zezakeen azken hatsa.

Bolerak

Kulantxoren txakolinean inoiz egona nintzen aitarekin. Hark ikaragarri laket zuen Agerre jauretxe zaharreko sotoan sartzea eta orduak ematea txakolin gorri garratza urrupatzen. Etxetik eramaten zuen zerbaite jateko, aztura zaharrari jarraikiz, komunzki sardin-zaharrak, eta hantxe egoten zen betiko lagunekin tar-tarrea eta arrain gatzatuak periodikotan zanpatzen garbitzearen. Horiek zireratekeen bere bizitza osoan baliaturiko egunkari bakarrak. Urmeneta alkateak eraikina botarazi zuenean gure aitak nabarmen zahartu zen, etxearekin erori ziren harri puxkak berauk zamatuta urteak bailiran. Azken txakolinaren azkena, zihoan mundu baten parabola, etxean arrotz sentitzen hasia zen belaunaldi oso baten akabera. Aitak ez zuen ezagutzen sortzen ari zen hiri berria, ez utzitako herria, eta horren ondorioz gero eta nekezago kokatzen zuen bere burua

munduan, gero eta ezezagunagoa egiten zitzaion bere baita. Txakolindegirik gabe, lantoki zuen teilatu gorriko etxean bilatu zuen aterpe, lanean gero eta sartzenago, bezeroengandik geroz eta hurbitzenago. *Eroetxea neuretxea* zioen askotan etsipen ukitu batez, etxekoengandik urrundu ahala.

Bi urtetara Kulantxorena zena toki apartan berreraiki zuten, ez soto moduan, agerian baizik. Lehen barne zena orain kanpo da, lehen errai zena orain azala. Ikuspegi berria inondik inora ere, baina hutsa. Izen berria jarri zioten, Zaldi Txuriaren ostatua, dena itxura eta handiustea. Dorre txikerra ere ezarri zioten hornitzaile, eta udal beharretarako bideraturik, kaleko jendeari hertsirik eman zioten bataioa. Urmenetak alkatetza utzi baino zerbait lehenago, txakolindegiko zaharretako giroa berpiztu nahi izan zuen gau batez bederen. Aitzakia lan etnografiko bat egitea zen, *Pregón* aldizkarian pediatria gazte batek agertu behar zuena. Tartearen ere, eta benetako helburu, sekulako festa egin zuten udalaren kontura, Il-tzarbeto Iturrikoan belokitarrek oraino egiten zuten txakolin beltza ekarriz. Festari are itxura folklorikoago emate aldera, gaitari batzuk etorrarazi zituzten. Gaitarien mundua ez zegoen urte haietan bere onenetan Iruñean, eta sanferminetan jotzeko udaletxera iritsia zen Bilboko gazte batzuen eskaintza probestuz, hantxe azaldu zen Bilbotiko taldea frogantza moduan.

Txakolin gauari hasiera eman baino zertxobait lehenago, Bizkaitik etorri ziren gaitari gazteak dendatik pasatu ziren sardinen zaharrak erostera. Nonbait txakolindegiko ohituren berri bazuten hauek. Hantxe geunden bi maka gazteok zakuak betetzen, eta askotan bezala, Dani txistuka ari zen Erraondoko ttuntuneroak erakutsitako fistukaren bat. –Hori bai dela fistuka ederra! Non ikasi duzu halako doinu zaharrik? –Ez hemendik sobera urruti jauna, baina berorrek nahiko balu beste zenbait gehiago txistukatuko nizkioke trago baten ordainetan-.

Bilboko gaitariekin izaniko elkarrizketa laburrak fruitu ederak ekarri zion Danieli. Ardo pare bat hartu ostean, eta betiko

lagunak bailiran, txakolindegiko festara joan zen danborjole. Hurrengo goizean Dani ez zen dendatik azaldu, eta jabea ikaragarri haserretu zitzaion handik egun pare batera berriz ere agertuko ez zela esan zionean. Ni ere aunitz tristatu nintzen, baina aisa ulertzen nuen Daniren erabakia, hori baitzen bere betiko ametsa. Hilabete batzuk pasatu ziren Dani berriz ere ikusi bitartean. Sanferminetan izan zen, eta konpartsarekin zihoan gaitari, orduko hartan baimen guztiekin eta soldatapean. Ardo pare bat hartzera gonbidatu zidan, eta gehiago izanen ziren dendarako bideak lotuta eramanez ez banindu. Orduan esan zidan nik ere gaita jotzen ikasteko aukera banuela, elkarrekin joko genuela, denda malapartatu hura uzteko eta bizitzaz zertxobait gehiago jostatzeko. Hasiera batean ez nion kasu handirik egin nahi izan, baina ideia hori itzuli-mitzulika hasi zen ene kaskoan pakerik eman gabe. Udazken hartan, Oberenak antolatutik, gaita klaseak Labriten hasi behar zirela irakurri nuen afitxa batean, eta bi aldiz pentsatu gabe, izena eman nuen damutu aitzin. Ikasi ikasi eginen nuen, agian, baina denda oraino utzi gabe; ez nintzen guztiz ausartzen, ezagun zitzaidan mundu ia bakarra bainuen, eta etxean ez zuten halakorik ulertuko, ez baimenik emanen.

Bukaerako kalejira

Gaita klaseak hasi baino egun pare bat lehenago Dani dendara etorri zen. –Itxi ostean Marzelianon, hi. –Hantxe izanen nauk-. Ardo beltza ebaki zitekeen, ardoa baino, gelatina zirudien. Birikak osteratxoak ziren, bero zirauteno behintzat. –*Aixkol y birika cosa rica*. –Zer diok, hik jan al duk inoiz aixkola? Ardi kaka hobea duk eta aixkola baino. Hi mutur fin askoa haiz horrelako jakietarako, musu ederregia daukak horrelako janak desitxuratzeko-. Isilik bukatu nuen azken birika muturra ezpainak pega-pega likatsu nituela. –Zer nahi duk? Zertarako deitu didak? –Izena eman duk gaita akademian, zergatik? –Ikasi nahi diat. –Zertarako baina?-. Ez nuen erantzun

argirik. Daniren kasuan, emanda zetorkion, halako egurra halako ezpala, baina nirean ez zen musikari bat ere familia osoan. Marzelianotik atera eta Jarauta aldera jo genuen. Urri-
zelki, Orexa, Ronkal, Goal, 84... Aitzurtzen ari nintzen, mala-
maneran gainera. –Aurkeztu behar diat lagun bat-. Txakolin
gauerako Bilbotik etorririko gaitari horietakoa zen. Huntaz eta
hartaz jarduki ginen solas aspertuan Paris-Nizari ekiten genio-
la. Halako batean, eta osoro arraildurik nengoela, zuzenean
galdetu zidaten ea gaitaria izan nahi nuenentz. Jakina. Zerga-
tik. Ez nuen sobera argi, baina bazen zerbait geroz eta garbia-
go neukana, eta mozkorrak lotsatu gabe esatera ahalbidetzen
zidana: Danielekin nahi nuen. Maka edo gaitari, Danirekin ma-
ka edo Danirekin gaitari nahi nuen. Hala behar zuen zoriontsu
izanen banintz. Orduan, eta Danielen oniritziz, Bilboko mai-
suak bedeinkapena eman zidan, gotzaiak sendotza legez. Ez
nuen minik sentitu, hain nengoen ttotall eginda, baina harrez
geroztik familia berri batean sartu nintzen, inoiz ezagutu gabe-
ko kofradia berri batean. Ordutik aurrera gaitari izanen nin-
tzen, Daniren bikotea, Bilboko lagunaren maisutzapean, Bilbo-
ko maisuaren laguntzapean. Hura gaita-logia.

Urteak pasatu dira, berrogei inguru, eta egun oraino hemen
nauzue, gaitari profesionala, oraintxe Sanferminetako zezen
ostea musikaz betetzen, arratsaldeko dantzaldiari bukaera ema-
ten. Ondoan nire Dani dago, lehenbiziko gaitarena jotzen, eta
ni bigarrenarena. Gaurkoan Daniren iloba dugu danborjole,
Rafaeltxo, herritik espreski etorria horretarako. Inoiz dendare-
kin gogoratzen jarraitzen dut, baina ez naiz damu bere mo-
mentuan utzi izanaz. Aspaldixkoan joan zitzaidan aita ere as-
kotan izaten dut gogoan, ez bainuke bera bezain txoraturik
bukatu nahi izanen. Bizitza honetan ahal dena baino, nahi de-
na egin behar baita. Mugak muga, oztopoak oztopo. Ni Zenon
Iribarren nauzue, Iruñeko azken gaitaria. Nork esanen lidake?

Joxe Miel Bidador

AMETS BATEN ITZALA
16 pausoko Gurutze-bidea
edo ametsik gogoratzen ez duen baten aitormena

1

Oinez ibiltzen hasi naizenean konturatu naiz: airean noa (egia esan, ez dakit nola ibiltzen den airean), lurrik zapaldu gabe, lainoen artean banenbil bezala (hau badakit, turbulenzia egoten dira). Bat-batean, *google* mapa bat agertu zait oinpean. Ez naiz harritu, eta horrek harritu nau. Makurtzea eta eskuarekin mugitzea bat izan da; nire eskua ordenagailuko arratoia. *Markina* idatzi eta eskuarekin sakatu dut. Hantxe agertu naiz, plazaren erdi-erdian. Ezker eskuarekin urreratu dut mapa, oster. *Karmeldarren komentua*. Sakatzean aita Luis aurkitu dut pasilloan, eskuan paper mordoa duela. Julen Urkizaren ahotsa entzun dut ondoren, deitu egin dio. Ez nau ikusi albotik pasatzean eta ametsetan nabilela pentsatzen hasi naiz. Ondoren, oinpeko mapan aldizkari honen izena idatzi dut, silabak atzekoz aurrera jarri: MEL-KAR. Eta liburu denda erraldoi batean agertu naiz. Libururik ez dago, ordea, eta denak saldu dituztela agertu dit dendariak. Oraingoan bai, ametsetan nabilela egiaztatu dut, ez dago zalantzarik. Txirrina jo dute, denda ixteko ordua. Orduantxe esnatu naiz.

Esnatu eta altxatu, di-da, korrika batean. Makarrak kentzeko astirik gabe, ordenagailua piztu eta arratoiaren eskumako bo-toia sakatuz, “berria” klikatu dut.

Ametsen egunerokoa. Halaxe jarri diot izena karpetari. Bada jendea egunerokoa gertaera arruntak idazteko erabiltzen duena. Era berean, bada jendea egunerokoa ametsak idatzi eta, hurrengo batean, inspirazio iturri gertatuko zaizkiola sinesten duenik ere. Ez didazue esango ez dagoenik diferentziarik. Egunerokoa gris apalez ala ostadarraren kolorez idatzi. Horiek artistak dira, edo artista izateko asmoz ari direnak.

Eta amets horietatik sortuko da literaturaren historian zere-sana emango duen ipuina, poema edo nobela. Edo *ipu-po-no*-a. Eta genero berri horren arrakasta artistaren kalitatearen eta aita-pontekoaren arabera izango da.

Baina benetan esnatu naizenean, ametsak errealtate bihurtzen diren ametsetik esnatu naizenean, ameslari txarra naizela gogoratu dut. Normalean ez ditut ametsak gogoratzen, egiten ditudala dakidan arren. Adituei zor diet hori ikasi izana. Baita REM musika taldea besterik ez zela uste hutsala argitu izana ere. Normalean, amets egin dudala amestu dut. Ez dut gehiago gogoratzen. Ondorioz, ametsik eza inspirazio iturri bilakatzen ez den bitartean, artista izateko nire asmoak ametsarekin desagertu zaizkit.

2

Nire lagun batek dionenez ametsetan ari denean konturatu egiten da. Esnatzeko unea heltzen ari dela izaten omen da batzutan. Beste batzutan, berriz, minutu gutxi batzuk geratzen omen zaizkio ametsari, eta hor (dagoenean bon-bon) barrenera arte sartzen omen da. Normalean, sexu ametsak izaten omen dira holakoak. Ez naiz ausartu inoiz galdetzera zer esan nahi duen barrenera arte sartzen omen den horrekin. Nik gaztaroan izaten nituen antzekoak, baina esnatu arte ez nintzen konturatzen

ametsa zirenik. Ez dut harritzeko ezer esango birjintasuna ametsetan galdu genuela badiot. Eta badakit zergatik darabildan plurala. Ez da xehetasunen unea, baina eskolako andereñoarekin egitea ez da gauerdiko hontzaren eztula (akaso ahuntzarena zen?). Pijamak ez zion gezurrik. Poluzioa deitzen diote adituek. Gero ikasi genuen kutsadura ere esan nahi duela izenak.

3 eta bat

Txurdinagako etxe baten helbidea eman zioten. Urduri egin zuen bidea, eta urduriago jarri zen atezain automatikoak aurrerako bidea eman zionean. Etxearen barnealdera eramanez zuen ijitoak. Mahai bat erdian, bi aulki alboetan eta Jesusen Bihotza parretan.

Bere buruari hitz egin zion lasaitu nahian, salatxo batean zain egin zituen minutu luzeetan.

Txanda heltzean, gelatxo estu batera sartu, eseri eta eskuak gurutzatu zituen mahai gainean. Ez zuen nahi eskua dardarka hasterik, zaharra berehala konturatuko baitzen beldurraz. Bizpahiru galdera egin zizkion.

- Interesgarria -esan eta isilik geratu zen zaharra eskuetatik begirik kendu gabe.
- Ez naiz etorri eskua irakurtzera -esan zuen, han egon beharraz ia damututa.
- Zuk zure ametsetak jakin nahi duzu -jarraitu zion zaharrrak-. Eta ametsak hizkuntza bat dira. Munduaren hizkuntza egiten badute nik interpretatu ditzaket. Baina ametsak zure arimaren hizkuntza egiten badute, zuk bakarrik uler ditzakezu.
- Arriskatzera ausartu zen.
- Bi bider izan dut amets berbera. Kanean nenbilen pasieran, norbaitek eskutik heldu ninduen. Ez dakit nor

zen. Eskutik helduta gure herrian *Harrigorri* deitzen diogun toki batetara eraman ninduen, egurrezko bale batzuen babespera. Lurrean lauki ilun bat zegoen gainean heldulekua zuela.

Zain geratu zen une batez, baina zaharrak isilik jarraitu zuen.

- Hemen altxor bat aurkituko duzu -esan zidan eskutik heltzen zidanak. Eta tapa altxatzera nindoanean, esnatu egin nintzen. Bai lehenengoan, baita bigarren aldian ere.
- Joan zaitez, beraz, altxorra zain edukiko duzu -esan zion zaharrak.

Harrituta geratu zen hasieran, amorratuta gero. Horretarako ez zuen zaharrarengana joan beharrik. Denbora galdu besterik ez zuela egin pentsatzean, hizketan hasi zitzaion:

- Zure ametsa zaila da. Gauza apalak ohi ez bezalakoak dira, eta jakintsuek bakarrik ikus ditzakete. Ni ez naiz jakintsua, beste arte batzuk ezagutu behar ditut, eskua irakurtzea esaterako.
- Eta nola altxatuko dut zoruko laukia?
- Nik ametsak interpretatu besterik ez ditut egiten. Ez dakit errealitate bihurtzen.

4

Gorago agertu dugunez, pijama bustitzea ohikoa izan daiteke. Bakarrik bizi bazara ez dago arazorik, baina norbait baduzu inguruan, nola argitu ametsaren ondorioa? Ametsen azalpena eman beharra ere! Isilean erantzi eta garbigailuan sartzea da onena, baina han ager daiteke ama, arropa zuriak eta koloredunak banatzera. Gosaltzerakoan kafesneak zipriztindu dizula esan dezakezu, amak garbigailua jartzearekin nahiko lan duela eta ez

dagoela xehetasunetarako esperantzarekin. Bikotea baduzu al-
boan errazagoa egingo zaizu begiekin egindako galderari eran-
tzutea: *zurekin egin dut amets*. Noski, sekula ez da komeni inori
aitortzea nor (edo zer) izan den ametsetan agertu zaizuna.

5 eta bi

Amets egin zuen, amesgaiztoa. Ametsean ahaide guztiak
hiltzen zitzaizkion, urrunekoak zein gertukoak. Izerditan esna-
tu zen, eta ametsak esanahiren bat zuelakoan geratu zen.

Zalantzak uxatu asmoz, espezialistarenganako bidea hartu
zuen.

- Zure ametsak –esan zion honek– ahaide guztiak galdu-
ko dituzula esan nahi du.

Lasaitu ordeztu, barruak estutua eman zion eta ezinegon
areagotu zitzaion. Bigarren espezialista batenganako bidea
egin zuen.

- Zure ametsak –esan zion beste honek– ahaide guztietatik
hiltzen azkena izango zarela esan nahi du.

Barrua baretu zion erantzunak, lasaitu ederra hartu zuen gi-
zagaixoak.

6

Nork ez du amestu hegan dabilela. Edo beste era batean
esan dezagun, amildegi batetik behera jausten ari zarela eta,
lurrearekin jotzeko unean, esnatu egiten zarela.

Baina nola egiten dugu hegan ametsetan? Nire galderak
erantzun desberdinak jaso ditu. Batzuk eskuak eta hankak za-
balduta egiten dute; beste batzuk, eskuak luze aurrean dituzte-
la, tankera aerodinamikoa hartuz. Badira igerian ariko balira
legez egiten dutenak, braza erara, baina badirudi hegan egite-
ko ez dela oso aproposa tximeleta era.

Gauza erraza da hegan egitea. Leku askorik ez duzu behar, ohean egotea nahiko, edo zuhaitz baten azpian edo hondartzan, toailan etzanda. Hegaldi merkeak aspaldiko gauza dira.

Hegan egitea gauza bat da, baina ez da erraza izaten nahi den norabideari eustea, ez eta abiadura egokia mantentzea. Hori esperientziarekin datorren kontua da. Hala diote adituek.

Hala ere, hegan egin ezin duen jendea ere bada; kosta egingen zaie lurra utzi eta aireratzea. Esfortzu itzela egin ondoren, ezinean, nekatuta esnatzen den jendea ere badago. Baina arazoak lur hartzeko orduan izaten dira. Behin baino gehiagotan gertatu dira istripuak.

Honek guztiak tolerantziaren garrantzia erakusten digu, ametsetan hegan egitea ez baita bera eta berbera gizaki guztiontzat. Barregarria dirudien arren, hegan egiteko era errespetatu beharko genuke, gure ikuspuntu estuan babestu eta isolatuta geratu orde.

7 eta hiru

Pobrea zen ondasunez, baina aberatsa ametsetan. Aberats eta dirudun ikusten zuen bere burua, derrigorrezko lanik egin gabe biziz, eguneko ordu bakoitza nahi zuen hartan gozatuz. Ametsek, orde, ez zuten urdailik betetzen.

Egun batean, hirira joatea erabaki zuen, entzuna baitzuen hirian ametsak errealtate bihurtzen zirela. Pentsatu eta egin, maletatxo batean hiruzpalau gauza sartu eta goizeko lehen autobusa hartu zuen.

Lehen okindegia ikusi zuenean, barrura sartu zen, lanbide hura izan baitzuen azken urtetan. Bigarren, hirugarren eta lauugarren okindegia ere bisitatu zuen. Baina lehen astean ez zuen lanik topatu.

Sukaldari, mekaniko, etxez etxeko saltzaile, igeltsero... , ate guztiak jo zituen, baina hirian ametsak beti ez zirela betetzen sinesten hasi zen.

Laugarren astean inoiz baino hustuago sentitu zuen urdaila; herrian, sikiera, bazuen urdaila engainatzeko haina.

Hirira heldu eta ikusitako lehen okindegi hartan ogia lapurtu eta korrika alde egin zuen. Okina deiadarka hasi zen atera irtenda, ez ogiaren balioa hainbesterainokoa zelako, baizik eta eguneroko ogia lapurtu beharra ulertzen ez zuelako. Kalean zainketa lanetan zebilen polizia batek harrapatu zuen.

Pare bat egun egin zituen kartzelan, epailearengana eraman aurretik.

- Zergatik lapurtu duzu ogi sinple bat? –galdetu zion epaileak.
- Gosea nuelako.
- Eguneroko ogia eguneroko lanarekin ordaintzen da –agertu zion epaileak, ume bati ariko balitzaio bezala.
- Baina lanik ez dut.
- Lanik egin gabe bizitzea pentsatzen zenuen?

Bere ametsez hitz egin zion. Behin eta berriz egiten zituen amets haietaz. Epaileak, ordea, ez zekien nola hartu gizon haren jarduna; azkenean inuzentetzat hartu zuen, gizajotzat.

- Ametsak amets besterik ez dira –jarraitu zion ume koxkor bati ari balitzaio bezala-. Denok egiten ditugu ametsak. Hara! Bart neronek ere polit bat egin dut: bazen ikusgarritzko altxor bat haritz baten oinean lurperatua. Herrian zubi luze bat pasa behar izan nuen errota batera heltzeko. Ondoren, errotaren atzeko aldetik, mendiko bideari jarraitu eta ur garbi eta freskoko iturri batera heldu nintzen. Haren oinetan hasten zen hariztia. Oraindik gogoan dut haritzaren irudia: bi beso lodi zituen ezker-eskuma, baita hirugarrenaren orbaina ere, tximistaren batek jo eta errea. Hantxe harrotu nion lurrari azaleko goroldioa. Eta makila baten laguntzaz zuloa egiten

hasi nintzen. Berehala agertu zen kutxa baten estalkia. Irekitzean nire begiek kutxan agertutako urrearen distira jaso zuten.

- Nik egindako ametsak baino ederragoa da.
- Lehen ere esan dizut –jarraitu zuen epaileak-, ametsak amets besterik ez dira. Akaso gaur goizean nire lana utzi dut? Akaso aitzurra hartu eta leku horren bila abiatu naiz? Hori eroen kontua da!

Eskarmenturako, okindegia garbitu behar izan zuen aste bezet. Pozez ikusten zuen okinak, eta, deiadar egin beharraz apur bat damututa, lana eskaini zion.

- Ez, eskerrik asko –erantzun zion ezpainetako irribarrea ezkutatu gabe-, herrira itzuli behar dut, han dago nire mundua.

Irin arrastoak garbitu eta goizeko lehen autobusa hartu zuen herrirako asmotan. Sarreran zubi luze bat pasatu zuen autobusak, eta errota parera heltzean gera zedila eskatu zion txoferrari. Urduri, baina ezpainetako irribarreari eutsiz, errota-
ren atzeko aldetik, mendiko bideari jarraitu eta ur garbi eta freskoko iturri batera heldu zen. Hantxe hasten zen haritzia. Barrurako bidea hartu zuen, haritz bakoitzaren irudian begirada txertatuz. Halako batean, bizpahiru ordu zeramatzala, ezker-
-eskuma bi beso lodi zituen haritz baten aurrean belaunikatu zen. Bai, hantxe agertu zitzaion hirugarrenaren orbaina ere, tximistaren batek jo eta erre. Azaleko goroldioa harrotu zion lurrari. Eta makila baten laguntzaz zuloa egiten hasi zen. Bat-batean agertu zitzaion kutxa baten estalkia. Irekitzean, gizon haren begiak kutxan agertutako urrearen distiraz bete ziren.

Hor amai daiteke ametsei buruzko istorioa, edo ikasbideren bat ere eskain dakioke hala nahi lukeenari (edo bi, edo hiru), baina hori ez da ametsak gogoratzen ez dituen baten lana. Badut aurreragorik!

8

Denok ezagutzen ditugu telebistako serieak. Jarraipena duten zatiak dira. Badira antzeko ametsak ere. Umetan jolasten genuenean indioaren papera betetzen nuen beti. Ez dakit bakeroak onak zirelako eta koadrilako buruek paperak eurentzako hartzen zituztelako zen ala indioarena eginaz ni neu sentitzen nintzelako. Gaur egun ere, bigarren papera nahiago. Egunez nahiko ez eta gauez amets egin nuen behin. Indioa izaten jarraitzen nuen, trikimailuak eta trapukeriak erabiliz bakeroei ziria sartu eta haien ilajearen jabe egin nintzen. Goizean, amaitu izanaren sentipen gazi-gozoa sentitu nuen. Gaua noiz helduko zain egon nintzen ametsarekin jarraitzeko. Ahalegin berezirik gabe lortu nuela dut gogoan. Bigarren gauean, banketxeko zaindaria lo-belarrarekin lokar arazi eta bertako urre-gorri guztien jabe egin nintzen. A ze pagotxa! Sheriffa atzetik tiroka nuela alde egitea lortu nuen. Hirugarren gaua ez zen berehalakoan heldu. Baina oraingoan ez zen ametsik izan. Batetik, pentsatzen dut ea zertarako itzuli behar nuen herri hartara urre-gorritz betetako zaku pareta edukita, ametsa bete bainuen. Bestetik, eta hau tristeagoa izan daiteke, Sheriffak bere lana bete zuela eta ametsetakoa aktore nagusirik gabe ezin nuela halakorik egin. Hori ere pentsatu izan dut.

9

Behin eta berriz amets berberak (edo antzekoak) egitearen sentsazioak zer pentsatua eman izan dit sarri. Erortzearena aipatua dago lehendik. Baina nork ez du inoiz amestu aurrera egin nahi eta ezinarena. Atzean imantzar bat daukazu edo itzelezko haize bolada aurrez aurre. Ihes egin nahi eta ezin. Txistua irentsi behar izan dut pentsatze hutsarekin. Eta atea ireki eta mamutzarra agertzen zaizunean? Egia da horrelakoak haurtzaroan ematen direla gehien. Gero, heltzen goazen neurrian, atearen atzean enpresako ugazaba edo politikoa bat agertzen zaizkizu. Gauzak al-

datu dira, baina bizkarrezurrean gora zabaltzen zaizun izua berbera da.

10 eta lau

Parisen, Luis IX.ak amets bitxi bat egin zuen: lainoen artetik dirdai eta distirak agertu zitzaizkion, eta ez eguzkiarenak, hain zuzen.

Horrela, bera baino lehenagoko hainbat eta hainbat erregek bezala, Jainkoak hasitako lana, fedegabeen erreinua indarrez hartu eta gaizkia ezabatzearena, amaitzea erabaki zuen.

- Musulmandarren erregea zurrutari eta mozkortia da –esan zuen Luis IX.a erregeak-. Amets egin dut, erregearen ametsa. Errege fedegabe honen kutzak sekula ikusi gabeko altxorrez beteta agertu zaizkit ametsetan. Beneran aberastuko gara oraingo honetan, eta Jainkoaren aintza eta gloriarako izango da gainera. Eta Berak, gure Jainko ahaltsuak, neurrigabeko borondatea erakutsiz, Bere gudarostea ordaintzen alferrik dirurik ez gastatzeko erregutu dit. Fededunei jakinarazi dirua behar dela Jainkoaren gudariak ordaintzeko, sosak behar direla arabiar fedegabeak garaituko dituzten gudarosteak ordaintzeko, txintxina behar dugula sinesgabeen mingainek Bere izena ahoska dezaten. Dirutza eskatzen dugu basamortu latz eta gogorrean Bere izena barreiatu eta zabaltzeko. Hala izan bedi!

Luis IX.ak egundoko gudarostea hornitu zuen armaz. Denak aberastuko zirela promes eginda, Mediterraneoan zeharkatu zuten Egiptorantz.

11

Badira jateko batzuk sustantzia handikoak. Krisi garai honean aurrezteko balio dutenak: txorizoa, piperra, zenbait saltsa.

Bazkaldu ondoren, meriendan ere haien gustua igotzen zaizu hestegorrian gora. Zer esanik ez euro bateko ardoak (kartoizko ardo-ontziez ari naiz, ez euro eta piko kobratzen dizuten basoerdiei buruz). Antzekoa gertatzen da amets batzuekin. Oporretako azken eguna da eta lanean hasi behar duzu, edo ikasten jarraitu behar duzu eta ikasmaila errepikatzen zoaz. Batzuk ahaztu egiten dira, baina amets horiek egun guztian dabilzkizu jira-buelta-ka zure garun inguruan. Eta beldurrez oheratzen zara, serietan bezala, bigarren kapitulua amestuko duzun beldurrez. Zorionez, beste amets bat egin duzu, ugazabak eskuzabal hartu zaitu opor bueltan, edo beldurrik gabe joan zara ikastetxera. Baina, gauza guztiek dute bere baina, amets setako irakasleak (ez naiz ari birjintasuna galdu arazi zizun hari buruz) azterketa jarri dizu lehen egunean udaran zure neuronek galdu duten gaitasuna jakin nahian.

12

Azken kasu hau ikusita, zeri deitzen diogu ametsa eta zeri amesgaiztoa?

13 eta bost

Asmatzaileengana joaten zena zen. Urtean behin bai, behintzat. Batzuk asmatu zuten, beste batzuk ez; batzuk igarri zuten, beste batzuk ez. Orduko hartan, egindako ametsen bidez ea etorkizuna asmatzerik ba ote zen galdetzeraz joan zen.

Halako batean, ea etorkizuna zergatik jakin nahi zuen galdetu zion asmatzaile zaharrak.

- Gertatzea gustatuko ez litzaidakeena aldatzeko.
- Orduan, hori ez litzateke etorkizuna izango -esan zion asmatzaileak.
- Agian, gerora etorriko diren gertaeren aurrean prestatuta egoteko jakin nahi dut etorkizuna.

- Gauza onak badira, ustekabe atsegina izango da –esan zion-. Gauza txarrak badira, berriz, gertatu baino lehenagotik sufrituko duzu.
- Gizakia naiz, eta gizakiok etorkizunaren arabera bizi gara.

Pentsakor geratu zen asmatzailea. Gero hizketan hasi zen berriro:

- Pertsonen etorkizuna asmatzetik bizi naiz. Karten, eskuaren, txotxen zientziak ezagutzen ditut, baita ametsena ere. Eta badakit nola erabili dena idatzita dagoen tokian sartzeko. Han iragana irakur dezaket, ahaztua dena gogorarazi, eta orainaren seinaleak uler ditzaket.
- Orduan?
- Kontsultatzen nautenean ez dut etorkizunik irakurtzen; etorkizuna asmatu egiten dut. Etorkizuna ez dagoelako gure eskuetan.
- Eta nola asmatzen duzu etorkizuna?
- Orainaren seinaleak jarraituz. Orainean dago sekretua; orainari arreta jartzen badiozu, hobetu dezakezu. Eta oraina hobetzen baduzu, etorriko dena ere hobea izango da. Ahaztu ezazu etorkizuna eta bizi ezazu eguna, etorkizuna orainean aldatzeko idatzia izan baitzen.

14

Zergatik iruditzen zaizkigu haurtzaroko ametsak gaztarokoak edo zahartzarokoak baino oparagoak? Baina, agian, ez nuke plurala erabili behar. Bi pertsona mota ezagutzen ditut nire adin posturakoak: batzuk ez gara ezertaz gogoratzen, ametsaren erdian eta ezordutan esnatzen ez bagara behintzat. Beste batzuk, berriz, xehetasunik txikiena ere gogoratzeko gai dira. Inbidia ematen didate halakoek, arratsaldeko bostetan goizaldean ames-

tutakoa kontatuko dizute, goitik behera, unean bertan ametseko imajinak betaurrean balituzte bezala.

Adituren bati eskatu beharko diot nire kasuaren berri emateko (hil zen Freud?). Nik neure teoria dut, baina sekulako ergelkeria iruditzen zait hemen idazteko. Neuretzako gordeko dut, ez baitut inoren barregarik ase nahi horrelako gai serioarekin.

15 eta sei

Eguzkia irten baino lehen esnatu zen, ametsik gogoratu gabe. Denbora asko zen jadanik hara joan zela. Arin pasa zitzaizkion hilabeteak, lehenengo egunak luzeak izan baziren ere.

Dutxatu, jantzi eta isilean jaitsi zen. Hiria lo zegoen oraindik. Kafetera martxan jarri zuen sandwicharen ogia txigortzen zuen bitartean. Ohitu gabe zegoen oraindik kakahueteen gurin hartara. Sustantzi gabeko basokada kafea batean, aterpera irten zen beste eskuan sandwich likin hura zuela. Eskailera mailan eseri zen. Kaleko argiak automatikoki itzali ziren eta alboko etxean mugimendua nabaritu zuen.

Zigarroa bildu eta su eman zion. Isilean erre zuen, ezertan pentsatu gabe, hiriaren usaina ekartzen zuen haizearen firfira entzunaz. Poltsikoan sartu zuen eskua. Gutunari begira geratu zitzaion luzaroan. Bezperan hartu baina irekitzen ausartu gabe sartu zuen poltsikoan.

Irakurtzen hasi zenean, itsura zabarreko gizonezko bat eseri zitzaion alboan. Hizketan hasi zitzaion. Asteetako bizar egin gabean mila usain klase nabaritu zizkion ardoarena gailentzen bazitzaion ere. Bidaltzekotan egon zen. Mahuka muturrean pasatu eta egarri zela agertu zion. Aurrerago zegoen iturria bila zezala erantzutekotan zegoela, zergatik egiten zuen jakin gabe, gutuna tolestu, poltsikoratu eta barrura sartu zen. Basokada ur zuela irten zen berriro. Asetzean altxatu eta bakean utziko zuelakoan, gutuna irakurtzen hasi zen berriro.

- Zer ari zara irakurtzen? -galdetu zion, hurrena, eskua luzatuz.

Euskaraz zegoen gutuna eta, ez zuela ulertuko jakinaren gainean, eskura eman zion.

- Gutun bat da, gutun garrantzitsu bat -esan zion gizonezkoak.

Ez zen zaila hura igartzea, munduko tontolapikoenak ere laster hartuko zion orri hari gutunaren tankera.

Irakurtzen ari ote zen susmoa izan zuen. Baina berehala, eta euskaraz zegoela kontutan izanda, irakur planta egiten ari zela pentsatu zuen. Tolestu eta eskura itzuli zion.

- *Zenkiuberimatx* -esan, basoa itzuli eta altxatu egin zen eskailera mailatik-. Amets egin dut bart, oraintxe gertatzen ari zaidana amestu dut. Sarri gertatzen zait.

Eskailerak jaitsi eta abiatu zen kalean gora. Berriro geratu, atzera begiratu eta esan zion:

- Benetan maite zaitu, bere bila joan beharko zenuke, berak ezin du etorri eta.

Gutuna irakurtzen amaitu zuen. Maite zuen, eta horrek laburtu baino distantzia handiagotu egiten zuen. Begiak jaso zituenean, desagertua zen itxura zabarreko gizonezko hura.

16

Begira diezaioGUN gure gurasoen lo-denborari. Hortik atera omen daiteke Morfeoren besoetan kulunkan egin dezakegun denbora. Adituek diote lo-aldiaren %50a herentziazkoa dela gizakietan (eta, noski, arratoietan ere). Baina ikerle talde horrek honakoa aurkitu du: *gen* baten aldaketak negatiboki eragiten du gualdiko atsedena.

Beste aditu batzuk diotenez (ametsik egiten ote dute adituek?), idatzizko *egunerokoa* da ametsen argitasunean eragiteko

oinarria. Ametsak gogoratu, idatzi eta lotara joan aurretik zer amets egin nahi dugun pentsatzea bezalakorik ez omen dago benetan gerta dadin (ametsean, noski). Idatzi egin dut, bada ez bada ere: Hondartzan nabil ibilian. Nire pausoez ez dute arrastorik uzten hondarrean.

Esanda bezala, nik *Ametsen egunerokoa* jarri diot izena karpinari. Aurkitu berri duten *gen* horri errua bizkarreratuz, oraindik nahiko hutsik daukadala aitortu behar, amets baten itzala gehiago dirudi, baina ez dut esperantzarik galdu, nahiz eta artista izateko nire asmoak gogoratu gabeko amets bakoitzarekin desagertzen zaizkidan.

Joxemari Urteaga

OLERKIAK

MIKEL ASURMENDIREN OLERKIAK

IZAKI BERRIARI KOPLAK

*Itsas lurraren azala
dago bare,
lo dauka beraren pare
ur jabala;
eguna sortu ahala
ezarian,
ihintzak blaitzen du aldian
lur mazala.*

*Sehaskan zaude erdi-lo
zirri-zorro,
ez zara, bada, lozorro
ez pottolo;
eskuez dagizu txalo
zirri-mirri,
higitzen zara bihurri
kili-kolo.*

*Egunsentian ekia
txukun-txukun,
iratzartu da lakrikun
txit eztia;
urratuz bere argia*

ttuku-ttuku,
errainuez du kukutu
ilazkia.

Astindu dituzu nagiak
zirrin-zarran,
lagatzearren kirrikan
haur-kabia;
marruskatuaz begiak
zinki-minki,
inarrosi duzu finki
goiz-aisia.

Hiriaren aurpegia
zurigorri,
ernatu da lotsaz gorri
beilegia;
sor dago itsas(h)egia
beltzurdina;
ekialdera sumina
zohargia.

Leihoan dira usoak
ezarriak,
zureganantz igorriak
itsasoak,
txirri-txorro goiz osoa
zuri deitzen,
lortu dute erakartzen
zure soa.

Egunak bere aldia
du berrartu,

*gauari zaio hondartu
bidaldia;
suspertu da izadia
goiztirian,
ta abiatu hirian
gizadia.*

*Azaldu duzu airoski
marra-marra,
jateko duzun beharra
naharoki;
beso artean artoski
atxikirik,
amak dizu bularretik
e(ra)doski.*

*Eguerdirian ekia
sutan jauzi,
gaínean dugu nagusi
esekia;
bihotza du irekia
hez(i)gabea,
bere baitako labea
izekia.*

*Aitzoan zara lerratu
ziri-zara,
aitak zaitu mara-mara
ferekatu;
jarraian berriz kexatu
zirki-mirki,
eragin baitizu zirkin
ta troxatu,*

Eguerdi ostean pausa
 da hirian,
 kaleak kiri-kirian
 motel dautza;
 Itsas usoek lo pausan
 ñiki-ñaka
 zurten dute urrumaka
 hiri hutsa.

Txalupa baten gisara
 ur pulunpan,
 orain kulunkari junpan
 ari zara;
 jaurtikí duzu izara
 kareletik
 ta loak hartu bertatik
 saiheskara.

Jausi da arrastiria
 ageriaz,
 gutxituz honen kariaz
 distiria;
 nabaria da hirian
 anabasa,
 txoriek dute babes
 aldirian.

Munsentian zeiharrez
 diharduzu,
 negar malakoak darizkizu
 ohi denez;
 barrua hustu beharrez
 gelditzeke,

ekiten duzu jo ta ke
deiadarrez.

Arrats beherean usaian
promenada,
izpi hondarren sastada
goiko plaian;
azken marinelak kaian
dira sartu,
ilazkia berragertu
lur-sabaian.

Portualdeko xaldainean
gara jarri,
esker-eskuin zabukari
itsasgaina;
josoak zaitu amaina
apar-apar,
isiltzen du bidenabar
zure maina(k)

Ekia ur magalean
da ostendu,
ilazki-ama gailendu
gualdean;
izarrak ditu aldean
erlantz antza,
berpíztuz doaz zalantzan
bat bedera.

Itsasoaren tiraina
lleba-lleba,
orroka da ailega

*guregana;
esnatu zara liraina
uhertzera,
gurekilar agurtzera
gau bikaina*

*Mikel Asurmendi
(Hendaia, 1988)*

Hala ere maite zaituztet

Maite zaituztet, hala ere maite zaituztet,
diotset ahots-hari batez,
zerua izartsu dago; har ezazue bana.

Txori bat hegaldatu da
gauak zuritutako urkiditik
egunsentiren baten bila.
Luzea da balaren bidea,
laburra txoriaren hegaldia.
Luma bat han, luma bat hemen,
luma, luma, luma.
Zerua lumatsu dago; har ezazue bana.
(Mailu isila, Alberdania)

Beti lez

Zauritan zauri dira
Bizkaiko mendiak.

Belardietan jaiotako azken loreak bildu
dituzte amek, bihotzaren kontra estuturik,
eta orain zain daude, semeren bati noiz
ipini beharko zerraldoaren buruan.

Haizeak jotzen ditu leihoak,
txingor erauntsia kristaletan deika:
ez egin lorik, ez egin lorik,
lo egitea debekaturik,
ez egin lorik, ez erantzi atorrarik.

Euriak betilez orrazten ditu
Bizkaiko mendiak.
(Mailu isila, Alberdania)

Haurren begirada

Basamortuak ez du biderik,
 baina bera da norabide ororen bide.
 Neure buruaz beste egingo nuke
 haurren begiradak adierazten didana
 adieraziko ez balit;
 ezereza baldin bada euriak
 bustiriko bidearen muga,
 ezereza bada bidea bera ere,
 ezerezta nadin lehenbailehen.

Haatik, bideko putzu ñimiñoetan
 haurren begiradak ikusten ditut
 ezerezetik sortuak;
 ezer eskatzen ez dute,
 ezer esaten ez dute;
 hortxe daude putzu txikiari
 sakontasun hondogabea emanez.

Euriak dena ezabatzen du,
 bete eta lehertzen ditu anforak,
 hozkatzen ditu harrizko herriak,
 hondar-husten basamorturik zabalenak,
 zentzugabe bihurtzen eskultorerik
 handienen atahuts miresgarriak.

Hor daude, orde, putzu txikietan
 haurren begirada handiak.
 Mendeak daramatzat
 malko bat ere isuri gabe,
 gogorra izan behar duk,
 nor izan behar duk;
 hareatzaren ezerezean
 lehortzen duk malko oro
 begi ertzean agertu aurretik.

Mendeak daramatzat malko
 bat ere isuri gabe;
 haurren begiradak ikusten ditut
 euriak bustiriko putzuetan;
 bihotza hondar bihurturik daukat,
 zuloa dut harrizko sabelean,
 eta, hala ere, haurren begiradak
 zerbaít inarrosten dit barrua ez
 den barru honetan.

Euriak, une batez aterturik,
 oasi bat egin dit begiradan.
 (Mailu isila, Alberdania)

Hexurra gogorra

Motots barruan mertxikak
 daramatzate amona amultsuek.
 Zein gozoa den amonaren egona
 egongelako besaulki zaharrean!
 Telebistan ikusten ditu begi
 nekatuez etorkizunaren arrastoak,
 garai batean kikarako kafe-hondarretan
 ikusten zituen bezala.

Bilobak hankapunttetan sartzen dira egongelan, elizan bezala,
 amona telebistari begira dagoenean. Airean, mertxikaren usaina.
 Amonak eskuak geldirik dauzka, lehen arropa zaharren adabakiak
 jostera ohituak. Orain biloben txandal tarratatuetan ezin adabaki-
 rik ipini; eta ez zaie azpildurarik ateratzen, hankak luzatu ahala.

Motots barnean mertxikak
 daramatzate amona amultsuek;
 telebistako euriak ez du
 amonaren musurik bustitzen,

*egongela lehor dago
eta lurrean ez da ageri putzu txikirik
biloben begirada islatuko duenik.*

Euria ari du etengabe telebistan; amonari zipriztin bat iritsi zaio masailera, begi baten azpira. Amonak ere badaki zer den hustasuna; mototsaren barruko hutsa, mertxika batez bete, zeinak baitu barnean hexurra gogorra, eta hexurraren barruan hutsa, are gogorragoa.

(Mailu isila, Alberdania)

Mailu isil bat behar dut

*Mailu isil bat behar dut,
gauez, inor ohartu gabe,
mundua desegiteko.*

*Utikan horrenbeste konponketa;
hautsi guztia, eta aurkitu beste mundu hori,
ezkutatzen ahalegintzen garen hori.*

*Baina ez dago halako mailurik;
ni neu ere konponketa hutsa naiz.
(Mailu isila, Alberdania)*

Aienatze-marra

*Arratsaldean, euri-jasaren ondoren,
euri-tanten bakardadeak
lurraren hezetasun isilean
aienatze-marra marrazten du:
irribarre bat, zain-zain.*

Eta arima zulatzen dit.

*Ezteia, oraíntxe.
Urre gorrizko eraztunak biltzen du lurra.
Kosomosa ezkutatzen duen argitasuna
saretuz doa emeki.
Ilunak, une batetik bestera,
ikusmen mugagabearen ateak zabalduko ditu.
Bizitzen jarraitu beharraren zama
eta hori oztopatzen duen oinazea
lurrin baten hatsa baino arinagoak
dira une batez.
Ezteia oraíntxe.*

*Eraztuna amorantearen hatzean sartzeaz,
ezkontza eten du gauak.
Kaoserako zirrikitu batek
eraztuna hautsi
eta berriro osatzera behartzen du
haraxeago
ihes-marraren muga.*

*Ama agontzen dut
zopa har dezan.
Jada ez dío begiratzen eguzkiaren sarrerari.*

(Aienatze-marra, argitaratzeaz, edit. Atenea)

Juan Kruz Igerabide

ASKATASUNE RANZKO THESA

Ihesean hoanean
 begiak zabaldu
 barne-sua
 jabetzen hasi arren.
 Zeru aske horretan,
 amestutakoan,
 hesiek lotuko baihaute.

Maitekoen duana
 bidetik desagertzean,
 lasterka atzera jo nahi duk dena.
 Hire esku kamutsak
 lintzuran sartzean,
 ur ustel hutsala
 jasotzerakoan.
 Barne erraïetan ,
 hago gar betean...

Ihesean hoanean,
 begiak zabaldu
 barne-sua
 itzaltzen hasi arren...
 Zeru amestutakoa,
 askatasunezkoa,
 sasiek hartuko baitute.

Ostadar da aurrean
 Ekaitz berriz gibelean
 hitz ustel trumoitsuak miztoetan,
 itxaropena ote
 Mundu ahaztuan
 Amildegi-ertzean
 hagoela ikustean
 jauzi bakarrean
 bizia eustekotan...

*Thesean hoanean
begiak zabaldu
barne-sua
itzaltzen hasi arren...
Zeru aske maiterantz,
amestutakorantz,
nora eza azalduko baita.*

*Preso begi distira
ahul urtsu haietan
Hats bakar batek ere ezin lasaitu.
Ezin ustea galdu
itxaropenean.
Begiak nagusi
bihotza ezinean.
barne erraietan
hago gar betean...*

*Thesean hoanean
begiak zabaldu
barne-sua
itzaltzen hasi arren...
Ametsetako zerua,
askatasunezkoa,
biziki hurbil baitaukak.*

*Ba al gaude funtsean
itxaropen ahaztuetan,
Haize joandako garaien hautsetan
murgiltzen baita.
Zabalik geroan
preso iraganean.
Barne erraietan
hago gar betean...*

*Thesean hoanean
begiak zabaldu
barne-sua
itzaltzen hasi arren...
Zeru aske horretan
amestutakoan
noraeza hirea baituk.*

Etxahun Aurkenerena (Urruña)

CASTILLO SUAREZ-EN POEMAK

*Nork kentzen dit buruko. Izarak lapurtzen dizkit.
Margotzen dizkit azazkalak. Armairuan sartzen dizkit ne-
guko arropak eta muxu ematen dit bekokian. Ezpainak
hotz ditu. Bere planak kontatzen dizkit. Ni baino lehen-
go jaikitzen da nahiz eta nik ohean gera dadin esnatu. Bi-
rikak arnasa hartzera behartzen ditu. Lagunarteko afa-
riez betetzen dit burua. Dutxan sartzen naiz eta bihotza
estutzen dit bere elurrezko besarkadekin.*

*Nahiago nuke bizitzera bulkatzen nauen indarra beste-
ren batekin oheratuko balitz.*

Lo zakuan geratuko naiz, eta ez naiz handik aterako ez bada hankak inurritu zaizkidalako. Ez dizkirate lepoko hozkadak ikusiko, azkazal zartatuak, esperma lehorra eskuetan, bizkarretik behera irristatzen zaizkidan pilulak. Ez dizuet eskatuko kafe termoarekin etor zaitezten etxera. Ez dut pijama erantziko. Zuekin ez beste, gauza guztiekin egin nahi dut lo. Ez naiz luzamendutan arituko: hortzekin hautsiko nizekizueke irribarreak zein gupida keinuak. Ez duen zuen beldurra ulertu nahi ezta zuen ezkontzetara joan nahi ere. Bakarrik egon nahi dut, besterik ez. Inkesta guztiak bukaeraraino bete nahi ditut eta ulertzen diedala esan inkestatzaileei.

Idatz dezagun liburutegiko liburuetan galarazia dagoela badakigun arren. Itxita txartela jar dezagun bularreran. Utz ditzagun poema guztiak izoztuen atalean jendeak har ditzan, eta mudantza-enpresa baten esku utzi egile eskubideak. Jar ditzagun sandaliak hatzak hautsita. Tren guztiak har ditzagun. Sar ditzagun motxilan muxikak, papera eta boligrafoa eta plastilina usaina. Bizitzak topikoetan ihes egingo digu bestela. Hantxak alferrik zikinduko zaizkigu. Ez ditugu ohe azpiko munstroak ezagutuko sekula.

Castillo Suarez

egin zazu lagun bat KARMEL aldizkariaren harpidedun...!
(urteko harpidetza: bakarrik 13€).

Izena-deiturak - - - - -

Kalea - - - - - Zbkia. - - - - - Solairua - - - - -

Herria - - - - - Tfnoa. - - - - - Postakoadea - - - - -

Herrialdea - - - - -

Ordainketa

Banku edo Aurrezki Kutxa - - - - -

Kontu korrontea/libreta _ _ _ _ _

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu-zenbakia

* * * * *

Aldizkariaren helbidea:

KARMEL - Zuzendaritza

Karmengo kalea, 5

48270 Markina (Bizkaia)

(Tel. 946 166 019)

www.karmelaldizkaria.com/karmel